

# EUSKERAZAINZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

Academia Popular de la Lengua Vasca  
L'Academie Populaire de la Langue Basque

XLVII Zenbakia

2000  
Urtarrilla-Ekainilla

EUSKERAZAINZA .....

ERRIZ ERRI .....

ERRI - EUSKERA LANTZEN .....

**EUSKERAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia. Z.N.A./C.I.F. G  
20/127.759**

Eusko Jaurlaritza"ren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE.AA. 96/1984)

Zuzenbideak: 1192 Posta Kutxatilla 20080 DONOSTIA

Colón de La reategi, 14-2<sup>o</sup> 48001 BILBAO

## AURKIBIDEA

	Orr.
Atarikoa .....	5
Alkartuta naiz banaka / Lortuak eta lortzekoak (OLAZAR"tar Martin'ek) .....	7
Erdi-Aroko euskal izanak, IX mendea, Balpuesta (LATIEGI"tar Bixente) .....	11
Agarre baserria (ARRINDA"tar Anes'ek) .....	25
Bizkaiera (OLAZAR"tar Martin'ek) .....	28
Intxaur-ondoak eta intxaur-jolasak (DORRONSORO'tar Jon'ek)...	32
Merkataritza (ARRINDA"tar Anes'ek) .....	37
Gernika'ko Batzarrak eta euskerea (OLAZAR'tar Martin'ek) .....	48
Udaleko euskera-teknikariak eta mendebaldeko euskera (MARTIARTU'tar Iniaki'k) .....	60
Naparro ta Frantzia'ko erreñua (Arrinda'tar Anes'ek) .....	61
Gure kontuak argita garbi (MURUA'tar Joxemari'k) .....	67
Esanai eta itz berriak (ARIZABALO'tar Patxi'k) .....	70
Euskerea ta Asmalaritza (ZUBIRI'tar Iñaki'k) .....	74
On Manuel Lekuona'ri (G.B.) Jose M. Murua'k .....	79

## Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA

I.S.B.Ñ.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao

# ATARIKOA

Irakurle!

Ona emen zure eskuetara bidean 2000n.urte onetan EUSKERAZAINTZA EUSKERAREN ERRI-AKADEMIA'k argitaratu duan lenengo zenbakia, berrogeta zazpigarrena.

Atariko onetan gure aldizkari onen elburua gogoratu dezagun: Euskera eta euskalkiak garbitu, sendotu eta argitzea. Orretarako dira zenbaki onetan agertzen diran idaz-lanik geienak. Baiña ba-daude batzuk edestia jorratzen dutenak ere. Ez ditugu alboratu nai izan, jakingarriak diralako. Argi utzi nai genduke, ori orrela izan arren, gure elburua, Euskera bera dala.

Erdi-Aroko euskal-izenak arloa jorratzen du Latiegi'tar Bixente'k eta oraingo onetan IX mendeko larruki bat aztertzen du, Balpuesta'koa ain zuzen. Arlo onetan jakitun degu Bixente eta jakitun-giroan egiña da lana. Zalantza barik euskera aberasteko izango da.

•..

Alkartuta naiz banaka idazpuru duan lana, neronek idatzia da eta egokia izango dala deritzait gure irakurleak argi jakin dezaten gure AKADEMIA'REN eta akademilarien lanak nondik nora dijoazen jakiteko. Alkartuta lan egiten degu batzarretan eta argitalpen batzuk argitaratzeko, baiña askoz aundiagoak eta zabalagoak dira euskerazaiñak banaka egiten ditugun lanak. Aipatu ditzagu bi: Argitaratu berria du gure Zubiri'tar Iñaki'k "Txano iratxoaren ipuiñak" liburua. Au banakakoen lanen artean. Eta alkartuta egindako lanen artean, urrengo zenbakian zeatzago aztertuko degun eta gudan ildako idazle gazteai buruz izango dan liburua. Dana dala, emen agertzen dan idaz-lanean dezu irakurle gure lanen berri zabalagoa.

•..

"Agarre Baserria" idazpuru dala idatzi du Arrinda'tar Anes lankideak. Jakingarri asko ta bearrezkoak aurkituko ditu or irakurleak.

"Bizkaiera" deritzaio nik idatzitako urrengo idaz-lanari. Guztiok dakigu nondik eta zergaitik etorri diran Bizkai'ko euskereak dituan larritasunak, baiña lan onetan laburpena egin nai izan det eta ondo etorriko zaizu arazoa argiago ikusteko.

•..

"Intxaur-ondoak eta intxaur-jolasak" de urrengo lana, euskaldunen izaerea agertzeko bide egokia.

•..

"Merkataritza" da urrengoa, au ere Arrinda'tar Anes'ena. Gure Anes'ek edesti-arlorra jotzen du geinbat, baiña euskera ta gure edestia ondo alkatzen diran ikuspegiak dira eta lana irakurgarria.

•..

Aurrerago aipatu det Bizkai'ko euskerearen arazoa eta idaz-lan onetan euskalki onen edestira begiratu eta gauza arrigarri batzuk aurkitu ditut, euskerari begira ere bai, Gernika'n egiten ziran batzarren joanean. Idaz-lan onek zer-pentsau emango digu, guztioi, baiña bereiziki bizkaiatarroi.

•..

Idazki labur baten Iniaki Martiartu adiskide ta lankideak Udal-Batzen zeregiñak agertzen dizkigu, batez ere bera bizi dan Bakio'n egiten dana gogoan duala, Euskerari begira.

•..

"Naparro ta Frantzia'ko erreñua" lana argi dago edesti-arlokoa dala, baiña beioa lan au anai napartarren omenez eta maitasunez. Anes'ek edestiaren egia, euskaldunen edesti sarritan larria, agertzen digu:

Murua'tar Jose Mari gure lankide sutsuak arazo batzuk argitzen ditu eta gure ekonomi-egoeraren argitasunak azaltzen dizkigu.

•..

Euskerak itz barrien bear-izana nabaria du eta itz oiek nola sortu adierazten du Arizabalo'tar patxj'k.

•..

Urrengoa Zubiri'tar Iñani'k Bilbao'ko asmalarien alkartean izandako itzaldia da. Gaia Bizkaieraren egoera eta bidea.

•..

Murua'tar Jose Mari'k On Manuel Lekuona ta Kardaberaz-bazkuna gogoratzten dizkigu azkenengo lanean.

•..

Izan bekizu, irakurle, atsegin eta aurrerabide gure "Euskerazaintza" barri au eta ez aaztu zure eritxiak eta azterketak agertzea.

**Olazar'tar Martin  
Euskerazain-Buruak**

# ALKARTUTA NAI Z BANAKA / LORTUAK ETA LORTZEKOAK (Bilbao'n, 2000-03-18)

Adiskide ta lankideok, egunon:

Gure Araudiak eskatzen dauanez, urte bi igaro diran ezkeru, EUSKERAZAIN-TZA EUSKEREAREN ERRI-AKADEMIA'ren Lendakaria eta arduradun bereziak aukeratzeko ordua etorri jaku edo obeto esateko, igaro jaku. Beste urte bi igaro dira eta auteskundera egitera sartu baiño lenago azterketa eta egitasmoen ager-keta egin bear dogu. Lortuak eta lortzekoak, alkartuta naiz banaka egindakoak gogoratuko doguz.

## **Lortuak:**

Lortuen artean lenengo gure illeroko batzarra gogoratu bear dogu. Onetan zintzo jokatu dogu. Geienok batzarrera etorri gara; Deba'n batu garanean naiz Bilbao'n alkartu garanean, pozik eta gogotsu urreratu gara alkartasunean lan egitera. Baiña onetan be ez da dana ondo egiña izan: Gazteak geienetan uts egin dabe, bear ba'da lanpetuta dagozelako, bear ba'da lan au atsegin ez jakelako. Zergaitik edo agaitik, baiña uts egin dabe. Uts egite orrek ondoren txarrak ekarri dauz: Idazkari gazteak ezin etorri izan diralako, beste batek bete bear izan dau zeregin au, beste lan batzuk ezin egin izan dira, esaterako Saski Naski argitaratzea. Gu gertu gagoz gazteai ardu-rak emoteko baiña eurak gertu ete dagoz ardurak artzeko? Eskari bizia egiten dau-tsegu euren erantzuna emon dagien argi ta garbi.

Ori dala-ta, edo beste zerbaitegaitik ille pare baten ez dogu egin batzarrik eta au ez da onartzekoa. Illeroko batzarra gutzat il-edo-biziko arazoa da eta aureran-tzean ille bat be uts egiterik ez genduke nai eta illeren baten eziña ba'litz, batza-rrean erabagia artuta izan bearko leuke eta ez iñoz baten edo batzuen erabagia-gaitik.

Illeroko batzarretan gure lanak zelau doazen aztertzen dogu. Bear ba'da ille osoa luzeegia izaten da urrats batzuk emoteko, baiña batzar bat uts egin ezkeru bitarte ori bai luzeegia izaten dala. Gogoratu, esaterako zelako atzerakuntza izan dauan "Idazle izkillatuai" buruz esku-arteau darabilgun lanak.

Aspaldion gure artetik joan jakuz batzuk, esaterako len batzarretara utsik egi-ten ez eban Anbrojo Zatarain, batzarretara etorri ez arren gure artekoa zan Kere-xeta'tar Jaime. Beste batzuk gaisorik daukaguz, esaterako ain langillea izan dogun Augustin Zubikarai edo laster gure arteau barriro ikusteko itxaropena dau-kagun Amale.

Atal au amaitzeko, ain bearezkoa dogun illeroko batzar au egiten jarraitu bear dogu, naiz Bilbao'n, aspaldion egiten dogun lez, naiz egokiagotzat artu geinken beste tokiren baten.

Lortuen artean gogoratu daiguzan aurten egin diran euskal aste biak, bata Donostia'n eta Amorebieta'n bestea. Naizta entzuleak asko izan ez, aste biak ondo gertatuak eta ondo ospatuak izan dira eta olako asteak egiten jarraitu bear-ko dogu erri-euskerea indartzeko. Zabalkundea zelan obeto egin aztertu bear-ko da.

Aste oneitako gaiak eta izlariak egokiak izan dira: Bixente Latiegi'ren gaia euskal-kristautasunaren edestiari buruz, Iñaki Zubiri'rena olerkigintzari buruz, Latxaga'rena euskerearen batasunari buruz, Paul Atutxa'rena Euskal nortasunari buruz eta Martin Olazar'ena euskerearen edestia gai dala. Eta orrez gaiñera gure Liburu Gorria aurkeztu eban Jose Mari Murua'k.

Ekintza au onuragarria izan daiteke baiña geiago erriratu bear dogu.

eee

Saski Naski aldizkariaren zenbaki bat argitaratu dogu eta ori be lortuen artean aitatu-bearrekoa da. Mikel Aldekoetxea gaztea izan da arduraduna eta lan ederra egin dau, baiña ba-da gure artean zalantza apur bat edo apur bat baiño geiago gure Manu Oñatibia'k itzi euskun aldizkari au argitaratu ala ez. Mikel'ek ardurau au artu ezkeru eta ekonomi-arloko arazoak bideratu eskero, atera egingo geunke, baiña berez zalantzazko gauzea izan eta arlo orreitan ziurtasunik ez ba'dago ez da gauza erreza izango argitaratzea.

Zertarako litzake Saski Naski? EUSKERAZAINTZA gure aldizkariak akademi-lanak agertzen dauzan lez, erri-majllarako irakurgaiak erri-euskeraz agertzeko. Ba-dago or landu-bearreko arlo bat... baiña zalantza orreri ez dautsagu erantzunik emon, ez dogu erabagirik artu eta denporea doan neurrian geu eta gure irakurleak otzago aurkijzen gara.

••

Zalantza barik argitaratu bear dogun aldizkaria, gure akademi-lana agertzeko aukera dogun aldizkaria, Euskerazaintza dogu. Au argitaratu bear dogula ziur dakigu. Baiña emen be oztopo aundia aurkitu dogu: Len arduradun izan dogun Augustin Zubikarai gaisotu egin jakula eta gaisoa, zori txarrez luzea dala. Dana dala, argitaratzen jarraitu dogu eta oraintxe dator eskuartera azkenengo zenbakia, gai biziak eta ondo aukeratuak dakazela. Larregi atzeratu jaku argitaratzea, baiña atzerapen orren errua geiago da irarkolarena idazkolarena baiño eta aurre-ratzean urtean lau zenbakiak sasoiz agertzeko alegiña egin bear-ko da.

eee

Lortuen artean, baiña, gure Liburu Gorria gogoratu bear dogu. Onen eginbi-dean lan aundia ta geiena Jose Mari Murua'k egin dau.

Zer eta zertarako dan liburu gorria? Geure nortasuna, nondik gatozen eta nora goazen, zergaitik agertu garan euskerearen mundu onetan eta zeren billa gabil-tzan euskaldunen munduan argi ta garbi agetzeko. Eta zeregin ori ederki beteten dau liburu "Gorri" onek. Idazle askoren idaz-lanak dira eta argi agertzen dau euskerearen munduan "Batua"k egiten dauan kaltea, atxea'k euskereari ikasteko eta idazteko dakartsozen oztopoak eta Batu ori sortzeko izan ziran zioak eta maltzur-keriak. Eztabaġa'rako liburua da ba, eta liburu orregaz eztabaida-giro ori amai-tzea naj genduke.

••

Lortuen artean jarraitzeko, laguntza eskuratzeko bideak zabaltzea da beste ekintza bat. Madrid'etik laguntza lortzeko bideak artzen diardugu eta lenengo gure Akademia "Instituto de España"ra sartzea nai genduke. Len be egin gendun orretarako alegiña, baiña Euskaltzaindiaren aurka-jokoak zapuztu eban gure ekintza. Orain gauzak pizka bat obetu dirala dirudi eta berraro diardugu ori lortzeko bideetan, orrelan ain urria dogun diru-laguntza lortzeko.

Beste ekintza bat be burutu gendun, Araba'ko Aldundiari laguntza eskatzekoa. Egin gendun alkar-izketa Rabanera jaunagaz, baiña gure alkar-izketa onetan an egoan San Kristobal jauna, euskaltzaindikoa, eta ortik murriztu zan gure itxaropena. Dana dala, idazlanak egin ezkerko laguntza emoteko gertu geratu zan Rabanera jauna. Eurak ez dagozela euskerearen aurka esan euskun argi ta garbi, beti iñor ikastera beartzen ez dala. Gure eskaria gure eguneroko zeregiñetarako laguntza eskatzeko zan baiña orretarako laguntza lortzea ez zan ain erreza.

..•

Naparroa'ra eta Errioxa'ra gure ekintzak zabaltzea da lortu dogun beste elburu bat. Orretan bizi-bizi ekin dabe Latxaga'k eta Atutxa'k eta ondoren ederrak lortu be bai. Ikintza orren barriak ZER aldizkarian eta "Diario de Navarra"n izan dñra argitaratuak: Ikastoletan irakasleakaz eta gurasoakaz artu-emonak, Elduen ekintzak euskerea ikasteko, Erakusketa batzuk eta abar.

Gure Bixente Latiegi eta Latxaga, Paul Atutxa be lagun dabela, Jaurlaritzaren diru-laguntza lortu ondoren, joan dira Oska'ra, an euskera noiz arte egin dan ziurtatzen daben agiriak billatzera. Ondorena oso ona izan da eta lan onen lorpenak azkenengo EUSKERAZAINTZA aldizkarian agertzen dauz Latiegi'k argazki ta guzti. Ori be bego lortuen artean.

## **Lortzekoak**

Auteskundera egin ondoren, zer geratzen da lortzeko? Zer da urrengo egitekoea?

Lenengo ta bein, eskuartean darabilguzan gaiak ekin. Gogoratu emen esandako batzuk: Euskerazaintza ta, al ba'da, Sasaki Naski aldizkariak, esku-artean darabilgun idazle izkillatuen liburua, bazkide barriak, batez be gazteen artean, billatzea...

Baiña ba-dira beste ekintza batzuk be, aspaldion beintzat aitzuta daukaguzanak: Euskerearen egunak errietan orretarako idazle ospetsu baten omenaldia egi-ten dala (Ubide'n lbargutxi'ri, Oztandiano'n Arrese ta Beitia'tar Pilipa'ri Jesus Gaztañaga'ri Errexil'en edo Asteasu'n, Zatarain'eri Donostia'n, Kerexeta'ri Eloorrio'n, Puxana'ri Oleta'n-edo, Zubikarai'ri Ondarroa'n...)

...

## **Banakako lanak**

Euskerazaintza'koak garanok, bakoitxak bere giroan beste lan asko eta zakon-zabalak beteten doguz eta batzuk emen gogoratzea bidezko gauzea dala uste dogu.

Bixente Latiegi'k lan aundia egiten diardu Euskalerrria'n Eleizearen edestia idatziz. Amar bat ale izango dauz lan onek eta benetan ederra ta ondo oiñarritua da. Orretarako eskuartean izan dauz Bixente'k iturririk onenak Gasteiz'ko Seminarioan dan liburutegian.

Latxaga'k oraintsu argitaratu dausku Euskal-Sena deritxon liburu aztergarria: Euskaldunen nortasunak dauzan izakera bereizkiak agertzen dauz Latxaga'k, giza-izti edo antropolojian Maixu dan batek agertu leikezan erarik onenean. Itxurari begiratu ezkeru, Latxaga'ren ikuspegia liburu onetan ezezkorra da: Euskaldunak beti begirutzen dautso irabaziari, bere etxearen aurrerapenari eta atera leiken onureari. Baiña barru-barruan ikusi daiteke euskaldunak jokabide orregaz emon eta zabaldu dauala munduan frutua. Etxearen onerako egiñak izango dira, bear ba'da, gure aurretikoak Ameriketean egindako garapen-lan ederrak eta gure misiolariak mundu zabalean egindako ongintza-lanak.

Agiri au izenpetzen dauanak be azkenengo urte onetan bere liburua argitaratu dau "Zu, Martin" idazpurua dala. Liburu onek bizi-bizi agertzen dau gure aldi onetako egoerea ta giroa, bere bizitzagaz dituan zer-ikusietan. Argazki ikusgarriak eta agiri irakurgarriak ugari dira liburu onetan. Ogei bat eskutitz artu dauz idazlea'k liburua goratzen dabenak eta ez dira peitu izan aurka agertzen diranak be, esaterako munduan erririk ez dagoala eta errien eskubideak politikarieren aogaga beroak dirala diñoana.

Iñaki Zubiri'k, urte gitxi batzutan isillik egon ondoren oraintxe diardu Txano bere elebarria edo ipuin-liburua argitaratzen.

Gure bazkideak lan ederra egiten dabe Zer aldizkaria argitaratzen eta or euren idaz-lanak agertzen, baita "Diario de Nabarra" egunkarian orri bat euskeraz idazten.

Eta, amaitzeko, Bilbao'ko EUSKERAZALEAK ALKARTEA'gaz bat eginda gure bazkideak urtero lan oneik burutzen dabez: Eguneroko orria dauan egutegia argitartu bizkaieraz, ipuin-sariketa eratu urtero, Euskal-Astea eratu urtero, ZER aldizkaria argitaratu bizkaieraz illero, Bizkai'ko Euskerea Bilbao'n irakasteko jkasturtea eratu. Ba-dira ogeta-amar bat urte jkasturte au eratzen dala. Eta lan guzti oneik bideratzeko amabostero alkartzen dira Euskerazaleak alkartea'n.

Orra or, entzuleok, gure lortuak, lortzekoak eta banakako lanak. Diru-laguntza ugariagoa izan ezkeru, lan geiago egin geinke, baiña urritasunagaitik ez dogu atzera egingo. Maite dogu euskerea. Besterik ez. Ezkerrik asko zuen arreteagaitik.

**OLAZAR'tar MARTIN**  
EUSKERAZAINTZA'ren  
LENDAKARIAK



# ERDI-AROKO EUSKAL-IZENAK: IX MENDEA, BALPUESTA'KO GOTZAITEGIAREN IDAZKIAK

## 864'KO IRAILLAREN 17'KO LARRUKI BAT

Larruki or<sub>i</sub>, Araba'ko Gobiaran (Valdegobia)n Balpuesta'ko gotzaitegian izan zan gordea, eta Tutela bateko elizari egindako opari bat sendotzeko izan zan, berriz, idatzia.

Ñaparroa'ko Muskaria edo Tudela'z gaiñera, badira izen ortako beste erri batzuk. Bost aipatu zituan bere lztegian Paskual Madoz'ek 1849'an. Oietako bat goiberetengo edo artziprestazgoa ornen zan, Araba'ko ipar-sarkaldean Aiala deritzan aranean. Artzeniega'ren inguruan zazpi parroki ornen zituan: Gordeliz, Kanpijo, Billasus, Santa Koloma, Sojo, Sojoguti, Kostera, Llanteno, Mendieta, Retes de Tudela.

Azkeneko ori izanen zan eskierki Larrukiak aipatzen duan Tudela: "...locum que dicitur Tutela"<sup>1</sup>.

Dakusazunez, bere euskal-itxura galdua zuten XIX mendearen erdirako Madoz'ek aipatu dizkigun erri oietako batzuk: Villasus, Campijo, Costera...

Ez da ordea, izen oien azterketa gaurko nere eginbearra, larrukiak aipatuko dizkigun IX mendekoena bajzik.

Alatagutziz neronek ere aipatu nai nituzke bi: Sojoguti eta Tudela bera.

Aurrenekoa, eguneroko izkeratik galdua dugun "GUTI" itza atzizki lez daraman SOJOGUTI. "Guti" orrek "txiki" esan nai du. Bada Ñaparroa'n Burunda Aranean, atzizki ori daraman erri bat: OLAZAGUTI. Ba, gaur, era baldarrean, izena aldatu diote erri bikain orri: OLAZTI.

Ñik, naiz nere gurasoak naparrak izan, ez dut sekulan Olazaguti'ri "Olazti" esaten entzun. "OLAZAUTI" bai, baiñan "OLAZTI" ez.

P.A. Añibarro'k OLAZAGOITIA idatzi zuan joan dan mendearen lenen urteetan, orrela sasi-etimologi bat sortuz, baiñan erri orren egiazko izen txukuna Olazaguti da, "A" atzizkiarekin, OLAZAGUTIA.

Tudela ez baiña MUSKARI da Ñaparroa'ko uri eder orren euskal-izena. Orain Euskaltzaindiak, Tutela bataiatu du. "Tutela", ordea, eta "Tutora" Arabitarrek emandako izenak ditu. Tutela, erdiaroan IX mendez gero sortu zitzaion horrisono du, izen ori erromatarrengandik zertorkiolako ustean: "Su nombre euskaldun es TUTERA que con toda seguridad deriva de "tueri" ("mirar", "proteger") y más directamente de "tutela" ("protección"), diosku "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco" k. Bai-

---

<sup>1</sup> Irakurle: ez zaitzala "que" orrek arritu, larruki au txit baldarki idatzia izan zan-da. Orrelako trakeskeri geiago ere agertuko zaizu.

ñan askoz leenago Erromatarrek MUSKARIA izendatu zuten, itzari "nominatibua" edo "izenkera" emanez, Ptolomeo lekuko dugula.

Gaur bertan ere uri eder orrek alboan daukan alor bati "Muskeruela" esaten diote muskaritar beraiek.

Erromatarrek "Muscaria" lez jaso zuten izen ori. Ñere ustez ederki izan zitekean MUSKARRI, (izenkerazko atzikia erantsiz, MUSKARRIA); jakiña bait da, euskaldunei entzuten zioten "R" soifua idazterakoan, "R" edo "RR" izkien artean erbesteko idazle zar aiei nolako zalantzak sortzen zitzaizkien.

¿Agian euskaldunen ezpaiñetatik "R" ta "RR" arteko doiñu bereizi bat entzuten zutelako? Ñaiz askoz goxoagoa, ¿agian Frantziarrek agoskatzen duten, eztaarritiko "GRRE"ren antzeko zerbait?

¿"Muskarri"ren aurreneko MUSK ori zer izan daitekean? Ez da erreza erantzuna. Baiñan MUSKAR Laburdi'ko abizena da. MUSKA, giza-izen naparra, eta ez atzo goizekoa, X mendearen erdikoa baizik, ainzuzen 952'koa. Era berean MUSKO giza-izen naparra dugu, eta zarra au ere: XIII mendekoa. MUZKI, Ñaparroa'n Gesalariko landa bat. MUZKILLERA, Aiala'n alor bat. MUZKIA, abizen giputza. MUZKIZ edo MUSKIZ, Bizkaï'n erria...

Aitor dezagun ba "MUSK" ori, esannaiarik ezagutzen ez diogun itz euskaldun zaar bat dugula2.

Goazen, ordea, aurrera gure eginkizunean.

Baiña eman dezagun lendabizi, larruki au idatzi zanean Euskalerrriak bizi zuan giroaren berri.

Egoaldean, Españi musulmana "emiratus" edo emir—erri yare biurturj k zegoan I Abd-al-Rahman (756-788) ezkeror; eta larruki au idatzi zan urtean, 864'ean, I Mohammed (852-886), zan Españi artako "Emir"a. Españietako Agintari Musulmanen artean bikaiñenetakoa. Euskaldunen aurka -- ¿nola ez? -- borrokan ibilli zana.

Mende'terdi bete-berria zan Españi musulmanen **eskuetara jausi zala**, eta, ordurako, Españi'ko jenderik geien—geiena, ia dana, musulman biurturik zegoan: "Al cumplirse el siglo de la conquista, la inmensa mayoría de la población hispanovisigótica había abrazado el Islam"3.

Gauza Berdiña gertatuko zitzaigun noski ego-sortaldeko Euskalerrrian, an maometarren eskupean gelditu ziran euskaldunekin.

766'ean Bedr buruzagi musulmana, I Abd al—Rahman'en esanera Araba'ko mugara iritxi zanez gero, ia—ia urtero izan zuan Araba'k Musulmanen eraso. Aietako bat, izugarriki gogorra, 863'an ainzuzen: iaztertzer goazen gure larruki au 864'ean idazia izan baiño soilki urte bat lenago!!!

Alatagutziz ez duzu larruki ontan borrokaldi orren aipurik aurkituko.

Ez zan bá nolanaikoa izan. Ibn Adhari edestilari arabitar ospetsuak dioskunez, oiñezkoak zenbatzeke, 20.000 (ogeimilla) zaldizkoz osotutako gudarozte bat etorri ornen zan ba Araba'ko gure Asaben aurka, oraintxe aipatu dugun I Mohammed Emir beraren semea buruzagi zuala.

Eta aundia izan ornen zan gudarozte orren garaitza; gaztelu asko lurreratu ornen zituan, eta alorretako uzta guztiak erre. Baiñan batez ere mendi—tarte batean (¿Pan-

2 A!. Madoze'k aipatutako bost Tudela aietatik, bat Asturietakoa da, bestea Balladoliden albokoa eta irugarrena Lerida'koa. Beste biak euskaldunak: ikusi ditugun Naparra bat, eta aialatarra bestea.

3 Ruiz Asencio: "Mozarabes". Diccionario de Historia Eclesiástica de España. Madrid, 1973. III, 1747.) Lau liburuko idazkia da. Ez balio aundiegikoa. Laisterregi egiña izan bait da. Badu Eraskin bat. Agian, duan gauzarik onena.

corvo, latiñezko Ponte Corvo'n ote?) kristauek jasan zuten ondarena izan ornen zan izugarria. "Emeretzi Konte, eta iru 'Alkaide' Ñagusí edo Gaztelu-Buruzagi' nagusi il ornen ziran ba musulmanen erasoz arkaitz—arte gogor artan.

Ibn Adhari'ren liburuak dakarren guzia "une infomation sure et minutieuse" ornen da, ots, "albiste-sorta zurrta, eta arduratsua"<sup>4</sup>.

"Une information sure et minutieuse" ornen dakarkigun ibn Adhari orrek orrelako txorakeriak esaten ba'dizkigu, ¿nolako sinistea eman dezaiekegu aro artako beste edestilariei?

—Asturietan, errege, (850-866), I Ordoño zan. Errege Bisigota. Euskaldunen etsaia. Asturietako Errege guztiak izan ziran Bisigotak. Eta. orregaitik, Euskaldunen etsai gorriak.

Ordurako lau gudaldi gogor sortu zizkiguten Euskalerrriaren aurka: I Alfontso'k aurrenekoa, I Fruela'k bestea, I Ordoño onek irugarrena, eta, laister, III Alfontso'k (866-910) laugarrena.

—Naparroa'n I Santxo Gartziarena'k zeukan erregetza. Ez dirudi IX mende artan Arabarrek Musulmanen eta Asturietako Bisigotiarren aurka, Ñaparren laguntza aundirik izan zutenik, naiko lan bait zuten Iruña'ko Erregeek beren lurraldean bertan Musulmanen erasoei aurpegi ematen.

—Musulmanen mendeko Ñaparroa'n eta Ñaiara arteko Errioxa'ren sortaldean Banu-Qasi'tarrak ziran, Muskari uriburu zutela, erdi-errege ta erdi—yare, lur zabal aren jabe. Ez ziran aldiz—aldi Euskaldunekin gaizki konpondu, baiñan, aldiz—aldi, Arabarrak aien aurka borrokan ibilli bearretan aurkitu ziran, Buradon eta Bilibio mendien arteko lbero ibajaren lepo estuan eta lepo orren inguruko lurraldeetan.

—Araba, orduan "konterri" bat zala esan oi da. Baiñan ori ain ziurki esaterik ez dago, Araba'ko konte bezala aipatzen diran gizaseme aien nolakotasunik ez bait dugu ezagutzen. Ez ziran beintzat, -- III Alfontso'ren "Kronika"k adierazi nai digula ematen duanez --, Europa'ko beste konteak bezalakoak. Kronika orrek, borrokaldi batean baiturik artutako Arabarren buruzagia "konte baten itxurakoa zala" esaten bait digu: "videbatur comes eorum".

Bearbada, Arabarren Batzarrak gudate bakoitzerako aukeratzen zuan buruzagi bat besterik ez genuan konte aietako bakoitza.

Araba'ko lenen "Konte" ezagun baten izena, Eylon da 866'ean Asturietako Bisigoten aurka borrokan katigu artua izan zan "eta konte baten antzekoa" omen zan ura bera.

864'ean Araba'n Konterik ba'zan ez dakigu, Baiñan borrokaldi gogor bat, ikusi dugun lez, 863'an gertatu bait zan, eta bestea, -- lengoa bezain gogorra eta lengo Printzipe buruzagi aren esanera-- bereala 865'ean gertatuko bait da, bi urte oien arteko 864'an, baleike Araba'ko "Kontea" katigu artua izenen dan Eylon ura bera izatea. Oar izen ori -- EYLOÑ -- Iparraldeko izena dala: izen akitaniarra<sup>5</sup>.

Larrukian datozen erri eta toki--izenak aztertzea dugula gaurko gure egin bearra, esan dut goraxeago. Baiñan larruki ortan bi erri-izen besterik ez datoz: aztertu dugun TUTERA, eta larrukiak damaizkigun done—izenen artean aztertuko dugun "SAÑCTI SATURÑIÑI".

Orregaitik, orain, giza—izenak begiztatuko ditugu, gero done—izene; begi—ematen asteko.

4 J. Boch-Vilá: "Ibn Idhari". Encyclopédie de l'Islam, III, (1971), 828-829. Ederra benetan, eta bikaiña, Olanda'ko Leyde'n eta Paris'en argitaratzen dan Iztegi au.

5 863 eta 865' ko eraso musulmanen gudalburu izan zan Printzipe Musulman ura, I Mohammed Emir bikain aren semea, urte oien inguruan Naparroa'ko Printzesa batekin ezkonduko ura bera ote da? Baleike; baiña ziur ez dakit. Ez bait dakit ziur Emir ark zenbat seme izan zituan ere.

Auek ere garrantzi aundikoak bait dira, beste dokumenturik ez duan Erri baten antziñatasuna ezagutzeko.

GIZA—IZENĀK-. Larruki guzia Goi—Erdiaroko latin baldarrean idatzirik dago—ta, izan daitezke izen oiek ere aski era baldarrean idatzirik etortzea, ikusi aal izango dugun lez.

Aurrena, larrukia idatzierazi zuan andrearen eta bere zazpi seme—alaben izenak datoz: "In nomine Domini. Ego Eldoara una con filiis meis": "Jaunaren izenean, nik, Eldoara'k, nere semeekin batera... Ikus emen Eldoara ta bere sei semeen izenak:

Eldoara	Fredenando	Godesteo
Gisclaura	Hanni	Soario
	lusta	

¿Euskaldunak ote dira izen oiek danak? Oiek d;ra beintzat Euskalerrian idatzi zan larruki onek damaizkigunak. Ikus ditzagun ba guztiak banaka.

— ELDOARA. Larruki ontan bertan, geroxeago, HELDOARA dator, "H" idatzirik. Eta Bigarren Kartularioak, "H"rik gabe, ta "O" "U" biurtuz izen ori ELDUARA damaigu<sup>6</sup>.

Andre orren izenak, naiz "ELDU-ARA" naiz "ELDO—ARA" izan, -- sekulan ez bait zan "H"z "JELDOARA" izan --, badu euskaldun-itxura galanta. Batez ere, izen ori done—izena ez dalarik, larrukiak Andre aren izena ez baiña abizena, -- ots, Euskalerrian oiturazkoa izan dan bezala --, etxearen izena ba'damaigu.

"Eldua", Tolosa'tik bertan dagoan Erri giputz baten izena da, eta "Elduayen", gora-xeago dagoan beste erri baten izenaren enborra. "Elduain" Tolosa'n abizena da, eta Araba' ko Lagran'en alor baten izena. "Elduatxiki", Bizkai'n, Abando-Zierbana'n, beste alor baten izena.

Badira Euskalerrian, Gipuzkoa'n batez ere, enbor ori daramaten beste izen batzuk; "Elduaran" eta "Elduarain", adibidez, Tolosa'n eta Tolosa'ren alboko Ibarra'n; etabar.

Eta Euskeraz -- eta nere ustez izkuntza oroz -- "O" errez "U" biurtzen dalako Andre aren egiazko Izena Elduara ez baiña Eldoara izan ba'zan ere, ez zuan orregaitik bere euskalduntasunik galduko. "ELDO" sustrai duan izenik aski euskalerrian badugun ezkerro: "Eldoz", adibidez, abizena da Oiartzun'en, berdin "Eldoien" Laburdi'ko Ziburru'n, eta "Eldone" orain ezabaturik dagoan erri zar—zar bat N'aparroa'ko Artajona'ren albo-alboan.

Ez da erreza "eldu" edo "eldo" itzaren zentzua igartzea. Bada "ildo" (erderazko "surco")ren aldakuntza dala esaten duanik. Ez dut uste. Etimologi errezegia iduritzen bait zait, eta gure izkuntzaren jardunkeraren aurkakoa. Esan dezagun ba, ELDO—ELDU, zentzu ezezaguneko itz euskaldun bat dugula.

GISCLAUARA.- Zaillagoa azalduko zaigu izen onen ikerketa. Batez ere, Bigarren Kartularioak neska edo mutil aren izena GISSILAUARA zala esaten digulako.

Esan dut izen auek aski baldarki idatziak izandako itxura dakartela, eta ori gertatzen zaio nere ustez neskatil onen izenari.

Bere ta Elduara bere amaren izen biek atzizki berdiña dute: "ARA". "Lur" esan nai ornen du itz orrek, baiña nere iritzi apalez, atziki toki—adierazlea ere bada: ortaz, "Arbelara", "arbela" -- gaztelerazko "pizarra" -- dagoan tokia izango litzake.

<sup>6</sup> Dokumentu auek, antziña artan, noiz, ziur ez dakigu, larrukizko liburu aundi batzuetara aldatuak izan ziran. Liburu oiei erderaz "Cartulario" esan oi zaie, ots "karta-bilduma". Teknik'itza dalako guk ere Kartulario esango diegu karta bilduma oiei. Balpuesta'ko dokumentu auek lau kartulariotan iritxi zaizkigu eta lau oietako bakoitzean aldaketa batzuk ikusten dira. Guk aldaketen berri ematerakoan, kartulario oiek "Lenengo", "Bigarren", "Irugarren" edo "Laugarren Kartularioa" izendatuko ditugu.

Artu dezagun, ikerketan asteko, "Lenengo Kartulario" onek damaigun izena: Gisk-lauara.

Izen ori gis—k-lau—ara zatitzen ba'dugu, "ARA" (=toki) eta "LAU" (=zelai) zer diran badakigu. "K" zubi-antzera sartutako izki bat izan daiteke. ¿Zer ote da "GIS"?

Bere antzeko izen bakarra, nik ezagutzen ditudanen artean, auetxek dira: "Gisso": Ñaparroa'ko III Karlos'ena dala uste izan dan dokumentu zar batean datorren erri baten izena da. Eta, "Gisu—ela", Bizkai'n Sopuerta'ko alor batena.

Ñeska edo mutil aren egiazko izentzat "Bigarren Kartularioak" damaigun Gissilauara artzen ba'dugu, ez zaigu lana askoz errezagoa biurtuko. "GISSILAU" zer dan ziur ez bait dakigu.

Lana erreztearren, itz ori bikoiztatua dalaren ustez, "GISSI"—"LAUA" biurtzen ba'dugu "LAUA" gaztelerazko "llano" "plano" dala badakigu. Ta, "GISSI"ren antzarik aundjenero euskal-izenak "GIS"z asten diran izenak ditugu: "Gisalieta", "Gisasola", "Gisategi", "Gisastua"..., a;ztintxe aipatuak izan diran "Gisso" ta "Gisuela" bi aietaz gaiñera.

Lopez Mendizabal'ek "gisa" gaztelerazko "retama" dala idatzi zigun: ("gisa" > "isa" > "isas" = "retama"). Ori egia ba'litz, "Gissilaua", agian "Isastizelaia" izango litzake.

Ez zaizkit, ordea, orrela ateratako etimologiak beiñere atsegiñak gertatu, itzak geiegi b;hurtuta atereak izan dirala iduritzen bait zait. Alatagutziz, izen orri, -- bedi Gisk-lauara, bedi Gissilauara --, euskal—itxura nabaritzen diot.

HAÑÑI. ¿Mutil baten ala neska baten izena? Gizon batena, ezpairik gabe. Geroa-gore, dokumentu au izenpetu zuten lekukoen artean, bigarren aldiz agertzen bait da izen ori: "Hanni presbitero teste": "Hanni bereterra, lekuko".

Beraz, zalantzarik gabe, Hanni ori, gizonezkoen izena dugu.

"Laugarren Kartularioak" batere "H"rik gabeko AÑÑEA bat damaigu. Itxura guztiz Annea ori ta Hanni izen bera ditugu eta gizaseme bat berarena, naiz Hanni "A" atzizkirik gabe eta Annea "H"rik gabe etorri. Matimatiken eraz esanik "AÑÑI" = "AÑÑE", edota, "AÑÑE—A" = "AÑÑI-A". "E" (Anne) eta "I" (Anni)'ren trukaketa, fonetika—auzi bat besterik ez dala edonork bai bait daki).

Beraz, izen bat, era bitan.

Bi era oietatik ¿zein ote da mutil arek zeramakiana, AÑÑE edo AÑÑI?

Idazkeraren arauen bidetik, ezpairik gabe AÑÑI. "I" antziña artan maiz aski "E" idazten bait zuten. Beiñere ez ordea alderantziz. Ots, beiñere ez zuten, "E" irakurtzeko, "I"rik idazten.

Baña, euskal—agoskeraren arauen bidetik, berez "E" daramaten itzak maiz aski "I"z agoskatzen diralako (adibidez "esnea" "esnja"), eta gizakume eta gizakumeekin estuki loturik dauden gauzen izenetan "A" atzizkia errez galtzen dalako ("Etxeberria"ren orde "Etxeberri" da gaur etxe bat baiño geiagoren izena), badaiteke, gure larruki ontako mutil aren egiazko izena AÑÑEA izatea ere.

Baiñan bi "ÑÑ" oiek, "Ñ"ren otsa emateko, orrela bikoiztaturik idatziak izatea ere badaitekealako, badaiteke baitare, errez gaiñera, izen orren egiazko era AÑIA izatea.

¿Ez dugula ezer askorik argitu? Ez da arritzekoa, "Izan zitekean"etik "izan zan"era igarotzeko zubi bat bearrezkoa bait da, eta guk ez bait dugu orrelako zubirik izan.

Alatagutziz ez zaigu saio luze au alperrikakoa gertatu, gure adiskide zar aren izena "AÑ"ez asi edo "AÑ"ez asi, astapen ori duten euskal-izenak, naikoak eta naikoak baiño geiago aurki bai dezazkezu, adiskide aren izena euskalduna izan zala oiukatzeko.

"AÑA" edo "AÑE" -- edo berdin dana "AÑÑA", edo "AÑÑE", -- zer ote dan jakitean dago koxka.

Kerexeta'k, Lopez Mendizabal'en jarraian, gaztelerazko "pasto" dala diosku, eta, "aña" "lugar de pasto". Ez dakit bá... "Pasto" ez bait zait gizakume batentzat oso izen egokia iduritzen.

Badaitake ordea mutil arek -- eta baita bere senideek eta bere amak ere -- larrukian beren izena ez baiña bakoitzak bere etxearen izena eman izatea. Euskalerrian etxearen izena etxekoen abizena izan bait da, eta oraindik ere orrela bait da. Oraintxe bertan LARREA (gaztelerazko "PASTO") abizen ondo ezaguna da gure Euskalerriontan'

Azkue'k, ordea, ez dio AÑA itzari orrelako zentzurik ematen.

Ñik, beste onako auxe ere esan nai nuke:

"Aña", ez da guretzat gaztelerazko "digno"ren antzeko adjetibo edo izenondoko bat, "konjuntzio konparatibo" edo "alkarle kidalari" bat baizik. Orrela, adibidez, esaldi ontan: "Jauna: zure seme izatera iristeko aiña ez bait naiz ni". Orren gazteleraketa zuzena, onako au izango litzake: "Señor: es que yo no soy tanto como para llegar a ser hijo tuyo".

Eta itz kidalariak berenez, ots, beraiek bakarrik, beste itz batekin alkartzeko, zentzurik ez dute—ta..., ez dakit berriro zer esan. ¿Zure seme edo alaba bat, bataiatzerakoan, izendatuko al zenuke zuk "Tantocomopara"?

Bai; seguruaiki "aña" edo "ana"k badu -- edo izan du -- beste zentzu bat ere, orrenbeste toki-izenetan agertzen dan ezkerro; baiña zentzu ori guk aspaldi galdua dugu.

Ondorioz, auxe da soilki, esatera auzartzen naizena; naiz guretzat bere zentzua galdurik egon "AÑA", -- Ñaparroa'n "AÑE"--, guk zer izan daitekean ez dakigun itz euskalduna dala, eta, orregaitik, euskalduna zala mutil aren izena ere, naiz larrukian arras trakesturik agertu.

Ta, egiaz, gure larrukiko mutil aren izena AÑI izan ba zan, ¿zer?

Ez duala orregaitik bere euskalduntasunik galtzen, AÑI gaur Gipuzkoa'ko Lizartza'tik Illarratsu'ra bitarteko mendi baten izena bait da. Gipuzkoa'ko apaiz jaunek ezagutuko duten mendia, Gazteiz'ko apaizgaitegiak an izan bait du lerdia edo pifadi aundi bat.

Eta "Añibarro" bezala "añi"z asitako izenik ere bai bait dugu Euskalerrian.

FREDEÑAÑDO.- Larruki au latinez dagoen ezkerro Ferdinando bear luke, baiñan dirudianeaz artua zuan latiniak IX mendean Erromantzerako bidea: "Ferdinando"tik "Fredenando"—zear "Fernando"rako bidea.

Ez da beintzat izen euskalduna.

Ez zan oraindik done—izena ere IX mende artan, izen ortako Donerik zaarrena, Ferdinando di Caizzo, X mendearen bigarren erdia eta XI'aren azkena bitartean bizitu zan gotzaj italiar bat bait da.

Izen ori, "Fredinandus" eran,-- "Comes Fredinandus testis", "Fredinando Kontea lekuko" --, 804'ean agertu zitzaigun aurreneko aldiz, Asturietako II Alfontso erdi-euskaldunak Balpuesta'ko lekaidetxearentzat idatzi zuan larrukian: Aurreneko aldiz, Balpuesta'ko dokumentu-sortan. Eta, bearbada, badaiteke ori izatea España'ko dokumentuetan ere Fernando izenaren aurreneko agerketa. Kukulla'ko larrukietan ez bait dager.

Gero, Ñaparroa'ko printzipe baten izena bezala agertuko zaigu. III Santxo "Ñagusia"ren bigarren semea izan zan Printzipe ura, aitak Euskalerrj zar ari puska zabal eder bat kenduz eta orrela, zuzentasun eta egokitasun ororen aurka, Gaztela'ko Erreiñua sortuz, Erreiñu ortako lenen Errege egin zuan ura bera. On baiño gaitz geiago, askoz geiago egin bait zioten Euskalerrriari -- eta Ñaparroa'ri -- Naparroa'ko erregeek: eta Bizka'i'ri Bizka'i'ko Jaunek.

Danadala, izen ori, -- Fernando -- ez da izen euskalduna. Baiña ez da bisigota ere. Ez dezagun esateke laga "Iruharren Kartularioak", 804'ko Fredinandus ura Fernandus bihurturik eskeintzen digula. Larruki ori askoz geroagoko kopi bat dalako adigarri ziarra,

SOARIO-. Izenkeraz, ots, nominatiboeraz, SOARIUS, baiñan larruki ontako jendea euskalduna zalako, SOARIO izanen zan eskierki gizaseme aren izena; edota, larruki zar auen idazkera oso ziarra ez dalako, izen orren antzeko beste zerbait.

Ez naiz ausartzen bere etimologiarik ematera.

"SO "soro"ren laburpena izan daitekeala esan oi da baiñan ez nago ortaz ziur. Agian, bai, izan daiteke "soro", adibidez "Soarte"n, eta "Soarra:n"en, "Sorarrain" bat bai bait dugu Tolosaldean. Eta, baitare, Baztango "Soalar" izan daiteke "Soralar".

Baiña ez da ain ziarra, Bidani'ko "Soao—Txiki"n eta Lenitz'ko "Soaztegi"n, eta "Soaznabal" abizen giputzean "so" "soro" danik<sup>7</sup>.

Danadala, naiz etimologi zaillekoa izan euskalduna dugu mutil aren izena ere: Soario.

Itz orren azkeneko "O" ori, euskal-atzizki—toki-adierazlea da. "Soari" zer dan ez dakigu. Baiñan itxura, bai, bene—benetan badu euskal—itzura.

GODESTEO.- Auxe bai etimologi gaitzeko itza. Alare itz euskalduna dugu, Erdia-roko "GODEZTIOZ" giza-izena lekuko dugula.

"Godea" edo "Godia" ere abizen euskaldunak ditugu, eta, "Godiamiz" Bizkai'n Gueñes'ko alor baten izena.

¿Ez ote da Euskalduna Godoy abizena bera, naiz abizen ortako politikari españiar ospetsu ura, Manuel de Godoy, euskaldunen adiskide zakarra izan? Kezkagarria bait da itz orrek daramakian "DOI" "DUI" atzizki euskalduna!

Abizen berekoa izan zan Lucila Godoy Alkayaga -- au bai, au gure adiskide zin-ztoa --, "Gabriela Mistral" izenpetu oj zuan Txile'ko olerkarieme bikaiña.

IUSTA-. Enaten duanez, -- zerrendan azkena aipaturik dator-eta --, au zan Eldua-ra andrearen umeetan gazteena. Itxuraz latinezko izena darama, eta, itxura ori egia gertatuko ba'litz, emakumezkoa izango genuke Elduara'ren ume ura.

Bost dira izen ortako eme doneak. Martiriak danak. Oietako bat, Frantzi'ko Lyonigoa; bestea Sebilla'koa. Azkeneko au, Bisigoten donetegian agertzen dana.

¿Zeiñen omenez ote zeraman izen ori Aiala'ko neskatil arek?

¿Bisigoten donetegikoaren omenez? Bisigotak, bai noski, askoz bertago zeuzkan Asturietan eta Leon'en. Lurralde aietako Agintari ta Jaun Aundi guztiak bisigotak ziralako, Bisigoten Liturgia bait zan an Elizak jarraitzen zuana.

Baiñan, leenago ere, naiz Bisigotak oso—oso bertakoa izan, Bisigoten kulturak ez zuan Euskaldunengan batere—batere eraginmenik izan Araba'ren erdian agertu—berria za:gun Aldaieta'ko illobi oparoak zalantzarako biderik utzi gabe erakutsi digunez.

Illobi ortan ez da ba ezer bisigotarik agertu!. An, —izkillu, tresnedi, eta erdergaillu—, oro izan da frankiarra, eta ezer ez b:jsigota, naiz orduan ere, VI eta VII mendeetan, arabarrek bisigotak frankiarrak baiño askoz bertago eguki.

Gaiñera, neskatil aren se: senideen eta amaren izenak kristauak ez ziran—da, badut nik kezka, neskatil ber-beraren izena ere, IUSTA, done—izena ez ote zan!

Era berean gogoratu bearra dala derizkiot, Sebilla'ko neskatxa Done aren izena, Bisigoten Donetegian Justa ez baiña JUSTINA dala: "Sanctae Justina et Rufina". Orrela agertzen da beintzat idazki zar askotan.

<sup>7</sup> "Soao-Txiki" Bidani'ko erri-kirolari bat izan zan. Izen ori bere baserriarenetik artua izan zuan. Larruki ontako Soario'k ere bere "baserriaren" izena zeraman, seguruaski.

¿Gure larrukiko neskaren izena, IUSTA, done—izena ez baiña euskal—jatorrizko izena ba'da, nola izan daiteke sortua?

Ez dakit, baiñan "IUS" aurreizkiz asten diran izenak aurki dezazkegu gaurrengungo Euskeran ere: "Yus" bera adibidez, eta "Yus de Leatxe" Ñaparroa'n bertan; eta euskal-abizenak dira "Yusa", "Yusaga" "Yusarri" eta abar. "IUS" etimologiarik ez dut eza-gutzen.

Lopez Mendizabal'entzat "IUS", "IUR"tik ornen datorrelako, gazteleraz "yezgo" esaten zaion belarra ornen da. Ez dakit nondik atera zuan ori nere erritar eta adiskide ospetsu arek, baiñan egia ba'litz "IUS"—"TA" "lugar de yezgos" izango litzake, "lusta"ren antz aundiko itza dugu "IRUSTA", gaztelerazko "trebol". Ez litzake neskatil batentzat izen traketsa.

Zortzi oiek dira Elduara ta bere zapi seme alaben izenak. Ez dira izen kristauak, agian lusta izan ezik. Ez dira bisigotak ere. Ez dirudite gizakumeen izenak ere. Base-riren izenak dirudite. ¿Aziak ote ziran 864'garren urterako Elduara Andrearen seme—alabak, eta, orregaitik amaren etxetik—at bizi ote ziran, eta aietako bakoitzaren baserriak zuan izena ematen ote digu larrukiak? Ez litzake euskaldunen oituraren aurkako emaitza izango.

Gero Elduara'k eta bere umeek Tudela'ko elizari damaizkioten doaiak aipatzen dizkigu larrukiak. Ona umeen doaiak:

"Aran ortan (Ayala'ko Tudela'koan) gure aitak irabazi zuan guztia, bordak (edifitia), etxeak (dommicia), zugaizti zitu—emailleak (pommares), mastiak (uineas), liburuak, soñnekoak, soroak (terras sationauiles) eta errota bat"<sup>8</sup>.

Amak berriz, "Ego, Eldoara, omnem mean fincam in ipso loco": "leku ortako nere nekazaritza guzia".

Dakusgunez, benetan eskuzabalak ziran antziñako gure adiskide zar aiek. Esku—zabalak eta biotz—zabalak, emaitza oparo ori dana, txiroen eta beartsuen onerako egin ornen zuten bá: beren garaieko jende gaixo aiek "nun onartuak izan (tolerationem) ta nun geratu (commodationem) eta non egoki jana aurki aal zezaten".

Ondorean, Erdiaroan oiturazkoa zan bezala, larruki ortan agintzen zanaren aurka zerbait egin zezakean ororentzat Jainkoari gaitzespen guztiak eskatzen dizkiote, mundu ontarako eta besterako.

Mundu ontarako: "ori egin dezakeanari, irakurri bezaiote gure testamentu au (iste testamentus ei legatur) eta geldi bedi kukildurik (discedat turpiter), lotsaturik (confusus) eta arbuaturik (abominatus).

Aro gogor artan maitasuna (txiroenganako) eta gorrotorik gorriena (gaizkilleenganako) nola biotz bat beraren barruan bat egiñik bizi zitezkean erakusteko, osorik emango dut, latiñez aurrena eta euskeraz gero, sendi santu arek Yosukristo'ri eta Andramari'ri eskatzen ziotena:

"Dominus noster Ihesus Christus qui superuos resistit, una cum patrona nostra Sancta Maria cuius testamentun est factum in suo onore, iudicet illut ("illum" bear luke) per omnia; et extraneus ("extraneatus sit", "Bigarren Kartulario"an) a corpus et sanguinem Domini nostri Ihesu Christi, et ardens uiuens, infernus eum recipiat, et ibi set (sit) crutiatus eius in perpetuum, et oratio eius fiet in peccatum, et fiant dies illius pauci, et cum Iuda traditorem participium habeat. et hic testamentum firmis permaneat".

Oartu zera noski esaldi ortan beste mundu ontatik beste mundura, eta andik onera eta berriro emendik ara, eta ostera azkenean andik onera, ibilli zaigula lumalaria. Orre-

---

<sup>8</sup> Nik "soroak" euskeratu dedan "terras sationauiles" orrek "Iur ereingarriak", ots, "ereiteko egokiak diranak", esan nai du. Esaldi orri erantsita datorren beste onek ematen dit kezka: "quantas in ispo



ga;tk, esaldi osoaren mamia errezago ulertua izan dedin, bereizirik aurkeztuko ditut nik munduz—munduketa nasi ortako jauziak:

"Gizakume arroa gaitzesten duan Yosukristo gure Jaunak, eta idazti onen bidez omendu nai izan dugun Andramari gure zaindaria, gogor epaitu bezate (orrelakorik egin dezakeana) eta Yosukristo gure Jaunaren gorputz—odoletatik urrundua izan bedi;

"Bijoa, bizirik, sutan, inpernuetara, eta an izan bedi betirako oiñaze gorritan;

"Pekatu biurtu bedi bere otoitza, eta urriak izan bitez mundu ontako bere egunak;

"Eta Judas saltzaillearen zorian partaide izan bedi;

"Ta..., j;ntinko iraun baza! gure testamentu onek".

Azkenik, larrukiak, Lekuko edo testiguen izenak damaizkigu:

Teodemirus  
Obeccus  
Felix

Viliulfus  
Albura  
Hanni

Lusidius  
Rodericus  
Hordonius  
Saturninus

\*

Larrukiak damaizk;gun zazpi izen oietatik, bi bakarrik ziran orduan done—izena: FELIX. Izen zaarra, izen ortako lenen Donea, mendekoa bait da.

Izen ortako iru Done aurkitzen dira Bisigoten Donetegian, Baiñan ez dut uste larruki ontan agertzen zaigun Felix apaizak bere izena Donetegi orri zor zionik.

Iru Felix oietatik bat, IV mendean martiri erailla, GEROÑA'koa zalako euskalduna izan bait zitekean, Gerona'ko elizbarrutiaren erdia gutxienez, euskalduna bait zan mende artan, eta, agian, baita Uri bereko erri—jendea ere.

Gaiñera, Gerona'ko Felix orren martiriotza, Kalagurri'ko Prudentzio'k IV mende aren azken—aldera abestu zualako, uste izatekoa bait da Felix arenganako eraspena, Bisigotak onera urbiltzerako euskaldunen artean zabaldurik zegoala.

Gauza berdiña esan bear dugu bigarren Felis martiriari-buruz, -- irugarrena Sebilla'koa bait zan--.

Bigarren ori, Prudentzio berak abestua izateaz gaiñera, martini illa ere, Salduba'n jlla izan zan ezkerro, naitanaiez izan bear zuan euskaldunentzat anitz ezaguna. Salduba'k orduan, oraindik Oskan gotzairik ez zalako, euskalduna bait zuan bere elizbarrutiaren puska galanta.

Iru oietaz gaiñera, izan zan izen ortako beste Done bat ere, eta au, bai, bene-benetan euskalduna: Bilibio'ko Donefelice, Araba'ren albo—albokoa, are geiago Araba ber—beraren barruan, Araba Okamendietaraiño luzatzen bait zan orduan, egoaldera. Sortaldera berriz, Ibero ibaiaz aruntz, gaur Nájerilla esaten zaion ibaiean zeukan bere muga.

Arrazoizko gauza da beraz, lekukoaren artean agertu zaigun Felis apaiz arek bere izena Ibero ibaiaren ibarreko Bilibio mendian garbai edo penitentzi-gintzan bizia igaro zuan Donefelize'ren oroiz artuko zuala ustę izatea.

---

valle pater noster obtinuet, quem egecit de scaldio". Itzez-itzez, euskeraz: "Aran orlan gure aitak lortu zituan guztiak, larre agorretik atera zituanak". Dakusazunez, orrela euskeraturik, esaldi orrek zentzu bat besterik ez du: "de scaldio" -- gazteleraz "de tierra yerma" --, atera zuala aitak, irabazi zuan guztia. Ez, da, ordea, ori, larrukian idatzirik dagoan bezala, latinez duan zentzua. Esaldi orrek euskeraz eman diogun zentzua izateko, lumalariak "quem" ez baiña "quas" idatzi bear bait zuan. Baiñan "quem" idatzi zualako, agian bera oartzeke, ARAN GUZTIA zala, esan zigun, larre gorri bihurturik zegoana. Ez da ordea sinistekoa, Tutela artako aran guztia, eta are geiago Ayala'ko Aran zabal guztia "tierra yerma" bihurturik egon zitekeanik. Dana dala, 804'ko larruki artan ere Jon gotzaia eliz-ausi-ugariren-birr-eraile agertu bait zitzaigun, guzti orrek Araba'ko sortaldean zerbait negargarri gertatu zala pentsaerazten digu: Zer zan gertatu zana, eta gertatu zana Arabitarren edo Asturietako Bisigoten erasoaren erruz gertatu zan, noizbait aztertu bearko dugu.

ALBURA-. "Albura" latinezko izena da: euskeraz, "Zuritasuna". Albura, ordea, ez da beñiere ez gizonezko ez emakumezko baten izen bezala erabili. Beste bide batek asi bearko gera ba izen orren azalpenaren billa.

Ebaki dezagun bi pusketan: AL-BURA.

Aurreneko pus karen "L" ori errez izan daiteke "R" bat, gure larrukietan euskerazko "R" a oso maiz agertzen bait da "L" bihurturik.

Ori gertatu zaio, Araba'ko iparrean Legutiano'ren lurretako ibaitxo baten izenari. ARBIÑA zan ibaitxo orren egiazko izena. Ala zegoan idatzirik Elorrio'ko etxe batean ikusi aal izan nuan, Lenitz eta Aramaiona arteko mugak ziurtzearen idatzia izan zan 1406'ko larruki batean.

Gero, XVIII mendeko baratari edo notario batek Arbina'ren "r" ori, lerrotxo txiki batez goruntza luzatuz, "I" bihurtu zuan: ALBIÑA.

Baiñan XVIII mendeko baratari onen tinta askoz aulagoa gertatu zalako, argi-argi nabaritzen zala jarraitu zuan leenagoko "R" ark.

¿Zergaitik egin ote zuan trakeskeri zikin ori? Erdalduna zan baratari arentzat ARBIÑA zentzurik gabeko itz arrotza zalako. Ez, ala, ordea, ALBIÑA. Albina, erderaz, gure euskerazko "zurizta" bait da.

1.406'ko dokumentu ori, adiskide bati eman nion asko ez dala, Aramaiona'ko edestia idazteko asmotan zebilela jakin nuanean. Bere Edesti-liburu ortan, ordea, dokumentu ori, XVII mendean aldaturik gelditu zan bezala agertu digu nere adiskide orrek: Arbina'ren "r" guztiak "I" bihurturik.

Orrela ari dira gure lurraldeko euskal-izenak beren nortasuna poliki-poliki galtzen.

ARABA'K ere orrela galdu zuan bere egiazko izena, ALABA bihurturik gelditzeko.

Miñ eman zidan Aramaiona'ko edestiaz ari dan liburu ortan larruki zarreko "R" ura "L" bihurturik ikusteak. Gure erriko izen guztiak ¿merezi bait dute eraspén geiago! ¿Eraspenik aundiena merezi dute! Tamalez orain, Arantzazu-osteko Euskaltzaindi gaixo onen eragiñez, batere lotsarik gabe erarik txoroenean ukatzen zaien eraspéna!

Aztertzen ari geran larrukiko apaiz aren izena ARBURA ba'zan, ez da gure toponimia "AR" eta ARREz, asten diran izenez antzu: Arbulo, (¿au ere Arburu ote?) erri bat da gure Araba'n. Berdin, Armenti. Eta Euskalerrri guzia-zear Arbitzu, Arrati, Arribe, Arronitz, Arrupe eta ainbat eta ainbat orrelako.

"AR" zer dan, edonork daki. ¿Zer ote da BURA? ¿"BURU"ren aldakuntza? Baleike, ain naastuak eta trakestuak izan diran dokumentuotan usteon asko ipintzerik ez bait dago.

Alare esan dezagun "BURA" ori Araba'ko mendi, gaztelu eta bizileku zar-zar baten izenean ere agertzen zaigula: mendi, gaztelu eta bizitoki zaar oien BURADOÑ izenean.

Gaiñera, dirudianez, -- orrela egiten dute gaur ere bizkaitar askok eta --, uste izateko daitekean gauza da Bizkaieraz mintzatzen ziran Aialako autrigoitarkume aiek ere "A" atzizkia "E" bihurtuko zutela, eta, orregaitik, BURA ori baleike BURE izatea ere: "Bure". Ainzuzen "Bure-ba" izenean ikusten dugun "E" ber-berorrekin.

Erne, ordea; eme! Kukulla'ko 1.062'ko larruki batean (Azaroak 11) Bureba'ren izena Burueba, BURUE-BA, agertzen bait zaigu!

Urruti joan gera ALBURA'ren etimologi-billa; ekintza zailla ta neketsua bait da etimologijntza. ¿Zer ondorio atera dugun? Izen ori, ALBURA, berez Al-bura, Ar-bura, Ar-buru, edo, Ar-burua edo Ar-burue, izan, ezpairik gabe dugula izen euskalduna.

OBECO. Sarri agertzen da izen au Balpuesta'ko larrukietan; eta, sarri, baitare OBIECO bezala, eta bi aldiz OUECO bezala.

Aurreneko aldiz, Jon Balpuesta'ko gotzaiaren 804'ko dokumentu artan agertu zitzaigun izen au: "Obeco in hoc pacto + fezi": "Ñi Obeco ontan bat nator eta gurute au dagit". Alare izen orren etimologiarik ez dakit, baiñan euskal-usa; bikaiña du.

Bai, badakit "KO" atzizkia zer dan. "OBE" zer dan ez dakit, izen onen etimologia igartzeko "OÑA" adjetibu edo izenondokoaren kidalarikera edo "konparatibua" dala esateak ez bait du balio.

UBE Ñaparroa'ko Araitz'en auzo bat da. Egia da "O"k eta "U"k errez artzen dutela bataak bestearen tokia, eta orrela "Obeko" "Ube'ko" (gaztelera "de Ube") izan dezakegula, baiñan orrekin ez dugu ezer askorik aurreratzen, "UBE" ere zer izan daj-tekean jakin gabe aurkitzen bait gera.

Obeko ¿Eneko'ren aldakuntza ote da? Edota ¿Oneko'rena?

¿Eneko-Eneka eta Oneko-Oneka gizon—emakumeen euskal—izenak ote dira?

Eneko beintzat, baj, izen zarra dugu. Krist'aurretiko 90'garren urtean eusko—gudari—zaldunak saritzeko idatzi zan Askoli'ko brontze edo burnjorian agertzen bait da.

Ez naiz oroitzen non, baiñan EÑEKA ere nonbait aurkitu dedala idurjitzen zait emazte baten jzena bezala.

Oneko'rik ez dut ezagutzen, baiñan, bai, Oneka bat baiño geiago. Iru, beintzat, jzen aundiko printzesak, Ñaparroa'ko erregeen alabak.

Auetako bat, OÑEKA Fortuñorena, Abd el—Allah Españi'ko Musulmanen Emir'ekin ezkondu zan 863'an, Emir ori, artean bere aita —guk aipatu dugun I Muhammad ura—bizi zalako, oraindik Printzipe zala. 18 urte zituan Printzes euskaldunak ezkondu zanean. "Dar" (Perla) izendatu zuten musulmanek, arras polita zalako. Muhammed, aitonaren izena ipiñi zioten seme bat eman zion senarrari. Ogej urtez musulmanen Erregiña izan da gero, Euskalerrira itzuli zan alargun, eta, emen, 30 urteko emakume ederra, Aznar Santxorena Larraun'go Jaunarekin ezkondu zan. Iru ume jzan zituan. Iruen artean, bat, izen aundiko Erregiña izanen zan Toda, Gartzia Santxorena Ñaparroa'ko Erregearen ama.

—Bestea, IX mendekoa au ere, ONEKA Gartziaarena: "Dominam Onnecam filiam Garsies Ennecones Aristam" (Codes de Meya), Aznar Galindorena Aragoi'ko Kontearrekin ezkondua.

—Eta irugarrena, Oneka Santxorena, au X mendekoa, Asturi ta Leon'go IV Alfonso'rekin ezkondu zana.

Printzesak utzita, itzuli gaitezen larrukiko gure bereter arengana. Ñik, bere izena, larrukian agertzen zaigun bezala, OBEKO izan zala esango nuke. "OBE"z asten diran izenak ugari aurki bait daitezke edozein iztegitan: Obe-kuri (obe—ko-uri) adibidez; eta Obekola (obe—ko—ola), Obe—aga, Obecoz (obe—ko—tz), etabar.

OBE bera ere Tolosa'ko abizena da.

HANÑI.- Len ere mintzatu gera izen ortaz, Aldoara Andreamen ume batek izen ori zeramalako. Oraingoan, ordea, "presbitero" edo bereter baten, ots, apaiz baten, izena da. Baiñan larruki ontatik-at ere ikusi izan dut izen orj. Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxeko larruki batean, 1062'ko azaroaren 10'eko larruki batean ainzuzen.

Iru aldiz, datorkigu larruki ortan izen ori eta "H"z iruetan. Bein abizena bezala: "Sarracino HANÑIZ testis, eta izen eta abizen bezala beste bein: HANÑI HANÑIZ testis.

Bai, kezkatzen nau "H" irukoitz orren agerketa setatsu orrek. Baiñan "Irugarren Larrukiak", dirudianez, Hanni'ri edo Hanne'ri "H" a kenduz, eta "A" atzizkia erantsiz, AÑÑEA emani digulako, "Hanni'ren "H" ojek danak, erdjaroan oiturazkoa zutenez lumalarien jostaketa dirala esango nuke bejn berrjro.

VILLIULFUS presbiter, LUSIDIUS abba, eta TEODEMIRUS presbiter oietaz zer esanik ez dut. Ez dira izen euskaldunak. Orrek, ordea, ez du esan nai izen ortako iru bereter aiek euskaldunak ez diranik, nere neronen izena ere, jatorriz VINCEÑS, ez bait da Euskalduna.

Alare, Lusidio izen euskalduna izan daiteke, atzizi euskalduna bait da Areitio'k, Baranbio'k eta beste euskal—izen askok bezala daramakia "10 atzizki euskalduna. Teodemiro, done-izena ba daiteke, naiz V mendekoa izan zala esan oi dan Orleans—ondoko lekaide kondaira-sasis betetako ura zer mendekan bizitu zan jakin ez. Beste Teodemiro bat martiri il ornen zan 851'an Sebilla musulmanean. 851 uri, ordea, 864'tik urbillegi dago, gure larrukiko teodemiro'k bere izena ari zor izateko.

Villiulfus bai, izan daiteke izen bisigota, batez ere, "W"z idazten ba'dugu, germaniar—doiñu aundia artuko bait digu: Williulfus.

RODERICUS eta HORDOÑIUS, "Irugarren Larrukian" ORDOÑIUS, Errege Bisigoten izenak d̄ira. Ura Toledo'ko Bisigoten azkeneko erregearena. Euskaldunen aurka borrokan ari zan Musulmanak Españ̄i'ra sartu ziranean.

Beste au Asturietako Bisigotena.

Bere Erregea ba'lu bezala aipatzen du Eldoara arabatarrak: "regnante principe Domno Hordonio, anno regni eius X1111, Heldoara, in hoc testamento quen fieri uolui manu mea rouorauī": "Honorio pr̄intzipea errege dala, bere erregetzaren amalaugarren urtean, nik Heldoara'k ("H"kin oraingoan) egin nai izan dedan idazki au nere eskuz izenpetzen dut".

Urrengo urtean ere, 865'ko larruki batek Ordoño erregea aipatuko digu: "Regnante Domino Ordonio rex in Asturias": "Ordonio ("H"rik gabe berriro) Errege Jaunak Asturietan agintzen jarraitzen duala"...

¿Zer esan nai ote du Asturietako Errege Bisigota birraipatze orrek? ¿Noizbait Asturietako Errege Bisigotek Araba'ra sartu zirala? Bai? Noiz? Noraiño? Noiz arte? Gaurkoz, erantzun—eske utziko ditugu galde kilikagarri oiek.

Larruki ontan aipatzen dan Ordoño, izen ortako lenen erregea da. Bere burua nor etsitzen zuan Errege Bisigota orok bezala, eraso z̄ion onek ere gure Euskalerruari.

¿Ainzuzen Ordoño Aiala'n sarturik zeukatelako idatzi ote zuan Eldoara andreak bere larrukian "regnante printzipe Hordonio" ori?

Danadala ez zitzaion 1 Ordoño orri bi urteko erregetza besterik peitzen; andik urte batera il bait zan, 866'ean. Ta, bera illondorean, ¿nolakoak izan ote ziran Arabarren eta Asturietako Bisigoten arteko arremanak? Badut, bere garaiean guzti ortaz itzegiteko, asmo sendoa.

Larruki ontan azaldu zaigun Rodericus orrek ere sortu dit zerbaiten jakin miña, larruki ontan, "rogitus a filiis nostris", ots, "gure semeek eskatuta" izenpetu zuala bait diosku.

"Seme" aiek ¿noren seme ote ziran? ¿Bere eta Eldoara'ren semeak? Ori dirudi, beste iñorekingo semeek larruki onen izenpeketan zergaitik sarturik ez bait zuten. Orixe adierazi nai duala dirudi "seme" aiek aipatzerakoan darabilkian "gure" itzak.

¿"Baiñan Roderiko eta Eldoara senar-emazte ba'ziran zergaitik ez zuan Eldoara'k larrukiaren asieran, bere semeekin batera bere senarra ere aipatu? ¿Senar—emazte lez bata bestearengandik bereizirik ote zeuden?

Bai noski; ori bait d̄josku Roderiko'k izenpeketa bere naimenez egin ez zuala jakitera emateko aukeratu zuan "rogitatus" itzak. "Rogitare", euskeraz "arrenka ta arrenka eskatzea" da, gazteleraz "rogar con insistencia". Beraz, semeek indar egiñez eska-

tu ziotelako izenpetu zuan Roderiko'k. Ots, semeek eskatu ziotelako. Ez, bere borondatez. Ezta Eldoara'k eskatu ziolako ere.

Maite zuten, noski, semeek aita. ¿Edota amak egindako emaitzen aurka aitak gero auzirik sor ez zezan beartu ote zuten au, izenpeketa ura egiñez, amaren emaitzak bein betirako onartzera?

Roderiko'k gaiñera, batez ere "in Dei nomine", ots, soilki "Jainkoaren izenean" aritu zala ere badiosku, artarako semeen eskari larria naikoa izan ez ba'lu bezala: "In Dei nomine ego Rodericus, rogitus a fjlis nostris, hic testis".

DOÑE—IZEÑAK-. Ona emen Larruki onek aurkezten dizkigun Done guztiak:

—MARIA: lau aldiz: "Domina et patrona nostra Sancta Maria" (gure andre ta zaindan dan Miren Donea; "huic sacro altario Sancte Marie" (Miren Donearen aldare sagaratu oni"); "hanc testamentum Sancte Marie" (Miren Deunarentzako emaitza au"); "cum patrona nostra Sancta Maria" (Miren gure zaindari Donearekin).

—SAÑCTI JOAÑÑI et SAÑCTI IACOBI. Gure larruki zarretan Yon aipatzen danean, ia beti Yon batailaria izan oi da. Ez ordea, oraingo ontan, bi anaiak, Yon (ebangelaria) ta Santiago "Boanerges" edo "Ostoskumeak" alkaturik bait datozkigu9.

Esan dezagun erdiaroz ia beti "H"z agertzen zaigula Yon Donearen izena aro artako larrukietan: JOHAÑNIS. Ez ordea larruki ontan: JOAÑÑIS.

—SAÑCTI SATURNIÑI. Toki-izen bezala dator. Eraspen aundia izan zion Euskalerrri zarrak Saturnino Doneari. Zergaitik? Ill mendean gure Asaben ebangelizatzaile izan zalako. Itxuraz oso fidagarri dirudian kondairak, ebangelizaketa-lanean Iruña'raioño etorri zitzaigula djo. Kondaira orren alde dago edestia bera. Saturnino Tolosa akitanjarreko gotzaia zan. Ill mende artan Tolosatik onuntz beste gotzairik ez zan. Gure Euskalerrri au guzia aurkitzen zan Saturnino'ren ardurapean. Ez da, beraz, arritzekoa Euskalerrri etorri izatea.

Orregaitik eman zioten euskaldunek, oso done gutxi-gutxiri emadako oorezko izengoitia, YOÑDOÑI, maitasunaren eragiñez izena bera goxatuz: YOÑDOÑIXATORDI.

Ori ere kondairaren egiazkotasunaren alde dago.

—SAÑCTI EMILIAÑI-. Biak dira Bisigoten Donetegian aurki dezazkegunak. Orrek ordea ez du deus aundirik esan nai, Julen izeneko Doneak, kristaudi osoa—zear, larogeit'amalau bai dira. Oietako bat euskalduna, V mendean Leskar bearnotarreko Gotzaia, eta bestea bisigota, VII mendean Toledo'ko Gotzaia, guk idazle bezala Euskalerrri zarreko kristautasunaz idatzitako liburuotan maiz erabilli duguna.

Larruki ontan Donemillian'ekin batera datorkigun Done Julian ori Toledo'ko gotzaia ez baiña Leskar'ko beste gotzai ura dugula, batere bildurrik gabe jokatu daiteke. Lendabizi, Donemillian bezala euskalduna zalako, eta, gero, asko ez dala agertu zaizkigun illobitegi aundiek erakutsi digutenez, Araba'ko euskaldunen arremanak askoz geiago akitarianrekjn izan zirala badakigulako. Esanik utzi dugun bezala, illobi aietan ez bait zaigu bisogota daitekeanik ezer agertu.

Donemillian'ez mintzatu bearrak ez dugu. Anitz ezaguna bait da VI mendean bizitu zan Errioxa euskalduneko artzai ura

Ñere irakurle guztiek ere badakite noski Kukulla'n jaio zala, gaztetan artzai izan

---

9 JON "J" otsez ez agoskatzekotan, nik beti YON idatziko dut emendik aurrera. Berdin YOSU eta beste orrelakoak. I-O-N edo I-O-S-U ez bait du Euskalerrri inork esaten, Y-O-N eta Y-O-S-U baizik. Aregeiako: iru abotsizki edo bokal alkaturik gertatzen diranean, giputzok beintzat azkeneko bien artean "y" ttipi mottel bat sartzen dugu. Ez dugu M-A-I-A edo A-RR-A-I-A esaten, M-A-I-y-A eta A-RR-A-I-y-A baizik. Erokeririk mardulenaren adigarri dalarik, sikologi edo sikiatrilarien arazoa da noski Arantzazu-osteko Euskaltzaidi errukarri onek "Y"ri dion gorroto gorria.

zala, garbai–gintzarako mendira baztatu zala, izen aundiko bakarti billakatu zala, Tarazona'ko gotzaiak apaiz sagaratuta Kukulla'ko parroko egin zuala, ta txiroen artean banatuz, parroko aberastasunak, ia danak, ezabatu zituala, ekintza ortaz larrituta inguruko apaizek gotzaiaren aurrean salatu zutela, gotzaiak, apaiz salatari aiek bezain larri, parrokitik jaurti zuala, Millian'ek berriro bere erriaren inguruko mendietara jo zuala, an, leiza batean bizitu zala, eta azkenean eun urte betetzera iritxi zanean leiza artan bertan il zala ikaslez inguratutik.

Badakite baitare leiza aren inguruan bere ikasle aiek lekaidetxe bat sortu zutela, eta edestia–zear, santutasunaren eta jakintasunaren kabi, arras izen aundikoa izan zaigula Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxe ori.

Donemilliani–buruz zerbait ez jakitekotan, au izan daiteke nere irakurleek ez daki-tena: oso txistulari yayoa izan zala, eta ibilli bear izan zituan bide guztietan -- sarritan mixiolari ere ibilli bait zan -- txistua besapean zuala ibilli zala beti, "sonando il suo flauto, strumento che diventerá (billakatuko dana) il suo attributo iconografico e che sempre portava con sé" (Bibliotheca Sanctorum")

"YAYO" itza aipatu dut, Donemillian txistulari yayoa izan zala esatean.

Bá, Arantzazu–osteko Euskaltzaindiak "elbatua" donetzeko Bergara'n egin zuan Batzar Nagusi artan, ainzuzen Euskaltzaindi ortako "Bei Sagaratua" zan, Mitxelena'tar Koldo Jaunak, Euskaltzaindi orrek berezkoa duan "H"aganako gorrotoak eraginda, "yayo" itza polit orren "Y" oien orde, danok, "DD" erabillj bear genuala esatera ausartu zitzaigun, eta onela idatzi zuan olbeltzean itz ori danon aurrean: DDADDODDADDOA. ¡Alukeri aundiagorik?

Irakurle: Kukulla'ko Lekaidetxe zarrera oraindik iñoiz joan ez ba'zera, zoaz toki sagaratu artara al dezun bezain laiter, zoaz pozik, zoaz ¡txaropentsu, Euskaltasunaren kabirik garrantzitsuenetako batera urbilduko zera–ta.

LATIEGlitar BIXEÑTE

# AGARRE BASERRIA

Erramun etxejoaunak Pedro maiorazgoari:

—Ekarri kortatik txerria eta zuek gantxoa eta kutxilloa.

Ana etxejoandreak eta Mariñasi, Pedro'ren emazteak, atara dabe maaitxoa eta odola jasotzeko ontzia.

Txerria maai-ondora gerturatu danean, Joan eta Xanti, Pedro'ren anaiek, biak ekin diote lanean: batek gantxoa sartun eztarritik eta besteak atzeko bi ankeetatik oratu eta maigañera jaso. Pedro'k zaman barrena kutxilloa, eta odol-jarioa Mariñasi'k ontzian artun. Odola bero dagoela oraindik tipula egosi askorekin naastu, koipe zatitxoak erantsi belar usaindunekin batera eta, asko egositako, arroz apur bat leuntasuna emoteko. Esteetan sartun eta pertzara. A zer odoloste gozoak txerri-bodarako; baita auzoan zabaltzeko be.

Lastargiaz erre dabe txerriaren azala, uliak kentzeko. Goñtik beera ebagi eta zati-tu. Bizkar-ezurra osorik atara, zatiak egin auzoan banatzeko. Bardin artzeetako urda; atalak be. Solomo apurtxo bat, belarria, eta odolostea, apaizari; beste orren-beste barbero zaarrari. Bi urdai-azpikoak, pernilak, eta urdai aundjak gatzetarako. Orrek danok kenduta be, badauko txerriak na;ko zer jan famili guztientzat... San Martin eguna da-ta, egin dezagun, alai eta zoriontsu, txerri-boda ederra. Txorixoak be ez dozak txarrak atara!

Egun osoan lana ugari sukalde-aldean.

Txerrikiak etxean dagoz, makallau ugari ekarri dabe geure neskok Bilbo'tik (Mari-kontxi, Axun eta Begoña'k); an dagoz neskame, eta an dagozenez, nagusiari kapoiak eta errenta eramatera joanak dira; ordez nagusiak, makallaua eta piper-potoa. Danentzako geiegi ez zan eta eurak erosi dabe beste makallau aundi bat.

Egun argitsuenean lañoa sartzan dan lez, gaur be Agarre'n, lañoarenak Andres, bigarren semeak, egin dau. Argiña danez, beure altxorra beteten asita dago eta baserria gutxieisten be bai. Gurasoen samiña!

—Makallaua jan! Obe zenduteke, Bilbo'ra bialdutako kapoiak zeurok jatea, mira-be mixerable orrek, eta ez nagusiari eraman. Arek badau gauza oberik, langostak, cavjarrak eta abar. lñuxente artaldea zarie zuek...

—Andres astotxo arro bat besterik ez da. Ori al da Gabonetan etxera bialtzeko mezua! Lau txanpon egin dauzalako, or dabil ollarra baño tenteago, burua gora eskapatzeko arriskuan... "Oloa buruan eta ibilli munduan" esaera zaara, berentzako egiña dirudi.

—Izan dezagun festa pakean, Pedro. Jainko eta gizakienganako fedea galdutako gizarajo bat besterik ez da. Egin dezagun otoitz bere alde.

Aita zaarrak, burutik txapela kendu, eta Gure Aita errespeto aundienaz esaten dau. Ondoren maai-gañean dagoen ogi aundia artun eta labanagaz muturra kendu, musu emon eta zamaupuan gorde:

—Ogi-mutur au ez da sekulan galtzen eta ekaitz-aldietan itxasoara bota bear da, urak barezeko.

Sukaldearen epelak eraman dau, tximiñian gora, izarretara, Andres'en mezu mingotza, eta ekin diote guztiek etxejo-andre biek prestatutako aparria, urdaillean ereisten.

Apalondoan, sabelak lasaitu diranean, danok kantari:

"Gabon gabian oitura degu  
guztiok aparti ona:  
bixigu, legatz, makallau-saltza  
bakoitzak berak alduna..."

Negua zorrotz dator aurten. Elurra eta euriteak ugari; benetan esan liteke "Kandelario / aitzak ura dario". Erramun'en gultzurdiñak alderantziz dabilta: ura dario ezin. (xurj gutxi. Petrikillo sasi-medikua ekarri dabe larrj-aldi onetarako. Tipula-enplastoak gerrirako; axari-buztanen ura edateko... Ez alperrik! Betetzen doa geroz eta geiago.

—Abadeari deituteko ordua elduko zan. Auzokoari esan bearco diozue. (Ana, Erramunen emazteak).

Auzoko Premin joanik da errira Abadearekin egotera. Biar etorriko dala eguerdieguerdiandian eta Jauna ekarriko daua.

Erramun zaarrak, gaua nekez. Il naiago dau; bete bedi, ordea, Jaunaren naia. Alkondara zuria atera dau etxeoandre zaarrak kutxatik. Erramun zai-zai, Jainkoa beregana noiz etorriko.

—Ara, aldapan gora datoz Premjñ eta semeak, farolak eskuetan dabezela. Zuek be kandelak biztu eta eskaillara-mailetan belaunikatu, ataritik asita.

Txiliña atarian... Amen da Jauna. Lagundu diotenak, gelatik urteten dabe, unetxo batean. Erramun'ek bere barrua garbitu nai dau abadearekin:

—Pekataria naz; damutzen dodaz bizitzako okerkeri guztiak.

—Jaunak eman dizula barkamena eta pakea...

Abadeak ateari eragin eta sartu dira gela barrura. Gaxoa ixilik tarte batean, bere Jaunarekin izketan... Abadea, sukaldera...

Gabeko ordu txiketean eman dio Erramun'ek bere biziaren kontu Ajta Jainkoari:

—Pedro, zoaz ganbarara eta iru tella kendu tellatutik, animad bidea errezteko. Jantzi gorpuari ezkontzako jakia eta oiñak lotu. Ondoren erleei eriotzaren berri eman, argizari geiago egin dezaten, sepulturari ipinteko...

—A zer nolako tontokeri pilloa agintzen ari zeran, ama!

—Andres, oiek zuretzat tontokeriak izango dira; baña gure aurrekoen oitura zaarrak dira eta nik bete egingo dodaz.

—Zaarrak eta utsak. Ez atzera begiratu ilustraziñoaren argia Paris'etik dator eta. Gure Fueroen arbola sitsak janda dago, gure oiturak bezala; Espartero'k ondo egin dau arbola ondotik moztean eta euskerari berdin egingo ba'lio, obe, ez bait dau ezertako balio... Eta, adi egon, maiorazgo, baserri onen barrengo soloak neuk be nai dodaz etxegintzarako-ta.

—Bañan, ori ezin deikezuke egjñ, Andres?

—Zeuretzako nai dozuz guztiak, Pedro; bañan etxean eskabide aundia dago gerra ondoren eta nagusiari erosiko deusodaz...

—Gure arbasoen baserria ondoratuko da, lur joko dau...

—Jo dezala; amen maistar triste batzuek besterik ez zarie; beste baten etxean bizi zarie... eta zuek be, Joan eta Xanti, esnatu. Or zabilzate iñorentzako iñoren basoetan ikazkintzan, bañan, etxe onek berak dauz mendi eta baso ederrak; erosi eta beeko errekan tellatua fondo jota dagoen errota-txjki burni-ola biurtu, barkugintzan mogimendua badabil da... Zergaitik izan bear dabez gauza guztiak Pedro'rentzat? Zeuek be badozue eskubide...

Espartero jaunaren lege berriak ematen dizue eskubide au.

—Bañan, orrela jokatuta, ondamendia ekarriko dozue gure etxe gaiñera? (Amak samiñez).

—Ondatuta be, zer? Ez da sekulan guretzako izan, ez eta sekulan izango be. Oba dogu zatika erostea, beti besteentzako lanean ari barik.

Gau-illa negargarria. Goizeko gozaria ez zan ohea izan:

—|| eta-bazkaria, orixen bai dala etxeo ondamendia. Gorpu-bidea edo anda-bidea, zoro batzuen asmakizuna. Bide erosogoak ba'daude, zergaitik anda-bidetik ibilli?



—Ba nik illeta-bazkaria egingo dot gure aurrekoen antzera, gorpu-bidetik joango gara... Oraingoz amen neuk agintzen dot.

—Damutuko az. Biar bertan joango nauk nagusiarengana. Baserriak ez deuto etekiñik emoten eta neure dirutxu beroak poz-pozik artuko dauz...

Eta, beste barik alde egin dau baserritik, deabruak artuta lez. Ama zaarra gogo biziz geratu da, eriotzaren zai... Pedro'ri biotz gabeko zuloak irten deuzto barruan... Joan eta Xanti amesetan noiz baso-mendiak erosi eta beko errota-txikian olatxo bat antolatu... Mariñasi, etxeakoandre gazteak, ez dau ikusten nora-biderik Agarre'tik kanpo... Iru neskatillek erabaki dabe euren etorkizuna Uri nagusian izango dala aurrerantz betirako...

Au dogu amaiaren asiera.

...

Gure etxe zaarreko ganbaran biztza lekua osatu dabe. Menditj; etorritako famili bat bizi da bertan. Eskallera-buruan, leioa eta gelan, oge bat. Bertan ikusten dodaz bi mutiko eta neskatu bat, irurak billutsik. Beste gela batean gurasoak. Badabe sukaldetxo bat be.

Gaur, domeka eguna, ez dira mezatara joan.

Gizonak goiz irten dau. Baratza bat dauko lurrera eroritako azak eta patata batzuek. Laister geratuko da bate bage: indiano bat agertu da errian "bolivar" askorekin eta muño aretan egin nai dau bere jauregia. Leku aproposa: erriaren gaingañean, egoaldera aurpegia eta baratzak inguruan. Izena be Agarre ipiñiko ei deuto eta argiña bera be, Agarre'ko semea ei da...

Pedro gizarajoa, ez etxe eta ez baratz. Etxeko-jaun baten ogibidea, peontzan billatu bear... Besteen etxeak jasotzeko zangak eriki bear... Zerua erori zaio burugañera:

—Orretarako emon neutsezan gure kortako ganaduak? Jeneral karlistek txartelak emon bai; baña, neuk non kobratuko dadaz neure ganaduen balioak? Gerra galdu dogu; geure Legea galdu dogu; geure oiturak galdu doguz; etxea galdu dogu; euskera galdu dogu; euskal-izatea galdu dogu; geu galdu gara... Espartero nagusi eta aren lagunek berarekin batera... Noiz arte? Erdaldunez bete da Euskalerrria; geure Legeen jabe eurok egin dira eta Lege berriak geuri lepotik ezarri... Euskalerrri doakabe, Erdalerrri biurtu zaitue eta zurekin batera galdu dogu geure izatea... Noiz arte, Jauna? Geure euskal-odol garbia zikindu dau Andres'ek, moro erdaldun baten alabeagaz ezkondata... Erramun zaarrak begiak jasoko ba'litu? Geureak egin dau!

Etsipena Pedro jatorraren biotzean. Tunnel beltzetik sekulan urtengo al dau Euskalerrriak? Etorkizun illuna, beltza. Etsaiek eratutako legeetara makurtu bearke dau burua betirako. Askatasunak ematen dauan arrokeria nun galdu da euskal mendietan? Leize-zuloetan gordeta dagozen armak atara bearke dira barrero... Pedro'ren pentsakizunak beste askoren be, badira. Ez danena, tamalez. Euskaldun asko egokitu da kanpotik etorritako lege berrietara: maai-azpian dagoz andik eroritako azurren zai. Aragia be botatzen deute serbitzari onak izan ezkeroz. Agintaritzza apurrak emon be bai, kateak luzatuz.

Etorkizuna kristalezko bola barruan ikusteko, aztia jzan bear. Eta, gure Pedro ez da azti. Millaka urte dituen erria bein betirako galdu ote da?

# BIZKAIERIA

Bizkaitarrok bildur barik esan geinke gure aurretikoak euskera eder bat itzi euskuela ondoren lez. Ori diño gure Azkue'k eta ori esan dabe beste euskalzale askok. bizkaierearen aditza oso errazoibidekoa ta ederra dala, bizkaierearen iztegia oso aberatsa eta oraindiño iztegieta larregi batu-bakoa dala, Bizkai'ko abostegja aberatsa dala, Bizkai'ko euskerearen doiñuak, bat baiño geiago dira, ederrak dirala...

Eta euskera idatzjira sartzen ba'gara, idazle oso onak aurkituko doguz gure elertian, onak eta asko. Eta gure euskerearen bultzagille nagusi lez aurrean daukaguz beti Azkue ta Sabin Arana.

Oraindiño gaur, esango dogun lez jazoak jazo, euskaldunen artean erdiak gara, gitxi gorabera, Bizkai'ko euskerea egiten dogunak.

## Antxiñatean

Aldi klasikuetako idazleak jakiña, ez ekien euskeraz itz egiten, gitxiago bizkaiera zer dan, baiña eurak emoten dauskuezan jakingarri urriak bizkaierearentzat argitasun aundia damoskue. Eurak diño Deba eta Nerbion ibaien artean Bardulok bizi dirala eta ara non ortxe lurralde orretan egiten dan berba, antxiñatik, bizkaiera. Geiago oraindiño Nerbjon ibaitik sartalde egoalderantz egiten zan euskerea be Bizkaiera zan, toki-izenak adierazten dauskuen lez. Biezkaerea, olan dala, asi Laredo'n eta Miranda'ra arte, asi Bilbao'n eta Mena ibarrera arte egiten zan. Arlo zabala benetan. Eta ori Barru-barruko bizkaiera, itxasotik Bilbao'ra bitartean egiten dana aitzu barik.

Eta ortxe izan zan Bizkai'ko euskerea gastelearen sortzaille. Gipuzkoa'koa be bai Errijoja-aldean: Donemiliane'ko esaldiak gipuzkoeraz edo naparreraz, "dut"en euskaldiz dagoz eta Gonzalo Berzeo'tarrak be itz batzuk gipuzkoeraz dakaz, esaterako "beldur". Baiña Laredo'n asi eta Miranda'ra arte Bizkaiera egiten zan eta or inguruan sortu zan geienbat gaztelerea. Zer artu eban eukeratik? Labur-labur esateko, bost bokal ondo zeatzak. Laterak zazpi eukazan eta frantzerak gejago daukaz. Gaiñera esaldiak parasintaxi-bidez osotzea. Orrelan osotzen dauz gaztelera zarrak, "y"ren bidez esaldiak batuz: "Mio Cid salió de de San Pedro de Cardena y atravesó toda Castilla y llegó a Valencia y..." Geroago berjaiotzan artu eban gaztelereak itz-alkartze "iposintaktokoa". "Mio Cid, habiendo salido de San Pedro de Cardena y después de recorrer la estepa castelana..." Baiña asieran euskerearen ikutua eukan: Guk "eta" erabilten dogun antzera "y" erabilliz.

## Alboak galtzen

Begiratu dagigun orain gure bizkaiereak, beste euskeren antzera eta ez gitxiago, zelako erasoak izan dauzan. Gure ume izan zan gaztelereak indar aundia artu eban eta bere amaren biziari eraso aundiak egin eutsozan.

Lenengo Laredo'tik asi eta Ugao'ra bitartean bizi ziran autrigoiak, euren eus-

kerea arin galdu eben, gaztelerearen jndarrak eraginda. Nerbion ibaitik ezkerre-rantz gaur iñon ez da egiten euskerarik, Ugao'n zerbait. Ugao'ko seme dan Larrea'ar Luis M.<sup>a</sup>k gotzaiñak bein auxe esan eustan: bera autrigoia zala eta etxean beti egin dauala euskeraz berba. Ondo-ondo ez dau egiten, baiña daki-na etxetik daki, berak be zerbait ikasita.

Barakaldo'n, au be autrogoi-erria, euskerea galdu dala ez dira berreun urte.

## **Barruan galtzen**

Autrigoiak bizkaieria galtzea gutzat asko galtzea izan ba'zan be, sartu gaitze-zan Barduloen artera, Bizkai barrura, Nerbion eta Deba ibaien bitarte zabal onetara. Zer ikusten dogu?

Beste eraso aundi batzuk: Gure Bilbao uri aundi biurtu jaku eta bai España'gaz eta bai Europa osoagaz eta beste lurralde batzukaz artu-emon aundiak izan ditu salerosketarako eta Bilbao'tarrak beti izan dabe gaztelera itz egitearen arroke-ria. Ez da, orregaitiño, ain aintxiñakoa euskerea Bilbao'n galdua izatea. Amasei-garren gizaldikoa dan Markos Obregon pikaro-giroko elebarrian irakurri dot Mar-kos Bilbao'ko zazpi kaleetara sartu zala Laredo'tik etorrela eta kale oneitan neskatjllak berak ulertu ezin eban izakuntzaz berba egiten ebela. Gero Bilbao'tik urte-keran errotak egozan lekuan gorabera batzuk jazo jakozan. Errotak dagozen toki ori Bolueta izan bear, bolu errotea da-ta.

Barduloen lurralde onetan bizkaiereak beste galtze bat be ba-dauko, Deba ibaiaren eskumaldian dagozen erriena: Gatzaga, Arrasate, Eskoriatza, Oñate, Bergara, Eibar eta abar. Zer jasoten da erri oneitan? Oiñarriz bizkaeria dauke, adjtza eta atzizkiak, baiña gaur Gipuzkoa'ko lurraldeagaz batuta dagozen ezke-ro, bai eleizaz eta bai erriz, erri oneik gerogo ta geiago artzen dabe gipuzkoeria. Baiña, tira, oneik azkenean euskeraz itz egiten jarratzen dabe.

## **Agintariak**

Bizkai'ko euskereari eraso aundiak eta kalte aundia egin dautso gizaldien joa-nean jauntxuen eta agintarien jokabideak.

Indar aundia euki eben gure artean, millagarren urte inguruan asi eta milla ta zortzireungarren urtera arte aide nagusiak. Oneik euken erria menpean, oiñazta-rrak izan naiz ganboatarrak izan, guztiak eukezan artu-emon estuak Gaztela'gaz eta ango jauntxuakaz eta gure erri zeeari dirua kentzen eutsoen zergen bidez, gudak ugari egin eta odola ixuri-azo eta erriko euskerearen orde zerderea sartu.

Eta Bizkai'ko aide nagusien gaiñetik eta sarritan nagusi lez Bizkai'ko Jauna agertzen da. Bizkai'ko Jaunak, bai bertokoa zanean eta bai Naparroa'ko edo Leon'go eta Gaztela'ko erregea zanean, beti egin dautso euskereari eraso. Au argiago agertuko da Bizkai'ko Batzar Nagusietan.

Eta zer esan, Gernika'n geienbat, egiten ziran Batzar Nagusiai buruz? Zori txarrez antzeko bidea ikusi daikegu: Eraso.

Batzar Nagusietan Bizkai'ko Jaunak, XV gizaldia ezker, Gaztela'ko Erregea zan Bizkai'ko jauna, eta onek ipinten eban Gernika'ko Batzarretan bere ordezkoa zan korrextj dorea. Onek legez beti Bizkai'tik kanpokoa izan bear eban. Ibai-ur-ibai-tik arantzakoa. Errez ikusi daiteke zelako indarra eukiko eban Gernika'ko batzarretan olako jaun batek gizaldjen luzeran. Samintasunez esan bear da Gernika'ko batzarretan gaztelera itz egiten zala eta gaztelera itz egiten eta idazten ez ekia-

na, batzarretan kanpo gerratzen zala. Ainbat erri dagoz Bizkaia'n euren ordezkaria Gernika'ko Batzarretik kanpoan ikusi ebenak, gazteleraz ez ekialako, bi aita-tzearren Arrieta eta Errigoiti aitatuko dodaz.

## **Eskolak**

Agintarien arloan jarraituz, II Isabel erregiñeak, Bizkai'ko Lege Zarra zin eginda gero, Bizkai'ko eskoletako irakasleak España'ko eskalafoira sartzeko agindua emon eban. Laster izan genduzan gure erri ta auzoetan irakasle erdeldunak ume euskalduntzat. Auxe da erbestekoak entzuten dauskuenean ezin ulertu izaten daben gauzea. Baiña egi aundia da: Neu joan nintzan eskolara erderaz itz bat ez nekiala eta eskolan sekula ez dot berba bat euskeraz egin. Alan eta guzti be aurrera egin dogu, urten dogu zelakoak edo alakoak.

Ondo kontuan artu bei irakurleak zelako eraso egin dautsoen Bizkai'ko euskereari, geure diruagaz maixuak ordaintzen genduzala, geure aurka jokutzen.

## **Etorkiak**

Joan dan gizaldian meatzak izan ziran arazo. Euskaldun gitxi sartzen zan lurpera lanera, lurgaiñean artzen ebazan zituakaz pozik bizi zalako, baiña kanpotik etorri ziran meatz-gizonak eta jakiña, barrero be eurakaz ekarri euskuen erdere. Gero laba aundiak sortu ziran eta erdeldun geiago etorri jakuzan. Ez zan ezer egiten etorkien artean erri-zaletasuna sortzeko eta euskerea sartzeko. Olakorik pentsau be ez!

Etorkien arazo au mingorrage biurtu zan Franco'ren aldi. Beste gobernatzaile batzuren artean, Genaro Riestra aitatu bear da.

Baiña aldi orretan egoan joko zikiña agertzeko jazoera bat edestuko dot, orduko izparringiagaz ziurtatu leikena.

Franco bera etorri zan bein Bilbao'ko Erakustazokara eta toki onetatik Enekuri-gaiñean txabola asko eta asko ikusi ebazan. Zurtz eginda, bere ingurukoai itaundu eutsen (au 1955n. urte jnguruan izango zan):

– An mendi-gaiñean ikusten dana zer da?

– Areik etorkien etxeak dira. España'ko erkietatik etorri dira eta ez dauke etxerik ez lanik eta ortxe egin dabez euren txabolak.

Andik egun bi edo irura izparringian agertu zan agindua: lñor ez daitela etorri Bizkai'ra bizilekua ta lan-ituna euki barik. Eta laster asi ziran Otxarkoaga'ko etxeak egiten eta ara eroan ebezan Enekuri'ko txaboletan bizi ziranak.

Riestra'k alegin aundia egin eban kanpoko jentea ekarri eta Bizkai'ko euskerea ta izakerea galazoteko.

## **Euskera batua ta bizkaierrea**

Bizkai'ko euskereari egin jakon beste eraso bat euskera baruarena da.

Batua egiteko uste izan zeitekean euskalki guztietan artuko zala zerbait. Izan be ori litzake batua. Baiña gu orretan be zoritxarrekoak izan gara. Ezer be ez dau artu batuak gure euskeratik. Gaiñera batek baiño geiago'k esan eban, eta Mikel Zarate'ri be olako zerbait entzun neutsan, euskereak bizirik aterateko beso bat galdu bear ba'dau... Eta besoa Bizkai'ko euskerea da, eta Zubero'koa be bai.

Eta ondoren lez, or daukagu batu baragarri ori nagusi lez ikastoletan, eskole-tan, erdi-maillan, ikastetxe Nagusian eta danean. Eta Bizkai'ko euskaldunak eurena itzi eta batua erabilten. Eta ikasle oneikaz gurasoak arrituta: Oneik euske-ra ona egiten debe! Guk ez, guk euskera txarra egiten dogu!

Antzera jazoten da izparringietan, aldizkarietan, liburuetan, telebistan eta danean. Baztertu egin gajte!

## **Bizkai'ko Euskerearen alde**

Aspaldiko urteetan Bizkai'ko euskerearen aldeko talde batuk sortzen dira. Bi aġtatuko doguz batez be: Labayru eta Mendebalde:

Labayru'gaz batera ainbat lan egin dot eta ez daukat damurik. Bizkai'ko eus-kerearen alde dago, baiña baturantza...! eta atxeak erabilliaz. Atxeak ez daukala garrantzirik diño e eta orrelan da. Nik ez dot iñoz erabilten eta garrantzirik ez daukala diñoenak ez leukee erabġlli bear, baiña...

Mendebalde oraintsuago sortua da eta indarra artzen doala dirudi. Alfonso Iri-goien zan irasleetariko bat. Onek bizkaiera maite eban baiña idatzi batuz. Deus-tu'ko Ikastetxe Nagusian Bizkaierearen aldeko batzar baten ori aurpegira bota neutsan eta bere erantzuna au izan zan: –Nik erran dut, zuk ulertu duzu!

Gaiñera, jokabide oneitan dabiltzanak zerbait idazten dabenean batuz idazten dabe. Ori da bizkaiera jndartzeko erea? Beste idazle asko eta askori salakuntza bardiña egiten dautset: Zergaitik ez dozue bizkaieraz idazten? Eta atxe barik obeto?

Lan aundia baita Zornotza-Euba'ko Lauaxeta ikastolearena Mungia'n nagon ezkeru, ez dot aitatu barik itzi bearko Mungia Euskaldunduz taldea. Lan aundia egiten dabe eta aldizkarġ bat atera be bai. Euren elburua, mungiarak geienak euskaldunak izanik, errien euskerea geienez entzutea da. Ekin dagigun orretar-ko!

Gaurko giro au amaitzeko, erakunde bi aitatu bear dodaz: Oso-osoan bizkaie-rearen alde dagoan Euskerazaintza Erri-Akademia. Erakunde onek galtzeko arris-kuan ikusten dau bizkaiera eta alegin aundia egiten dau olakorik jazo ez daiten, naizta Euskalerrri osorako erakundea izanik, lan asko beste euskalki batzuk artu-ta egin.

Eta Euskerazaintzagandik urrean dagon Bilbao'ko Euskerazaleak aitatu bear. Ba-dira ogei ta amar urte baiño geiago erakunde onek Bilbao eta Bizkai'ko eus-kerearen alde lan egiten dauala: Ikasturtea, Zer aldizkaria, euskal-astea, ipuin-sariketa, eguneroko orritxua daukan egutegia, liburuak eta abar. Emen egiten diran agitalpen guztiak dira bizkaieraz eta atxe barik.

## **Amaitzeko**

Orra or labur eta zeaztasun geiego barik Bizkaierak izan dauzan eraso en edestia. Ainbeste etsai eta arerio izan arren. Bizkaia'n oraindiño euskeraz egiten da eta euskaldunik erdiak gara bizkaieraz egiten dogunak. Benetan, ez da gauza erreza erri bat iltea! Jarraitu daigun geure euskerea egiten eta idazten! Ikasi dai-gun etsaiak eta arerioak salatzen, beti abegi onez! Goazen aurrera!

OLAZAR'tar MARTIN'ek

# INTXAUR-ONDOAK ETA INTXAUR-JOLASAK

Urte gutxi dira, Agorraren ogei ingurua zan; aurzaroko lagun batekin nijoala, ta bide ertzean, intxaur-ondo mardul batekin, topo egin genuen.

Eta adarretatik txintxilik zeuzkan ale mardulak ikustean; ez bat eta ez bi, nun esaten didan: "Ale oietako batzuekin, *kriskean* egingo genikik".

Orixe egin bear genikek, -erantzun nion-, esku illunekin azaltzean, etxean ase-  
rrea jarri; mutikotan maixua aserretzen zitzaigun bezela. Oraindik eltzake zeudek,  
eta, txurgaltzen, beraz, zaillak".

Eta, "itzak izbidea"; intxaur arboletatik asi, ta berritu ginduzen, jolas egiteko,  
aleak apaindu eziñik, illuntzen ginduzen eskuak; eskola maixuaren aserre biziak;  
bai eta, jolasten, pizten ziran tekalak.

Asi nadin, bada, gure gaztezaroko zuaitz bikain aietzaz zerbait esaten,  
AGAUNTZA errekan zaiñak ezatu, mardul eta tantai aziak ituen, arbola erraldoi  
aiek denak. Eta ibai ertz eta erri-lurrean aldatuak zeudenak.

Erri-lurrean, arbolak aldetazea, *zillegi* zuten auzo-etxeak, eta *ondazillegi* izena  
artzen zuten aldaketa auek. Eta aldatzeko lana artzen zuana, zan euren jabe; ta  
berak biltzen zituan, euren fruituak, eta emaitzak. Eta, iñoiz zuaitz oiek lurrera-  
tzean, egurraren jabe ere, bera zan.

Intxaur ondoaz gaiñera, pago, lizar, gaztain, aritz, urki, astigar, eta arbola mota  
asko, ziran ondazillegietan aldatuak. Eta auetan bereiztasun bat egiten zuen  
erriak: urteroko petxa, intxaur eta gaztain-ondoak bakarrik ordaintzen zuten. Eta  
ordaintze onen zergatia, zan, urtero fruitua ematen zutelako.

Gogoratzen naizanez, AGAUNTZA ibai-ertzean, eundik gora ziren intxaur-  
ondoak, eta oietan asko, tantai eta adar-buru zabalekoak; eta batzuek bai, euren  
gerria inguratzeko, gizon biren besarteak eskatzen zituztenak.

ONDAZILLEGI baten lekuko edo testigu garbia, jaiotetxe aurrean nuen;  
ITTURRALDE deitzen zaion erri-lurrean. Neurritz berdiñak ez ba ziran ere, ama-  
zazpi itxaur-ondo ezagutu nituen.

Auzoko lau etxe ziran euren jabeak; lau intxaur eta lizar lerden bi, ziran etxe  
batenak; beste batenak, bost ziran; eta onek birenak, eta beste arek, sei intxaur-  
ondoren aleak biltzen ziztuzten.

Eta ara tamala! Gaur Itturaldean; aietatik bat ere ez duzu zutik ikusiko; aurre-  
tiko ezaugarri bezela. Ta emen gertatua, ber-bera, ikusiko duzu, AGAUNTZA ibai  
ertzean. Eta; antziñako amandre tantai aietako, "bat esan eta batiere"; kupiturik  
etziotek barkatu, bizirik jarrai zezan.

Zeñen esker-txarra, azaldu duen gizonak: "*Emalle eder, izan ziren arbaso  
pakezale agurgarri aiekin*". (ZUAITZ'ETZANA-Xabier de Lizardi).

Eta azterrenik ere gelditu ez dedin, erro edo zaiñak ere eramanak dituzte;  
intxaur-zurak beroietan ornen du ta, lorar; k apiñena.

Eta gizonen esker-gaixtoa, ezagutu ondoren, ordea, asi nadin, zugaitz oietatik  
jolasteko jaso oi ginduzen, ale aietaz zerbait esaten.

(gali edo frutuei, ortzak erasteko, eldu edo umotu arte itxoin eziña, mutikoen  
betiko pekatua izango da, noski. Keixak bezela aranak; sagar nola madari; ta bai  
intxaur eta gaztaiñak ere. Ta mikatzak gertatu bazitzaigun ere; eltzake zeudela  
asten giñan aora eramaten.

Asi nadin, bada, intxaur-zuaitzek ekartzen dituzten, eta gure jolas-gai ziren intxaur-ale aiezaz, zerbaiten berri ematen.

Eta, eskolume giñala, intxaur-aleekin jolas egiteko, alakoxe lañeza ematen genion elkarri; jñoiz bai mamia esnetan zegoela ere, bildu oi giñuzen, adarrei irmo erantsita egon-arren.

Pekatu onek, ordea, ba-zuen, izkutatu eziñeko oben-neke edo penitentzia eta zan, atea *txurgaldu* eziñik, eskuetan uzten zigun illun edo tintea.

Atea eltzake dagoen bitartean, iñutu ta azitzen lagunduaz, *sokaan* edo zokotenak inguratzen du. Baiña ain ezarrita egoten da, *txurgalari*, au garbi jartzea, neketsu gertatzen da, Ta lan au eskuakin egin bearrekoa nola dan, sokaanaren yodo edo tñnteak, illundu ta beltz-gorritu egiten ditu.

Beraz. sokaana, ongi ezarrita egoten da, arbola eltzen dan arte, naiz eta eltzen denean, eta bere egitekoa bete, sokaan ori, igartzean beztu, ta *moko-txabalduaz*, barruan amoltsu iñutu duen ale txuria, iñongo lanik gabe, jaulkitzen da zuaitzetik.

Norbaitek galdetuko dñt, eldu danean orren errax jaulkitzen bada atea, zergatik artzen genuen orrenbeste lan, aiekin jolasteko? Ara, bejn eltzen zñranean, aga luze batzuekin egotziaz; aleak zearo biltzen zituztelako.

Eta ondoren jakiña, erreka ur-bizian ongi garbitu; burusi gañean ongi zabalduaz, eguzkitan igartu; ta azkenik kutxan sarralla-pean gordetzen ziralako. Ta ordutik, agur, gure intxaur atea eta jolasak. Jolas-gairik gabe jolas egitea eziñezko zan.

Eta gure kaltegarri, intxaur atea elduko ez elduko, zeuden tarta artantxe, eskola garaia asten zan, eta tinta illunez estaliak ibiltzen ginduzen eskuak. Etxekoak etzuten aintzakotzat artzen, zergaitik zan, zekitelako; Maixu jauna, ordea, aserre-miñean jartzen genuen, esku illunak ikustean.

Etzait aaztu, ez aaztuko ere, egun batez eskolan gertatua. Ordurako motiko kaxkartua nintzan. Maixua DON QUIJOTE ljburu aundia eskuetan zuala, berak esan eta guk idatzi ari giñan. Eta ez bat eta ez bi liburua itxi zuan.

Eta non esaten digun: Quiero ver la limpieza de esas manos". Asi que de piés y en fila. Lerroan jarri giñan denok eskuak txalbaldata. Eta non asten dan, taiu edo erregra aundiakin, konpittak partizen. Eta lerroan iñor ez giñan gelditu, gutxi edo geiago, zigorrik artu gabe.

Eta zigorra astintzen zuen bitartean, onela zion: "No os avergonzais de presentaros ante vuestro maestro, con manos llenas de mugre".

Jokabide onek, gaur parre-gurea ematen badit ere; eskolara azalduko bagiñan, eskuak zuritu eziñik, naiko buru-austeak sortzen zizkigun. Eta maixuaren arrera onengatik, onela genion: "Onek ez dik nunbait intxaurrik ezagutu".

Eta "Or zegoen lañoa", maixuari nork sartzen zion buruan; gure eskuak garai artan aiña ur, urte guzian etzutela ikusten. Eta illunak ba-zeuden ere, orduan zeudela iñoiz baño garbiago.

Eta aurtzaroko intxarur-jolasak, zenbat oroipen ez didate berritzen; eta zenbait adiskide on, etzazkit gogora azaltzen; batzuk, euren biziaren erdian joanak; guda madarikatu artan izkutatuak.

Jarrai dezadan, ordea, nere gaiarekin. Eta aurretik gogoratu ditudan intxaur-ondo aiek, ekartzen zituzten aleak; denak intxaur-ale izango ziren, baña alderdi bikaña ba-zegoen, ale batzuetatik besteetara, nola neurrian, alaxe txurgal edo oskolean; eta nola ez barruan gordetzen zuten mamian.

Aleen neurriz, *moskatel* aunditik asi-ta; *poxpolin* biribil txikien artean zeuden, *moko-motzak*, ondoaren antzeko mokoa zutenak; bestatzuk berriz, ANDRE-MARI intxaurrak bezela, moko-luze ta ederrak.

Mamia gordetzen duen *zurgal*, *oskol* edo *txurgala-guk* onela deitzen genion, zur edo egurraren irmotasuna duen intxaur-oskolari. Eta mintzo auek adierazten didate, gure EUSKERAK iñoiz izan duala, gaur daukan añaiko asmatze-doaia, deitura eder auek sumatzeko.

Eta txurgal edo oskola, etzan denetan berdña; ta bazan alde ederra, *moskatelaren* oskol lodi bezin lakarretik; austen xamur zan, ANDRE-MARI-ren txugal leun eta berdiñera. Oskol gogorra zutenei *zekenak* deitzen genien; eta bazan bat *moko-soilla*, mokoan barrengo mintza ageria zuana.

Txurgal meena zutenak, gordetzen zuten mamirik mardul eta goxoena. Ta ezbairik gabe, ANDRE-MARI intxaurrak zuten mami bete ta atsegiña. Gaur egun KALIPORNIATIK ekarriak direla-ta, saltzen diran ale garbi ta eder oiek; nere oroi-pena oso oker ez badago, ANDRE-MARI aleen irudi osoa dute.

Eta beste luzagarririk gabe, asi nadin, intxaur ale oiekin, egiten ginduzen jolas-moduak adierazten. Eta jolas-lagun batzuek, ale oiek eskuratzeko zuten griña biziak, joku itzultzen zituenak.

Arrezkero joanak, urte asko badira ere, iru jolas modu ziren; intxaur-alea eskuan, egiten ginduztenak, ara: *ARRAZA*, *PLOTTEA* ta *KRISKEA*.

*ARRAZA* deitzen zitzazion jolasean, nai ainbat lagunek jolas zezaketen, nai aña alekin jolastuaz. Lau-bospat lagun bagiñan, ale pare bana jarriko ginduzen bakoitzak, eta bi izan ezker, iru edo launa ale.

Jolasean asterako, ziri batekin edo, marra zuzen bat egiten zan lurrean, *ARRAZA*. Ta onen gañean, ipjntzen ziran, jokurako aleak, elkarri jkuituaz eta zerrenda osoan.

Eta lenengo, ta jolasa asterako, *punttua* egiten zan, aurrena nork jaurti erabakitze, zerrendako ale oien aurka. Lau-bospat metro urrutiratu, eta ale oiek ateratzeko erabiliko genduen; eta arraitik gertuen usten zuenak, jaurtiko zuen lenengo, arraitik al zuen geiena aterazoko asmoakin.

Eta *punttua* *egiten* zan neurrian jarraituko zuten, ale denak *arraitik* atera arte. Zerrendako ale aietzaz jabetzeko, arraitik kanpo utzi bear ziren.

Jolasketa onek bazuen bereiztasun bat; lerroan zeudenak ateratzeko erabiltzen zan ale aundia. Eta ortarako, alerik aundi ta pixuena ibiltzen zan; jotzen zituen bultzadan, arraitik alerik geina ateratzoko.

Lan ortarako, ale aundi ta pixuak inguratzeak ere ematen zizkigun lanak; *moskatel* zuaitzak, an-emen, oso urri bait-ziren.

*PLOTTEA*, deitzen genion jolasa ere jokalaria ta jokuan jartzen ziren aleetan, Arraiaren antzeko zan.

Jolas ortarako, *plotte-txuloa* prestatu bear zan. Txulo au lurrean egiten zan, eta orma baten ondoan; eta neurria antusin erdi baten ingurukoa; eta txuloaren eriza, arrai batek mugatzen zuen.

Jolas onetan ere, jokuan jartzen ziren aleekin pillo bat egiten zan, Bostpat metro ingurutik, ale bana jaurtitzen zan txulo ingurura; ta aleak nola inguratu ziren, ura izango zan *punttua*, au da, nork noiz jaurti.

*Punttua* irabazi zuenak, esku-txolkonean artuko zituen, josateko aleak, eta lau bat metro urrutitik jaurtiko zituen plottera, ta au inguratzen zuen arraiaz barrendik gelditu zirenak, beretzat zituen; eta batak bestearen atzetik, ale denak txuloan sartu arte, jarraituko zuen jolas-aldiak.

Galtza sakelak, intxaur-alez nola urri ibiltzen ziran, jolaskera auek etziran oso gogokoak. Pultsu edo tiñu onekoak; jolas-lagunen aleak nondik eskuratuko, zibiltzanak ziran auek; eta *intxaur-biltzalle* izenakin ezagutuak.



Jolasetan gogokoen zitzaiguna, ta lagun artean obeto ikusia, KRISKEA zan. Eta au lagun biren arteko leia zan, eta aldiko ale batekin egiten zana. Alegia, batek bestearen atea nola eskuratuko. Jolas au neurritz ongi erandua zan; naiz eta, jolastun maltzurak, naiko tekelak jarri.

Edozein leku zelaiean, egin zitekean *kriskean*. Gaur aña beribil etzanta; sarritan bide zabalean, egin oi genduen. Eskolatik etxerakoan eta patxara guzian ibili. Ama zai eukiko ba-genduan ere, zerbait egjñerazteko.

"Ik bota zan aurreneko", eta bietan edozeiñek, bialiko zuen atea urrutira, bigarrenak, joera berean baño oraindik urrutirago botako zuen. Bigarren jaurti-aldia, aurreko alea jotzeko asmoakin jaurtiko zun; baño salduta gelditu etzedin, bultzada aundia emango zion alari.

Baña beti ezin bada urrutitik ibilli, ta aleak gerturazten asten zirenean, izaten zuen jolas onek bere pirpira edo emozioa.

Eta iñoiz, jolas-aldja motxa gertatzen zan; bata baño bestea oituago zalako, edo tiñu ohea zualako; nola ta maltzurrago izanaz, bere atea gelditu zan lekutik, oinkada bat edo bi aurreratu zalako; iñoren alead joko zion eta elkar topatzean *krisik* soiñu piña ateratzen zutela.

Eta onela, abidurjan jaurti zan alearen txurgal edo oskolak, bestearekin topo egitean, ateratzen duten soiñu alaiagatik, *KRISKE* izena, jarriko zioten, iñolaz ere.

Ale batekin bestea jotzez gaiñera, jolas onek bazuen beste bukaera bat; eta jolas-laguna nor zenuen, sarritan eztabaidagarri gertatzen zana.

Eta azkena jaurti zan atea, bestearen albotik, "aizea emanez", joko ez joko joan ondoren, oso gertuan gelditzen bazan, eta eskua zabaldu, ta beatz lodi ta txikierraren muturrekin, insten bazinuzen; eskubide zenuen, bestearen aleaz jabetzeko.

Batzuetan, ordea, keska sortzen zan, gerturatu-arren, beatzakin ez ote zituen irjtxiko; ta orduan *moko-luzatzea* oiu egin bear zuen; baldin eta aurre artuaz, lagunak *a no moko-luzatzea* esaten ez bazuen.

*Moko-luzatze* onek ere bere lakio edo tranpa bazuen. Beatzakjin iristen ez baziran, aleei bira emon zitzaieken; baiña zeuden tokian eta alboratu gabe. Aleen mokoak, alkarri begira jarri ezker, zerbait gerturazten ziran-ta.

Eskubide zan jokaera au garbi egin ezker, etzuen tekela biderik ematen. Baiña, oiturak agintzen zuen bezela, aleak gelditu ziren lekuan, bira emate orde, maltzurkeriz, beatz bat edo bi, aurreratuko zituen; eta ikuitu kiñada egjñaz, eta lotsak galerazi gabe; sakelan sartuko zizkitzun ateak.

Baña, bira ematean, aleak aurreratu zituen siñalea, lurreko autsean uzten zuten; eta ori ikustean, aserreturik, lagunari erasoko ziozun: "I tranposo aundi bat besterik ez aiz. Aleak aurreratu dituan seiñale garbiagorik ez zuen utziko; itxu batek ere, igarriko liokek-eta".

Ale bakarrarekin jolas egin-arren, patu txarreko egunak izaten ziren, edo ta besteak ik baño artezi geiago zuenean; sakelan ituanak galduta, alerik gabe gelditzen intzan; eta onek deitura bat zuen, *motxalduta* gelditzea.

Orduan, galduek eskuratuko ituen asmoakin; ire aleen jabe egin zanari, -eta au jokalaria denen griña izan bear du- *txokote* bat eskatuko *zorretan*.

Jolas-laguna jatorra bazan, iñongo aitzakirik jarri gabe emango ziken eskatua. Bañan, lukurrak, aleak eskuratzeko jolasten zuanak; eskuei sakelan eragin batzuek emanda, alerik kaxkarrenak, luzatuko zizkiken.

Eta onelakoari ere ez ion ixillik utziko: "Ire burua azkartzat eukiko duk; besteak ere ez gaituk ain zozoak; eta auek gorde ta emaidak, neri irabaziak. Ale auek, ire antzeko *zekenak* dituk-eta".

Edo-ta, lukurrak, bat aitzaki bi aitzaki, zorretan eskatu eiona etziken emango, eta irabaziak-irabazi, alde egingo ziken; i bezelako tontoren batenak biltzeko asmoakin. Ez, ordea, aurrez desapio egin gabe: "Badakik, *txokote bi* zor dituala; ta ordaindu d;zkidak, o; duan bezela luzatu gabe".

Gero ordaintzekotan edo zorretan, bai, txokote bat edo bi eskatuko ziñuzen, jolas auetako adu-emanak, ez bait ziran aleka zenbatzen; txokotaka baizik. Eta txokota, lau alek osatzen zuten.

Arrezkero jolas aietaz, gogoratu naizanez nere baitan esan ere, esan izandu det: Kriskea baño, jolasketa oberik ote dan; lagunak ezagutu, ta adiskideak egiteko. Jolasetan ezagutzen bai zenuen: jator, esku-zabala, ta zintzoa nor zen. Bai eta, maltzurra, lukurra; ta beti irabazi-bearrekoa zein zen.

Eta, ara, aurzaroko jolas aietan, adosk;detzat artu ituenak; orain aguretu-arren, adiskide izanez jarraitzen ditek.

Azaldu ditudan oietxek ziren, intxaur-jolasetan erabiltzen ginduzen itz edo mintzaera bereziak. Eta poztuko nintzake, gaurko mutikoak, jolas aiekin jarraitzen dutela jakitera iritxiko banintzake.

Eta intxaurrak gai ditugunez; begira, AITA INOZENTZIO MUNITAK bere liburu "GURE MENDI TA OIANAK", diona: "Garai batean, GUIPUZKOA-n zan arbolarik aundiena: Arriaran-go intxaur-ondoa zan. Eta urtabe batean, amazapi anega ale, bildu zioten".

Auzo atsegin artako gazteak, mutikoak, beraz, izango zuten zerekin jolas egiña.

Juan Dorronsoro Zeberio  
28-XI-1998

# EUSKALERRIKO MERKATARITZA LEGORREZ ETA ITSASOZ

Nere artu-emanetarako dirua eskatzen du merkataritzak; baña gure errian diru gutxi zegoen esku-artean. Merkataritza gauzen trukea zan eta orretarako dirurik bear ere ez. Gure erritik zear igaro zan atzerritar batek zionez, gure artean ez ornen zegoen "sagarra, sagardoa eta esnea" besterik. Kanpotik zetozen gauzen trukerako, zer gendukan Euskalerrian? Araba eta Naparroan ardoa naikoa eta gari geiegirik ez.

Ez ote genduan besterik?

Bai, bagenduzen gauza auek: burnia, barkuak, armak eta artillea.

Gauza oieri esker lasai bizj izan zan gure erria gizaldietan zear. Krjsis garaiak ere izan ziran, bai Burgos'erekin artilleak zirala-ta, estranjeriakin arma eta burnjari buruz, eta barkugintzan Erregearen ordena batek sortutakoak ere bai. Emezortzigarren gizaldian, euskaldunak larru-gorritan gelditu zirala zirudien; ondorengo gizaldiak, ordea, osasuna ekarrj zigun berarekin batera.

Gure lan au emezortzigarren eunkian bukatuko degu. Nundik ibilliko gera? Ebro ibaietik Adur ibaiera.

## Dirua

Sal-erosketak dirua eskatzen du berekin. Diru gutxi egon arren gure artean, zer-edo-zertxo bazegoen; baita diru-eramailleak ere. Pedro Etxezarreta eta Martin Mugerza, 1.331 garren urtean, diru-eramailleak ziran eta mando-zaiñak. "Real Tesorería de Navarra'k Gipuzkoa'ri zor zion dirua ekarri zuten Iruñatik. Salbatierra'ko alkateak baimena ematen die arabatar batzuei Aragoi'ko erreinura joateko, 250 dukatekin, 14 karga olio bertan erostera. Beraz, dirua bazan asko edo gutxi.

Baita diru falsorik ere. Abanto'ko San Mames elizan adu zuten preso 1450'garren urtean Zaballa Martin diru-falso-egillea eta Erriko zubi-azpian "putzuratu" zuten ("empozado"). Urte batzuen ondoren, beste orrenbestegaitjk, urkatu zuten Iruña'n Berdabio'ko baserritar bat.

Fernando "Katolikoak", Nafarroa azpikeriz artu ondoren dirua ebagitzeko aalmena ematen dio Zaragoza eta Burgos'en pareko. Auek ziran sal-erosketarako erabiltzen ziran diru-motak: Florines, libras, ducados viejos, nuevos y milaneses, grosas, torjas, reales navarros y castellanos, y doblas de la banda.

Dirua bazan, baña gutxi bistatzen. Onela zjoten euskaldun baserritarrek: "Idia marabedi batean; baña, nun da marabedia?"

## Trukean

Sal-erosketa geienak trukearen bidez egiten ziran. Ortarako gauzak izaten zuten beure baloarearen neurri bat: errotak, idiak, bestelako abereak, gariak... Bereterretxe'ko jaunak bere kantuan dio eun idi emango dizkiola, bere etsai zan Lerin'go Kondeari. "Zazpi errota berri" emanda ere ez du Ursua'ko baserrira etarri nai Lantain'eren alaba Joana'k. "Jaunarentzako bost bei" izaten zan sarritan kastigua.

Abereek egiten zituzten kalteak ikatz-kargetan neurtzen ziran. Burnia ere erabiltzen zuten diruaren ordezkariak egiteko. Bizkaia'n Bedja'ko Aitxola'ri 560 ikatz-neurriratan ematen zaio errematea. Garitan ordaintzen ziran zenbait alogera. Gure Lege-zaarak zorrotz ematen dio gauza bakoitzari beuren balioa: "Uzta erretzen duanari eriotza zor zaio"... "Bost edo geiago sagar-arbola okerkeriz ebagitzen duanari eriotza zor zaio"...

Aberatsa ez zan diru askoduna, abere askoduna, baizik. Aberetik dator aberatsa. Ez da txiripaz gure euskal kondairaren xeetasunak bei, txerri, mando eta beste aberrez beteta ba'dago: Iza Martin aberatsari bi bei eta sei txerri arrapatu zizkioten; Oñaz Otxoa eskuderoak, bere jauna lagun zuela, Arraras'ko txerriak eraman zituen indarrez... Eta, abar, eta abar.

---

XIV'garren eunkian asarre dabilta gipuzkoarrek nafartarrekin: merkataritza eta abereak daude bitarte orretan. Burruka orren ondorenak sortu ziran aijnbat erri-bildu (Sanguesa, Estella, Gares edo Puente la Reina...) Nafarroa'ko lurraldeetan. Gipuzkoa aldetik ere berdin gertatu zan Erreterri, Tolosa, Ordizia eta Segura'kin. Nafarren erasoetatik gordetzeko sortu ziran erri bildu aiek. Nafarrek, berriz, lapurretan sartzen ziran Oiartzun, Berastegi, Elduaien, Gaztelu'tik. Gipuzkoarrek, berriz, beste orrenbete egiten zuten Amezkoatik, Burundatik.

Lege zaarra burruka onetan tartekoa zan. Onela dio (T. XXIV. Cap. II) Gipuzkoarren Fueroak: "Por quanto en tiempos pasados se acostumbravan hacer muchos rovos, muertes y daños por los Navarros... que cuando pareciere necesario, resistan los de esta Provincia y hagan el daño que pudieren a los Navarros y otros estrangeros que les hiciesen daño".

Bizkaitarrekin artu-eman obeak zeuzkaten giputxek; baña, ez beti. Markiña erria lapurretak eta indarkeriak bizkaitarren aurka giputxek egiten zituztelako, jaso zuten.

### Euskalerrriak eskeintzen zuena trukerako

Sal-erosketak trukearen bidez egiten ba'zizan, Euskalerrriak sagardoa eta esnetik alde, zer zeukan eskeintzeko truke orretan? Ez ogi eta ez ardo. Sagarra, sagardoa eta esnea; besterik ez. Lopez de Haro bizkaitarrai buruz onela dio "Fernan Gonzalez" poemak: "Sagarretan aberats, ardo-ogitan eskas".

Donostia'ko Fueroak arraiñak, ogia, ardoa eta aragia aitatzen ditu; baita baraski, matsondo eta beste muetako arbola geiago ere. Estella'ko Fueroak, berriz, ardi, txerri, mando eta astoak, oillo eta usoak... baso eta oianak. Bizkaiakoak garbi adierazten du beuren eskasia: "por quanto la tierra de Vizcaya es muy montañosa e non siembran ni cojen pan nin han las otras vituallas q. asi puedan mantenerse". Gipuzkoakoak onela dio: "producen los campos todo género de granos para el uso de las gentes, aunque no en la abundancia conveniente".

Nafarroa'ren bizi-moduak nekazari-lanetan zuen bere oiñarria. Ardoa zuen naiko ugari, eta betidanik izan du. Garia, berriz, bear zuanaren erdia bakarrik 1.428'garren urtean. Andik berreun urtera, 1.695'an, idazti batek dionez, ardotik eta garitik ateratzen dute dirua; beste guztiak etxerako dira. Nik ere, Anes'ek orixe agertu nezake Araba'ko Errioxari buruz: dirua ardotik sortzen zutela 1.940'garren urtean; beste nekazariaren emaitzak etxean jaten zituzten, bai garia, bai garagarra, bai olio, bai barazkiak eta baita fruta guztia ere. Dirua eskuetan izateko ardoa saldu bear zan. Elvillar'eri buruz ari naiz, an bertan parroko egon nitzalako.

Araba'ri buruz, berdintsu esan bear. Beraz, ezin esan Euskalerrria'n ez dagoa-  
la ez ardo eta ez garj; Araba eta Nafarroa'n badaude. Benabarra beti izan da  
Nafarroa'ko zati bat, seigarren merindadea: "La Merindad de ultrapuertos". Beste  
Euskadi'ko lur-aldeak (Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Zuberoa) oiek bai sagarra  
zuten nagusi eta esnea.

\*\*\*

Gipuzkoa'n sagarra ugari. Garai batean emendik pasa zan Leon Rosmital jau-  
nak zionez, Hernani'ko baztarretan sagasti ugariak ikusi zituen iñun ez bezela-  
koak; milaka sagarondo ditu edozein baserritarrek.

Eta Bizkai'ko Lege Zarrak onela dio 1.526'ean (Tit. 34.Ley 1): "Hay abundan-  
cia de muchos ganados y cría". Bizkaiak ziona esan zitekean alderdi bakoitzak  
ere Euskalerrri osoan. Nafarroa eta Araba'n ganadu geiena ardia eta auntza zan.  
Beste alderdi guztietan, berriz, ardiak izan arren, beiak eta idiak ziran nagusi, bai  
aragitarako eta bai lanerako. Artillea ere bazan, liñuakin batera eunak egiteko.

Bi itzetan esanda: garia, garagarra, oloa eta artatxikia edonun artzen zuten;  
naiz eta, bear zuten aña, alderdi guztiak izan ez. Oietxez gaiñ bai Nafarro eta  
Araba'n, babak, illarrak, lentejak, añaia jasotzen zuten. Ardoa zeresanikez; baita  
olioa ere. Danetatik zerbait.

### **Feri eta azoka**

Esandako gauza oiek, eta askoz geiago, azokeetan agertuko dira. Erri askoe-  
tan egiten ziran azoka-egunak: Estella'n, 1.164'ko Fuegoak dionez, asteero;  
Urroz eta Monreal'en ere bai; Huarte-Arakil'en 1.461; Segura'n 1.491; Ordizia'n  
1.751. Tolosa'n, berriz, iru egun ziran asteero feridunak...

Baiona'ko feria oso zan apartekoa, berezia eta antxiñakoa. Goierritik ere joa-  
ten ziran ara giputxek. Araba'koak erri auetan egiten ziran: Gazteiz, Puente Larra,  
Berguenda eta Armiñon. Guztiak Miranda de Ebro'ren aurka.

Beste bi ferri arrigarriak ziran, bat Iruña'koa eta bestea, Euskalerrri'tik at, Medi-  
na del Campo'koa. Ara joaten ziran bai Bilbo'tik, bai Gazteiz'tik, baita estranjeria-  
tik ere. Azoka erdaldun onetara euskaldunek eramaten zituzten gauzak auek  
ziran: ardoa, La Rochele eta Normandia'tik ekarritako garjak, oialak, konserbak,  
narruak, Ingalaterra eta Flandes'eko esku-lanak. Aldi batzuetan bale-koipea ere  
bai.

Garrantzi aundjena zuen feria Iruña'koa zan. San Fermiñe'tako azokak 22  
egun irauntzen zuen. Euskalerrri osotik etortzen ziran Iruña'ra merkatariek. An  
agertu ziran 1.541'ean Iparraldeko erri euskaldun auek: Sara, Urtubi, Hasparren,  
Doniane Loitzun eta Ainhua. Lapurdi'ko "Bost Uriak" ere an dira, petxarik gabe,  
Iruñatik jeneroak ateratzeko, beuren eskubideak aitatzen. Gipuzkoa'ko Fuegoak  
ere beste orenbeste egiten du (Tit. 18, Cap. CID: "Que durante la feria de Pam-  
plona no se hagan pagar derechos algunos de Aduana en el Reyno").

Beste alde batetik begiratu ezkeroz, bazkarietatik eta amarrenetatik auxe  
ikusten da: emen ez zala ezeren faltarik. Gipuzkoa'ko erri-arrantzaleetan Felipe  
III'garrenak asterketa bat egitea agindu zuen 1.599'an; emen arrapatzen ziran  
arrañiak auek ziran: legatza, bixigua (auek eskabetxean eraman ere bai man-  
doetan Nafarro eta Castilla'ra), itxas-aingera, tramana, mielgia, atuna, sardiña,  
txitarroa, merua, arraya, itxas-kabra, perloia, langosta eta abakandoa, lupiñak,  
sabordiñak, aingera txikiak (angulak, ote?), amorraiak, izokiak (salmón), lupi-  
ñak, antxoak eta abar. Mutriku, Deba, Donosti eta Ondarrabia'n baleak ere bai  
"do por suerte toca". Kantauri itxasoan, bertan, arrapatzen ziran baleak dira

auk; baña, errietako barku geienak Terranoba'n zebiltzan bale-eizean eta bakallautan.

Falta ziran arraiñak kanpotik ekartzen zituzten danetatik izateko.

### **Mugaz barruko merkataritza**

Euskalerrriak gauza asko ekarri bear izaten zituen kanpotik. Bearkizun ori Lege Zaarrean eta agintarien asmoetan, betiko lelo bat bezela agertzen da. Enrike IV'garrenak onela zion 1462'an: Bizkaiak ogiz, ardoz, olio, aragiz eta beste zenbait gauzez ornitu bearra du. Bizkai'ko Fuegoak dionez bizkaitarrek badute esku-bide ogiz, ardoz eta arraiez bere burua janaritzeko. Orregaitik zortzigarren kapituloan onela dio: Bizkai'ra datozen barku guztiak emen bertan deskarga bearko dute euren kargaren erdia.

Gipuzkoa'ko Fuegoak dio gipuzkoarrek eta lapurtarrek badutela eskubide batetik bestera jeneroak eramateko "como trigo, abena, abas, zenteno, maíz, garbanzos, arbejas, vino, vacallao, grasas, rabas, sal y generalmente todo género de mercaderías". (Tit.19, cap.IV, 9).

Oiñatiarrek Araba'tik ekartzen zuten garia. Arraiña Deba eta Ondarroa'tik zabaltzen zan. Iru "Aduanilla" zeuzkan Gipuzkoa'k eta ona emen aietatik pasatzen ziranak: pipermiña, azukarra, itxas-aingira, balea, sardiña, kanela, klabillo, pikua eta izoki gazitua.

Enrike IV erregeak, estranjieratik Donosti'ra datozen barkuei auxe agintzen die: Donosti'tik ezer eraman nai ba'dute, aurrez ekartzeko gari Donosti'ra. Araba'tik Donosti'ra ogiak eramateko 300 mando bear izan zituzten (1.522.10.6'an).

Nafarroa'k bere uztak eskasak zirenean, garia Bretaiña'tik ekartzen zuen itxaso Doniane Loitzun eta Baiona'ko portura; eta andik Nafarroa'ra legorrez. Arrain eta aragiak ere ekarri bearrezkoak ziran. Bizkaia Araba'rekin konpondu oi zan; Gipuzkoa, berriz, Lapurdirekin, naiz eta espaiñolak frantzitarrekin burrukan ibilli.

Iru alditan gutxienez falta izan zan garia Tolosa'n. Oietako bat 1615'garren urtean gertatu zan, Felipe III eta bere alaba Tolosa'ra etorri zirenean. Jai aietarako, ona zertzuk ekarri zituzten Nafarroa'tik Tolosa'ra: 500 fanega gari-iriña, 600 garagarrena, ardorik onenetakoen 30 karga... Proporzio berean idiak, ardiak, urdaiak, egaztiak, arraiñ freskua, egur-ikatza eta abar.

Araba'k bazuen aspalditik bere artileak Nafarroa'n saltzeko eskubidea; Nafarroa'k bere aldetik Doniane Loitzun eta Baionan'n saltzen zituen bereak; batez ere Erronkari, Salazar eta Aezko ballarakoak, an bizi bai ziren 300.000 ardi eta geiago. Baita ere eramaten zuten aruntz ardoa, erregaliza eta burnia. Burni au Nafarroa bertako oletan aterea, Orreaga eta Benabarre'tik aurrera eramana. Keixak zituzten Baiona'ko burnigilleak 1.295'an Nafarroa'ko iltzeek egiten zien konpetentziagaitik.

Orra or zenbat merkatu-arazo Euskalerrri'ko mugaz barrutik. Ikusi ditzagun orain kanpo aldetik zetozenak.

### **Mugaz-kanpoko merkataritza**

Bizkai'ko Fuegoak bear ziran askatasun guztiak ematen zituen bituallak Frantzia, Ingalaterra eta beste nazioetatik ekartzeko. Berdin dio Gipuzkoa'koak ere. Bazuen onek Fernando "Katolikoa"ren agiri bereizi bat, (1.489.01.26), atzerrieta-ko merkatariei eragozpenik ez jartzeko, gari edo beste janari motekin ba'zetozen gurera. Araba, berriz, Burgos eta Tierra de Campos'etik ornitzen zan; larri-aldietan Zamora'raiño zabalduko zan janari-billa.

Merkatu-gaietan, 1.712'an, kakao, azukarra eta tabakoa dabilta naastean. Oiñatiarrek beuren olio Alkarria, Aragoi eta Andaluzia'tik ekarri oi zuten. Bakailaua eta zeziñetako beste arraiñak Irlanda eta Bretoiña'tik guregana. Itxasoz, geienak beintzat. Bizkai'rako, itxasoz, bai arraiñ eta beste eratako janariak, Bretoiña eta beste Frantzia'ko errietatik; itxasoz aiek ere.

Errege "Katoliko"en garaian Lekeitio eta Bermeo'ra itxasoz ekartzen zituzten ogi, ardo, aragi, gatza, leka-ale, olio eta ezta. Errioxa eta Gaztelania'n eskasia zegoelako, ardoa Burdeos'tik ekartzea erabaki zuen Markiña'k 1.550'garren urtean. Bizkai osorako garia legorrez ekartzen zuten Gaztelania'tik: Andaluzia'tik, ordea, urez; ardoa, berriz, Errioxa eta Gaztelania'tik. Legorrez, alegia. Nafarroa gari-bearrean zegoalarik, 1.566'garrenean, Aragoi eta Gaztelania'tik ekarri zuen; baita "itxasotik"ere.

Zer eskeintza zeukaten euskaldunek janari eta edari oien trukerako?

Tirso poeta erdaldunak onela dio: "Montes de hierro / habitan los vascos". Orra lenengo eskeintza: Burnia.

### **Burnia**

Burnia zan tratoan erabilia eta bere eginkizuna ondotxo bete zuena. Lege Zaarrean onelako itzak erabiltzen dira une oro: "Hierro por vituallas": jatekoaren orde, burnia. Euskal burnia munduko baztar guztietara zabaltzen zan: Legazpi'koa e.b. Gaztelania, Portugal, Ingalaterra, Flandes, Italia, Afrika eta Amarietaraiño.

XVI'garren eunkiaren erdi-aldera Nantes urian sartzen zan burnitik %90, burni euskalduna zan Bilbo, Mondragon, Zestua, Balmaseda'tik eta abarretik. etorria. Baiona inglaterra'ren mendean zegoen 1.152'tik 1451'erarte; orregaitik bera Baiona gertatu zan Ingalaterra'rako bide ingles eta euskaldunen arteko artu-emanetan. Baita Bearne eta Normandia'rako ere: bertarako burniak bide orretatik irten oi zuten.

Indietara zijoazen ontzi guztiak eramaten zuten beuren sabelean burni euskaldunetik tonelada asko. Florenzia'ko idaz-lan batean irakurtzen danez, gure burniak ugari baño ugariago irtetzen zuen Bermeo, Getaria eta Donosti'ko portuetatik. Nora? Edonora: Sevilla, Brujas, Lisboa, Ingalaterra... eta Barzelona'ra.

Burni arazo onetan gurekin artu-eman estuenak, eukazana Europa'ko errietan, Holanda izango zan garai aietan... Normandia'ra joaten ziran ontziak burniz, andik etortzen ziran gariz. Gariakin batera urdaiak eta eunak etorri oi ziran Deba, Mutriku eta Ondarru'ra, gero emen burni-barrak eta aingurak kargatzeko. Oietako barku batek, "Katarine" izenekoak, bretoiña, Riou de Bocec kapitanaren izena, 46 tonelada gari, 500 barrika-koipe, 4 pipa-neurri arraiñ eta 18 oial zuriko piezak ekarri zituen eta iru portu oietan banatu; gero, bertatik 507 kintal burni eta 6 aingura eramane zituen.

Gipuzkoa'ko Korrejidoarek, 1.515'ean, Deba'tik itxasora irtetzera zijoan burniari eragozpenak ipiñi zizkion. Probintzi osoa aurrez-aurre jarri zitzaion Korrejido-reari, emen landutako burniak bideak libre zituela edozein Estranjerirako portuetara. Eztabaida orretan Probinziak irabazi zuen eta Felipe II'garrenak eskubide ori ezagutu zuen 1.518'an: "en retorno de bastimentos traídos a Guipúzcoa".

•..

Burni-meatzak baztar gutzetan agertzen ziran Euskal-mendietan: Zuberora'n Montory eta Santa Garazi; Nafarroa'n Bost-Uri. "Cinco Villas"; Gipuzkoa'n Mondragoiko Udala-mendia, eta batez ere Zerain erria. Zerain'dik sortzen omen zuten bere burni-gaia Azpeiti, Ordizi, Areri, Zegama eta Segura'ko ola guztiek, eta ori antxi-antxiñatik.

Oiek orrela direla, ordea, Bilbo eta bere ingurua ziran burni-meatzetan aberatsenak. Mendi osoak ziran burni-gai. Oietzaz ari zan, ziurki, Plinio erromatarra onela idatzi zuenean: "Totus mons ex hac materia ferri est". Kantabria itxasaldean "mendi osoa dago burniz".

Somorrostro'ko burni-meatzak, bertatik eta Bermeo'tik, irtetzen zuten mundu zabalera itxasoz; legorrez, berriz, Balmaseda'tik ego-alderuntz, mandoetan. Burniari buruzko eztabaida batean onela zion frantzez batek beste ingeles bateri: "Itxas-ontziak egiteko burnirik onena, euskalduna da, ausitzeke okertzen dalako". XIV'garren gizaldiko esanak dira oiek. Baztandarrek Somorrostro'ko meatza eramaten zuten bertakoekin naasteko. Bidea itxasoz Somorrostro'tik Doniane Loitzun'eraño eta andik legorrez, Amayur'etik Baztan'era.

Burniak in batera artillea ere erabiltzen zuen euskaldunek trukean.

## Artillea

Euskaldunen ekonomian burnia eta artillea izan ziran garrantzi aundikoak. urteero, XVI'garren gizaldian, Nafarroa'tik ia 30.000 arrua artille eraman oi zituzten La Rochelle eta Flandes'era. Nungo bidetik? Urez Donostia'tik eta Doniane Loitzun'etik. Salazar eta Erronkari ballartako artilleak, Donosti'tik irten zuten 1.604'garren urtean Ingalaterra'rako.

Gaztelania'ko artillea, merino motakoa, nafarroakoa baiño bi aldiz galeztiagoa zan. Zazpi milla tonelada irtetzen zuten urteero Bilbo, Portugalete eta Deba'tik Frantzia eta Flandes'era. Fleteak galestiak zirala-ta, andik eunak eta oialak ekartzen zituzten etortzerakoan.

Burgos'ek aurretik zeukan "Consulado" bat eta Bilbo'k berea lortu zuenean, orduan sortu zan burruka bien artean, esportazionerako eskubide guztiak Burgos'ek beretzako nai zituelako. Orregaitik boikota egin zion Bilbo'ri eta andik aurrera Gaztelania'ko artillea Protugalet'era bialtzen asi zan, Bilbora barik. Segobia'raiñoko Gaztelania'ko zati bat, Errioxa, Nafarroa eta Bizkai'ko artilleak Deba'tik irten oi zuten itxasora.

Ona zerrenda bat agerpen bezela:

URTEA	BILBO	DEBA	URTEA	BILBO	DEBA
1.561	827	-	1.561	158	-
1.562	1.336	-	1.562	-	-
1.563	550	-	1.563	-	-
1.564	1.395	-	1.564	-	-
1.565	56	-	1.565	-	-
1.566	352	-	1.566	57	-
1.567	557	-	1.567	317,5	-
1.568	483	-	1.568	-	-
1.569	-	-	1.569	273	-
1.570	256	205	1.570	1.248	-
1.571	298	330	1.571	1.405	-
1.572	70	14	1.572	2.299	183
1.573	91	129	1.573	2.104	88
1.574	159	270	1.574	259	-
1.575	-	498	1.575	948	785
1.576	-	536	1.576	649	448
1.577	-	412	1.577	546	83
1.578	18	522	1.578	276	237
1.579	87	454	1.579	49	-
Auek Flandes'erakoak			Auek, berriz, Frantzia'rako.		



Saken neurriak auek ziran: Flandes'en saka bakoitzak 8 arrua; Frantzia'n, 10. Donostia'tik ere irten oi zuten artilleak, Salazar eta Erronkari ballarakoak; baita Iruña, Tudela, Errioxa eta Zaragoza'koak ere. Nafarrek beti izan dute Donostia'rako joera. Errenderia'k ere eskeintzen zien bere Pasaia'ko portua; baña, nafarrek naiago zuten Donosti Errenderia baño. Santxo Jakintsua'k eman zion Donostia'ri bere Fueroa eta arrezkero nafar biurtu nai Donosti.

Alfonso VIII, Gaztelania'ko erregeak, Gipuzkoa bere mende artu zuen unetik bertatik, asi ziran nafarrek Baiona'ra begira, Nafarroa'rako porturik egokiena izango balitz bezela.

## **Barkuak**

Denboraz barkuak ugaritu ziranean itxaso eta ibai baztarretan, barku geiago zegoen artillea baiño. Barkuak Terranoba'ko bale eta bakallau-arrantzarako; barkuak Ameriketarako, eta merkataritzarako ere bai.

Artillea ezezik, bestelako jenero guztiak zebiltzan tartean merkataritza onetan: Burdeos'ko ardoak Flandes eta Ingalaterra'rako. Itxas-ertz auek naiko ez zirala, bideak Mediterraneo'ra zabaldu zituzten merkataritza egiñez Italia'tik Flandes'era. Euskal itxas-gizona itzal aundiko merkatarari gertatu zan. Berak erakutsi zien kodaste-lema (timón de codaste) arraunen orde z erabiltzen. Baita "tingladillo"ren orde z olak zuzenean zuaker edo kuadernetan josten. Orrela ontziaren sabela legunago gelditzen da eta koskarik gabe. "Tingladillo"an olak bata bestearen ertzean josten dira eta orreka koska beterik gelditzen da ontziaren sabel ori eta nekezago txirristen da ur-gañean.

Mogimendua portu guztietan egoan eta zelako ugaria zan ikusteko naikoa degu une batean, berberan, zenbat flete edo pleita (ortik dator "barku pleitero" izena) zegoen: Artillea Flandes eta Frantzia'rako; burnia Balentzia'rako; Malaga'ko frutak Jerez'erako; xaboia, piperra, klabo, eta kanela Galizia'rako; intxaurmoskatua, koipea, urraida (cobre), olio La Rochele'rako eta ardoa Gazkuña'rako. Oietzaz gañera jenero auek zeuden mogimentuan: konejuak, azafroia, seda, Frantzia'ko oial gordiñak, arroza, almendrak, Bretainia'ko eun zuriak, Flandes'ko oialak, datillak, India eta Irlanda'ko narruak, garia, zekalea (centeno) eta abar.

Barkuen ugaritasunak merkataritza ugaltzen zuen eta merkataritza onek barkuak ugaltu. Barku mota guztiak egiten ziran gure "astillero"etan. Europa guztitik zetozen barku-billa euskaldun lurraldera. Kañoi ugariko barku nagusiak eta txalopa txikiak, guztiak sortzen zitun gure itxas eta ebai-bastarreko barkugintzak Udaberrian perretxikoak bezela sortzen ziran itxas-ontziak gure urertzeko soroetan. Eta, auxe izan da euskal-ekonomiaren beste zati bat.

Gure barkuen aldaketa gizaldietan zear era onetara osotu genezake:

1.- Amairugarren gizaldian Donosti uriko seilluak agertzen digu itxas-ontzi mota bat; Masta lodia eta bakarra, oial bat, popan kastillo bat eta lema arraunen bidez egiten zuena.

2.- Bi masta ez ain lodiak, oialak eta arraunak eta lema kodastean arraunik gabe. Era orretako bi ontzi ikusten dira: bata Lekeitio'n eta bestea Elantxoben.

3.- Bi masta lodi eta bi oial; bi kastillo bata popan eta bestea proan; lema kodastekoa. Oien t̄pokoan zan "zafra", 20 toneletik 60'ra, arrantzarako erabiltzen zana eta udaran merkataritzarako, kostarik kosta. Orren antzekoa zan beste barku bat 90 toneledera eltzen zana eta burrukarako beste barku aundi baten

laguntzalle izaten zana. Aurretik joan eta kostetako biurguneak begiratu eta ibai estuetatik sartu. Lan orretan dabillenean "patatxe" du izen.

4.—Iru masta lodi eta oial bat masta bakoitzeko; lema kodastekoa. Orren antzeko bat zegoen Deba'n Uresandi lonja zaarrean, ate-gañeko arrian: XIV-XV eunkikoa.

5.—Iru masta lodi eta iruretan iruna oial laukiak. Oso sendoak eta itxaso aundietako erregea. Izena: "galeoia". Felipe II'ren agindutik aurrera, bi aldemenetan eta kubieta azpian, 18 kañoi eramaten zituzten. Eta beste txikiak karel gañetik. Bale-arrantzarako Terranoba'n ibiltzen ziranak. Baita burrukarako ere. Lema kodastekoa.

6.—Iru masta. Eta oialak lenengo bi mastetan berdiñak; irugarrenean oial luzanga. Izena "karabela". Barkuaren proportzioak luzeago "galeoia" k baño. Ari-ñagoa eta erabiltzen errezagoa. Euskaldunek geien maite zutena. Bi barku-mota auek erabiltzen zituzten urrutietako arrainketan.

Barku aundiagoak ere egiten zituzten, bereziak bear ziranean eta kañoi asko dunak. Kosta-aldeko erri guztietan zeuden "carpinteros de ribera" izenarekin eza-gutzen ziran arotz barku eta barril-egilleak. Bere lan orretan abillak eta famatuak. Barkuak ez-eze barrillak ere millaka asko bear ziran bale-arrantzarako. 1.566'garren urtean "San Nicolas" izeneko barku baten berri zeatzak dauzkagu: Bilbo'n egiña, Landaverde jauna nagusi eta armadore, Joan de Espilla debarra kapitana; urte aretan 1.195 lumera-barril ekarri zitun Terrenoba'ko itxasoetatik. Barril-pilloa.

Iru urte beranduago Labrador'itxas-ertzean beste Pasaia'ko barku bat ondo-ratu zan, 1.000 barrika barruan zituela. Ondoratutako barku au, Oñati'ko iru dokumentuen bidez, 197.garren urtean aurkitu dute Shelma Barkham andreak esandakotik. Orra bi barku jakiñen zeatzasunetatik 2.000 gorako barrillak. Une aretan berreun inguru zebiltzan Terranoba bidean gure kaietatik irtenak, aundi eta txikiago, baleetan aundiak eta bakallautan txikienak. Begira zer barrik pillo bear zituzten. Ez zan bakarrik barkuak egitea; barkuak egiteak, barrillak egitea eska-tzen zuten.

•••

Ameriketarako bideak ez ditugu aitatu ere egin. Arako barku eskabidea ere aundia zan bai burrukarako eta bai merkataritzarako: ontzi aundiak. Gertuko arrantzetan ere portu bakoitzeko asko zebiltzan urte guztian. Onziak txikiago; baña, ugari. Europa'tik eskea ere ba'zan Euskalerrira barku-billa. Gure barku-gin-tza ugarja zan baztarretan, eta europako eskabidea zan lan oien osagarri.

Egoera onek burni-olak eskatzen zituen, eta garai batean, errotak ere burni-ola biurtu zituzten. Gerora, barku-gintzarako berotasun au oztu zanean, berriro ikusiko ditugu olak errota egiten; baña, bitarte onetan, gure errian ez zan lanik gabeko gizonik ilbarriak ez ba'ziran. "San Nicolas" ontziak 435 tonelada zituen eta 75 giza-seme barruan bale-arrantzarako. Burrukarako gertatzen ziranean, neurri orretako ontziak 300 giza-seme eramango zituen beregan.

Barku-gintzak basoak eskatzen zituen ugari eta aundiak: mastak egiteko zugaitz luze eta sendoak eta bestetarako zura ugari. Burni-olak, berriz, erretzeko egurra neurririk gabe, ikatz egiteko. Oiek danak karrioa ugaltzen du neurri gabean. Lanik gabeko giza-semerik ez zala gure artean, agerian dago.

Barku-gintzarako egurrari buruzko ageri bat badago Errege Carlos III'garrenak onartua. Onela dio: "Proyecto solicitado por la Villa y aprobado por el Supremo Consejo para un muelle corrido..." y una estacada con compuerta para levantar-

la al borde de la ría y formar una presa desde Latsurregui a fin de aumentar el caudal del riachuelo "para custodiar las maderas de construcción para los baxeles de S.M." para el Ferrol y Cartagena. Onek esan nai du barku-gintzako berotasunak oztuta ba'zeuden ere, Deba'ko basoak or zeudeka lenago bezin ugariak 1.783'an. Carlos III Napoles'tik etorri zan errege izateko 43 urte zituela eta 72'rekin il zan, proiektu au onartu eta lau urtera.

Aurreko gizaldian, ordea, 1.628'an, ez ziran najkoak emengo basoak ainbeste ontzi egiteko eta Santiago de Larragil'ek egur eskaria egiten dio Mallabia'ko Martin de Antio'ri onelako olen neurrietan: 6.000 kodo-olak 5 kodoko neurrietan; 3.000, 7'etan eta 1.000, 10 kodoetan. Bi taldeetan ekarriko zituen Alzola'ko Juan Lopez de Oibar'en etxera. Gero andik Deba'ra ibaiean zear ekarriko zitun debarrak. Okerren bat izan zan bien artean gertarera au Oñati'ko Protocolos Guipuzcoanos'etan agertzeko: Sección Primera, Legajo 1.438 folio 35. Erri onetako "DEBA" aldizkarian, Udaberria 1993'koan, idazten du Koldo Lizarralde Elberdin'ek.

•e•

Burruka aitatu degun ezkerro J. Ignacio Tellechea Idigoras'ek 2.000'garren urteko Martxoan agertu zuen Donostia'n bere aizken liburu au; "CORSARIOS GUIPUZCOANOS EN TERRANOVA. 1552-1555". Carlos Lenegoak, gipuzkoarrei eskatzen die, Frantzia'ko muga direnez, sartzeko burrukan jtxasotik, bakoitza bere poltxikoaren kontura, eta ez erregearen kontura. Bera, Erregea burrukan zebillen Frantzia'ko Franzisko Lenengoaren aurka, eta orregaitik nai zuen gipuzkoarrek euren barkuekin frantzezei alzanik okerrik audienak egitea.

Armadore gipuzkoarrek 350 ontzi prestatu zituzten burrukarako eta bost urte oietan kalte aundiak egin Frantzia'ko itxas-ertzeke lurraldeetan eta baita Terranoba'ko jtxas zabaleetan ere. Okerrak jaso ere bai eta milla giza-semeen eriotzak. Erregearen ingurutik esker onik ez zetorrelako, Gipuzkoa'ko agintariek erabaki zuten ikerketa bat egitea. Eta ikerketa ori egiteko, burrukan ibilli ziran artekoetan, amalau gizon aukeratu zituzten, ikerketa orreri erantzuteko. Oien artean iru ziran Deba'koak. Eta, Deba'ko burruka orren bi berri gasoko ditut.

Ikerketa au 1.555'e an egiña dago, burrukaren aizken egunetan. Eta iru debarrak auxe esaten digute: Orain lau egun irten dute Deba'tik burrukarako sei ontzi eta zazpi. Ez det ondo ikusten "sei edo zazpi" diran ala "sei eta zazpi". Ontzi aundiak, 200, 300, 400, 500 toneladakoek askotan eramaten zituzten ontzi txikiagoak, 30-90 toneladakoak, laguntzaille bezela. Orregaitik izan litezkean "Sei ontzi aundi" eta "zazpi txiki", ala bestela "sei edo zazpi" ontzi aundi. Dana dala, Deba bezelako erri txiki batentzat ontzi asko ziran eta giza-semeak geiago oraindik. Berreun edo irureun giza-seme barku bakoitzeko giza-seme pilloa zan. Ontzi oiek betetzeko Beeko-Daba ibaieko jendea bearko zuten. Or ikusten da Gipuzkoa'ko kosta-aldeko errien indarra.

Gipuzkoarrek milla ontzi frantziar baño geiago arrapatu eta ondoratu zituzten. Martin Ochoa de Irarrazabal, Deba'ko kapitan eta testiguak d'jonez 1.500 ziran frantzesek galdu zituzten ontziak. Eta, debarrei buruz onela dio:

"Y que sabe que solos los vecinos de Deba (sic) en esta presente guerra an tomado seyscientos naos pasagas entre naos, galeones e otras fustas grandes, pequeñas y medianas, las doscientas dellas armadas con mucha artillería y diversas munyiones que valian más de quatrocientos mylil ducados".

Kañoiak, berriz, 5.000'tik gorakoak ziran gipuzkoarrek arrapatutakoak, amalau lekukoen itzetan. Deba'koek diotenez, eurok arrapatutakoak, 1.300 dik gorakoak izan ziran. Brontzez eta burnizkoak.

## **Armak**

Geure ekonomiaren arazoa armak osatzen zuten. Baña, armak "burnia" gaian sartu genezazke. Alaz ere, España'ko Erregeak kañoi-fabrika Soraluze'n ipiñi zuan "Placencia de las Armas" izena emanez. "Deva" errekek, euskalerriko zenbait errekek bezela, salto bakoitzeko sortzen zituen ola eta arma-fabrikak Alzola, Elgoibar, Eibar, Sorauze, Arrasate-Mondragoen... Nafarro eta Bizkaiko olak ere famatuak ziran.

Ikusten degu zenbat kañoi zebillen itxasoetan zear. Baña, ez ziran kañoiak bakarrik. Goian aitatu degun "San Nicolas" ontziak emezortzi kañoi zituen, sei aundiak eta amabi txikiagoak. Orretzaz gañera barruan zituen arkabuzak bi kintal polborarekin, amabi ballesta bakoitza amabj azkonekin, eta eunka arma zuri: pika aundiak eta txikiak, ezpata, puñal... Arma kargamentu oso bat barku bakoitzeko. Itxasoko burrukak ez ziran kañoiekin amaitzen. Barkuak alkarren ingurura etortzean, orduan, arkabuzak eta ballestak eta alkar jotzen zutenean asten ziran pikak eta ezpatak; azkenik, puñalak Zenbat arma bear ziran ainbeste itxas-ontzi ornitzeko! Eta, arma erabilketa ez zan itxasoan amaizten...

## **Luméra**


Lumera edo arrain-koipea ez degu merkataritzan sartu; baña, XVI-XVII'garren eunkietan, bale-koipea merkataritza eta ekonomian garrantzi aundi-aundikoa izan zan. Ikusi dituguz bi itxas-ontzi baleetan: bat "San Nicolas" eta bestea "San Joan", biak barrika-koipez beteak: 1.195 batek eta besteak 1.000. Barril bakoitzak 400 libra zituen, berreun kilo inguru. Lumera orrek argia egiten zuen argizariak beziñ ona eta askoz merkeago eta ugariago. Garai batean Paris erriko kaleak lumera euskaldunekin argitzen ziran eta Europa osoak zuen geure kaietarako joera: bale-koipea nai.

Gerora, euskaldun askok "etxe-kalte" gertatu ziran ingeles, holandes, ruso eta abarrei, bale-arrantza eta koipe-urtzearen teknikak erakutsiaz. Erri oiek Terranoba eta Canada'ko indioei lurak arrapatu eta beuren nagusitasuna agertu zuten ango itxasoetan; eta euskaldunak, etxera. Orrela amaitu zan bale-lumera. Gure kaietan Itxas-ertzen inguruan bat edo beste arrapatzen zituzten; baña, ezer askorik ez. Emengo bale "bizkaiensis", banan banan etortzen ziranak, Kanada eta Terranoba tarteko kolkoak sardan agertzen ziran eta izena ere alakoa ipiñi zioten gure arrantzaleek: Sardako Balea. Ura galdu zuten eta banan-banakoa gelditu. Beti ibilli ziran artu-eman gozoetan indioekin, aien lurra errespetatuz; baña, ondoren etorri ziran ingeles eta frantzesek indioen lurren jabe egin ziran indarrez eta ondoren, itxasoaren jabe. Oorea euskaldunentzat; balea, ordea, eurentzat. FINIS CORONAT OPUS esan bearko.


Deba'n maiatzak 10. Urtea 2.000

EJIRTU'KO  
ONTZIA


3.000 URTE



LEMA, ARRAUNAK



BI MASTA



XVII paretu eankiko balantzia, Golenaren  
anotzi du. GALEOIA  
IRU MASTA: oipalak, lapalak


1.297 Donostiko Selloa  
MASTA BAT  
LEMA, ARRAUNAK



KODASTE




KODASTEKO  
LEMA



LEMA KODASTEKOAN

Ano de Leheitiellaj bi masuden ontzia Hauer eta Kieuz marak Pizarrenoa  
(19) Puzte eta lazo.

FUJTA : BI MASTA eta ARRAUNAK.



KARABEKA : IRU MASTA

# GERNIKA'KO BATZAR-ETXEA

## (1) garrantzia

Bizkaia'n doguzan oroitetxe guztien artean garrantzitsuena Gernika'ko Batzar-Etxea dogu, gauzea edesti-eldetik begiratu ezkeru. Ertia begiratu ezkeru asko dagoz obeak eta antxiñakotasunari begiratu ezkeru be bal, baiña gure Erria nondik nora ibilli dan jakin nai ba'dogu, edestia begiratu nai ba'dogu, Etxe au dogu lekukorik onena, zazpi ataletan ikusiko dogun lez. Bizkaitarren biotza dogu etxe au edo jaunerriaren ama-etxea. Eta ori baieztatzen dabe batzarren atxeñekotasunak, batzarretan legeak egin ebezenen zulentasunak eta zintzotasunak. Or agertuko jaku gaur egun be Bizkaia'k zer dauan bere-berea.

Batzar-Etxea esatea Bizkai osoa esatea da. Etxe onetan agertzen dana beti da bizkaitartasuna, leiñargitasuna eta garbitasuna.

Gernika uri lez 1.366n urtean jrsi eben baiña orduan be ezaguna zan Gernika Zarra lurraldea eta lurralde onetan ariztia ta baseleiza bat. Arizti aretatik geratzen dana da Gernika'ko zugatza eta baseleizea egon zan lekuan daukagu gaur Zin-Eleizea. Andra Mari Zarrarena deritxona. Auxe da Batzar-Etxea.

Antxiña baten bizkaitarren batzarrak toki askotan egiten ziran, baiña astiro-astiro sartu zan beti batzarrak Gernika'ko zugazpean egiteko oiturea. Orregaitik zugatz au mundu guztian da ezagutua ta goratua, abestua ta gurtua, eta lparra-girre abesleri txalogarriak diñoan lez, "eman da zabaltzazu munduan frutua". Zugatzen artean "Zugatza" da Gernika'koa.

Gaurko Batzar-Etxe au 1.826'tik 1.836'ra egiña da, orregaitik Klasiku-Barri tankerakoa, tankera onek eskatzen dauan lez apaingarri gitxikoa, latza, aundikeri-bakoa.

Egin zanean sarrera ta orma gurena, nagusia, zugatzera begira egoan, baiña gure aldi onetan etxe onetara sartzeko ez da artzen ate ori, lenago eleizara sartzeko atea eta etxe osoa zanaren atzeko atetik baiño.

Etxegintzan erabilli zan oreka ez da agertzen etxe onetan. 1833n. urtean etxegintza itzi egin bear izan zan, karlatarren gudak sortu ziralako eta etxea amaitu barik ikusten zan.

Lenengo, agiritegia dana egin eben, 1.826n. urtean, urrengo urtean zin-eleizea eta sarrerako ibilbide bi eta etxe bi onein artean gaur museoa dana be-barrua geratzen ziran.

Gaur batzar-Etxeak dituan tokiak oneik dira: Andra Mari Zarraren zin-eleizea, zugatzaren lekua ta zugazpean zin-tokia ta zugatz zarra, agiritegiak, Museoa, Zuzendaritza ta zaingo-gelak.

Batzar-Etxeak ibiltari ta ikusle asko erakarten dauz beragana Bizkaia'n. Goi-koak naiz beekoak diran notiñak ugari etorten dira etxe au ikustera: ugari, arduratsu, jakin-nai aundiagaz eta biotz beroagaz.

Mundu guztian da ezagutua toki au eta edestiz beterik dagoan ezkeru, beragana ekarten dauz ibiltariak, billatzaileak eta Jaunerriak beti izan dauan zintzotasuna ta jokabide zuzena zein izan dan jakin nai daben guztiak.

Benetako jakin-naia daukanak, egia dan lez jakin nai dauanak, emen agiritegi aberatsa aurkituko dau eta edestia ikutu egiteko aukerea izango dau.

Barru-miña daukana, nuntzebarri dana, ainbeste milla ikertzaille pozik eta alai joaten dira aurkitu daben ezagupena aurkitu dabelako. Izan be Bizkaia ta Euskal-herria zer izan diran jakin nai dauanak lenengo ta bein kontuan euki bear dauana, Gernika'ko Batzar-Etxea da.

Gaur gure erri-bizitzak arazo aundiak daukaz. Kanpotik etorri eta bertokotu barik dagozenak asko dira. Ez dabe ezagutzen gure edestia. Errigintzarako gure artean izlari diran alderdi batzuk be ez, ez dakie gure erria zer dan, nondik datoren eta nora doan. Betoz Gernika'ra eta aurkitu begie erriaren oiñarria eta jakin begie beste Euskal-lurralde guztietan be, jokabidea antzekoa izan dala: Gogoratu Gipuzkoa'ko Batzarrak, Arabako Kuadrillak eta Arriaga'ko Kofradia, Nafarroa'ko Korteen oiñarria, Uztaritz eta Maule'ko batzarrak. Eldu jaku Lurralde guztioz alkartzeko ordua, ori da euskalherria, gure erria.

**Oarra:** Emen eta urrengo ataletan agertzen diran jakingarriak Bizkai'ko Aurrezki-Kutzak argitaratu eban "Colección de Temas Vascos"etik artuak dira, Francisco Sesmero Idazle zala (1975). Batzutan itzuli egiten dot, beste batzutan zerbait gainerratu eta iñoz eritxiak agertu.

## (II) zin-eleizea

Bizkaia lurraldean Lege Zarra edo forua zin egiteko eta Batzarrak egiteko aukeratu zan tokia Andra Mari Zarra'ren zin-eleizea zan, baiña ziña beste toki batzutan be egiten zan, zin bakarra ez zalako izaten.

Eleiza au antxiñakoa da. XIII gizaldian agertzen da onen izena. Aritz aukeratuaren ondoan dago eta Zarra edo "Antigua" izena artu eban, Andra Maria'rena dan Gernika'ko eleiz barritik bereziteko. Andra Mari Zarra izena daroen Santutegiak toki askotan aurkitzen doguz Bizkaia'n.

Sarritan, egualdia txarra zalako ezin izaten zan batzarra egin arizpean eta alduak eleizan batzen ziran. Ortik sortu zan gero batzarrak an egiteko oitorea.

Antxiñako baseleizeak aldakuntza asko izan ebazan gaurko Batzar-Etxe au egin baiño lenago. Eleiza au txiki geratu zan batzarrak egiteko eta ba-dakigu gizaldi batzuk dirala aundiago biurtu ebela. Ori idatzita dago.

Baseleiza zarra Mezeta'ren etxearena zan eta onek emon eutson Bizkai'ko lenengo korrejidorea zan Gonzalo Moro'ri eta korrejidore onen aginduz eta bere kontura, 1.410n. urtean barriztatu egin zan eta gero antxe izan zan illobiratua korrejidorea. Gaiso-etxe bat be egin eben bertan.

Urteen joanean Bizkaia'ren zaingo-lanak zabaltzen joiazan eta bein baiño geiagotan aldatu bear izan eben baseleiza izandako Batzar-Etxea erri guztietako ordezkariak artzeko. Esaterako Fernando Katolikuak zin egin-aurretik burugaiñeko apaingarria goratu egin zan eta zugazpeko zin-tokia be bai. 1565n. urtean zugatzaren ingurua, aldunak batzen ziran tokia arri landuz jantzi zan. Zin-toki orreri 1.575n. urtean teillatutxu bat ipiñi jakon korrejidorea eta aldun aukeratuak aterpean egon daitezzen. 1.605n'ean sare bat ipiñi zan aldun aukeratuak eta errietako ordezkariak euren lekuetan egon daitezzen, alkarregaz goraberarik izan barik. 1.609n. urtean, etxearen egoerea txarra zalako ezin izan eben batzarra an egin eta gaur lekaike klaratarrena dan etxean egin eben. Urte beratan konpondu zan eleizea.

1.826n.ean erabagi zan gaurko Batzar-Etxea egitea, Etxegiña Etxebarrja'tar Antonio eta Diru-zaiña Loizaga'tar Jose M.<sup>a</sup> zirala. Lenengo agiritegia egin eban eta 1827n.'eko garagarrillaren 20'an artu eben eleiza barria egiteko erabagia. 1833n.urtean dana egoan amaituta gaur dagoan lez. Arria Oka auzoko Arbiña arrietatik ekarrj zan. Gorozika'n dago ori. 835.419 errial eta 19 marabedi kosta zan.

••

## Eleizea Bera

Sarrera nagusia aritzaren ondotik da eta eleizpe bat dauko age bigaz, dorio-tankerakoak oneik.

Eleizearen barruko beea biribil-luzangea da, albo bitan maillak daukaz eta mailletan arrizko jesarlekuak zurez jantzita, ordezkariantzat. Berengo maillan Errialdearen Gurasoak eukezan euren jesarleku bereziak. Maillen gaiñean erriarentzat lekua dago.

••

Iñok ez dau ukatzen, 1.366n.urtean Gernika uri biurtu baiño len, eleiza au Jauerreriko batzarrak egiteko izaten zala, baiña eleizkizunetarako be erabilten zan, bere lurretan eukan Lumo'ko parrokiari laguntzeko. 1931 n.urtea arte egin ziran an eleizkizunak. Urte orretatik 1.961 n.urtera arte meza bereizi batzuk baiño ez ziran egiten, esaterako uriak eta erriak bat egin ebena gogoratuz, maiatzaren 3'an, kurutze deunaren egunean, eta Berriotxoat'ar Balendin deunaren egunean. 1961 n.urtean, orriaren 3n'ean Bizkai'ko aldundiak igande ta jai guztietan mezea ipiñi eban.

••

Arrjnarrezko mailla batek garoaz altarara. Altara-gaiñean Basterra'tar Serafin'ek eta Larrea'tar Bixente'n (biak Bilbao'tarrak), egindako iruditegi bat dago eta onen erdian dago Maria Sortzez Garbiaren irudia. Irudi onen ojnpean egin ziran Bizkai'ko Jaunerriaren azkenengo batzarrak. Irudi ederra da, ugari margotua, XIX gizaldikoa, baiña ez dakigu irudigillea nor izan zan. Izen au daroen Bizkai'ko irudien artean ederrena da.

••

Oteundegi (sagrario)-gaiñean Berriotxoat'ar Balendin Deunaren gorpuzkiña dago.

••

Altara-ingurua ta batzarraren mai-burutza banatzeko errezel bat dago. Maiburutza maia ta zazpi jesarleku dira eta oneik ziran korrexidorearena eta bi aldun nagusienak, beste bi rexidoreenak eta beste bi sindikoenak. Gizon onein zeregiñak jakitea ondo letorkigu baiña idaz-lan onen joanean agertuko dira.

••

Ormearen goian ogeta sei lauki dagoz Bizkai'ko Jaunen irudiakaz. Oneik Galbarriatu'tar Sebastian'ek eta Bustrin anaiak (Txomjn eta Nikola) margoztuak dira, 1.664n.urtean aldundiak agindua betetuz. Arin egiñak dira aldundiak estu artu ebazalako. Lenengo Jaun Zuria'ren saillekoak, ez dira benetako jaunak, baiña or dagoz. Gero besteak. Lauki bakoitxak azpian daukoz bakoitxaren izena eta jakingarri batzuk, baiña uts asko dagoz oin orreitan edesti arloan.

Bizkai'ko Jaunen laukien gaiñean, zin egitera etorri ziran erregeen izenak aitzentzen dira: Eskuma-aldean, Gaztelako Enrike IV, Fernando Katolikua, VII Karlos. Ezker-aldean, Gaztelako III Enrike, Gaztelako I Juan, Isabel Katolika deritxona. Beste sei dagoz izen barik.

••



Irudi orrean artean leiar margotuak, bidrierak, dagoz Adolfo Guiard bjlbaotarrak 1.901 n'ean margotuak. Bizkai'ko bizi-modua adierazten dabe: Edesti-aurrea, nekazaritza, itxas-lana, langintza, erdi-aroko jauntxuen burrukak, itxas-bideak, salerosketa...

Altara-gaiñean beste leiar margotu bat dago, oraintsuagokoa da eta Bizkai'ko ikurdia gogoratzen dau.

Eleizearen erdi-erdian argi eder bat dago, brontzekoa baiña urreztatuta, aundia eta 1.869'an Montijo'ko Eugenia'k emona.

Eleizearen oiñetan lauki margotu baten aldakia dago. Lauki au 1.809n.urtean egin eban Vazquez Mendieta'k eta Nieto Ulibarri'k ber-egin. Errege Katolikuari eskuan mun egitea dakar. Lauki jatorra emen egon zan 1.958n.urtera arte eta urte onetan Bilbao'ko Aldundira eroan eben.

Lauki onen gaiñean beste lauki mun-egille bat dago. Bizka'ko Jaunaren aurrean zin egitea da, Ginea'tar Anselmo'rena, 1882n.urtean Erroma'n egiña.

### (III) aritza

Antziñakoa bai, baiña ez dakigu noiztikoa dan bizkaitarrak Lege Zardun aritzari edo Gernika'ko zugatzari dautsoen itzaltasuna. Batzar nagusiak egin ziran beste zugatz batzuren azpian, beste leku batzutan be, baiña astiro-astiro toki eta zugatz oneik aitzu egin dira eta bakarrik geratu jaku Andra Mari Zaarra'ren zineleizearen ondoan dagoan aritza. Toki au antxiñatik da ezagutua.

#### **Jaunak zugazpean (So el arbol)**

Baikaia'ren jaunak Gernika'ko zugatzaren azpian egin bear eben euren ziña, eta beste toki batzutan be bai eta ziña zan "Bizkai'ko lege zarra eta ekanduak aintzat artu eta beteko ebezala. Eta ori egjnda gero baiño ez ziran artzen Bizkai'ko benetako jaun lez.

1.040n.urtean asita, urte orretan aitatzen da lenengoz gure Jaunerria, Bizkai'ko Jaunak Gaztela'ko kondeak ziran eta gaztelako erregearen menpean egozan eta Bizkai'ko lurra euren dala esan eikeen Gaztela'ko erregeak ori nai ebelako. Gero Gaztela'ko erregeen sendiko bjurtu ziran eta bide orretatik II Enrike Gaztela'koaren emaztea, Juan Manuel izenekoa, erentziz eldu zan Biakai'ko andrea izatera eta onen semea eta ondorengoa (erederua) zan Juan jaunak Bizkai'ko Jaunaren izena artu eban eta au 1.379n.urtean Gaztela'ko errege egin eben.

Onen ondoren Gaztela'ko erregeak Gernika'ko zugazpean egiten eben ziña. Lenengo aitatzen dana XI Alfontso da (Bizkai'ko XIV jauna). Baiña gauza ziurra da zugatza askoz antxiñagokoa dala.

Aurrera jarraitu baiño len ezin itzi esan barik, jaun oneik Euskalerriri kalte aundia egin eutsoela, orrelan asi giñalako geure buru-jabetza galtzen eta orretan ekingo daualako, gaur arte, España'ko agintarjtzak. Gogoratu Bergara'ko besarkadea, Lege Zarra kentzea eta abar.

Fernando Errege-Katolikuak ziña egin ondoren (1.476, 24n. Jauna), ez ziran erregeak Gernika'ra etorten, naikoa zan Lege Zarra onartzen dabela agiria izenpetzea eta agiri au aundikiro irakurten zan Batzar Nagusian, Gernika'ko zugatzaren azpian.

## **Lege Zarraren zugatza**

Gaur daukagun zugatza zin-tokiaren aurrean lurrean sartu eben 1.860n. urteko urterillaren 15n. egunean. Onen aurrekoak urte bateko bizia baiño ez eban izan. Baiña biak dira gaur Zugatz Zarra esaten dautsagunaren ezkurretatik sortuak. Au urte orretan asi zan igeskatzen. Barria sartu ebana Allende Salazar'tar Kastor Errialde onen Aita izan zan, lekuko gitxi batzuren aurrean. Gaurko zugatza ba, ziña egiteko ziran aurreko zugatzen ondorengoa da.

## **Batzarkideak**

Gernika'ko Batzar oneik egitea 1.877n.urtean amaitu zan, gure Lege Zarra kendu euskuenean. Batzar oneitan Bizkai'ko Ogi-lurreko Jaunak, Urietakoak eta uri nagusikoak, Enkarterrikoak eta Durangoaldekoak batzen ziran Jainkoaren eta Erregearren serbitziorako ziran gaiak aztertzeke. Jaunagaz batera ez etozanean "pase foral" ukatu eta "se obedece pero no se cumple" erabagi bear izaten eben.

Azkenengo zati oneri azalpen bat zor dautsogo: Bizkaia'n lurralde bat baiño geiago egoan eta lurralde oneitariko bakoitxak bere batzarra egiten eban: Ogi-lurra edo lur laua esaten jakon lenengotan bakarrik Gernika'n batzarra egiten ebanari. Enkarterriak bere batzarrak Abellaneda'ko batzar-etxean egiten ebazan eta Durango-aldekoak Gerediaga'ko Batzar etxean.

Amabigarren gizaldi inguruan asita, Jaunen aginduz, erri-barruetan Uriak sortu ziran, esaterako Areatza'n Billaro, Ugao'n Miraballes, Markiña'n Villaviciosa, Lumo'n Gernika, eta beste tokia batzutan izen bera zainduz, esaterako Bermeo, Mungia, Larrabetzu, Errigoitia, Balmaseda... Eta uri oneik euren lege bereizia euken. Asieran ez ziran joaten Gernika'ko batzarretara, uri aundia zan Orduña be ez. Geroago sartu ziran jokabide orretara. Orrelan Bizkai osoa azken baten batzen zan Gernika'ko batzarretan.

## **Azterpena**

Amaitzeko esan dagidan Gernika'ko Batzarren bidea gure buru-jabetza galtezkeo bidea izan zala. Samintasuna sortzen dau gure barruan Batzar oneitan kanpokoak ziranak, Jaunak eta ordezkoak, ainbesteko aginpidea eukela jakiteak. Lege Zarra zan gure eskubide nagusia, baiña Lege Zar ori murriztuta agertu zan Gernika'ko Batzarretan. Erdera berba egiten zan eta erderaz idazten ez ekienak etxera bialtzen ebezan.

Obea ete da gaur daukagun Araudia beronen parlamentu ta guzti? Gure artean gauzak asko nastau dira, zori txarrez, eta ez dauskue izten euskaldun-euskaldunak izaten. Ori agiri da alderdi politikuen jokoan. Erakunde barri bat eskatzea, Euskalerrri osoa, "Zazpiak bat" eskatzea, gaurko burrukak baiño lenagoko gauzea da eta erriagintaritza goratzen dabenak ori artu bear leukee oiñarri lez. Ez dago beste biderik geure buruaren jabe izateko, erriak ori onartzen ba'dau. Eta erriak onartuko ez ba'leu or jokatu bearko geunke gure erria bere senera, euskaldun izatera, biurtzeko.

## (IV) erakustokia (Museoa)

1.964n.urtean urrillaren 12n. egunean sortu zan Bizkaia Jaunerriko erakustokia edo Museoa. Elburua ez zan besterik Jaunerriaren edestian agertzen diran agiriak erriari erakustea baiño.

Erakustoki onetan agiri asko dagoz, 1.366n.urtea ezkeroko edestia Lege Zarra amaitu arteko aldikoa agertzen dauskuenak. Agiri batzuk Jaunerriaren agiritegi nagusitik artuak dira. Agiritegi au Batzar-Etxe onetan dago. Beste batzuk Bilbao'n dagoan Errialde-agiritegitik ekarriak dira.

Agiriak ez diran beste gauza batzuk be ba-dagoz toki onetan. Agiritegi au sortu baiño lenagotik etxe onetan dagozenak dira, eta balio aundikoak.

Erakustoki onen elburua ba, ez da besterik ikertzailleai, labur baiño ez ba'da be, Jaunerriaren edestia ondo eratuta agertzea baiño, orrelan guztiak ikusi dagien joan diran gizaldietan Bizkaia zer izan dan.

Gaur erakustokia dagoan lekua len be-barru bat izan zan. Iñoz baratz txiki bat be izan da or eta ur-iturri txirritari bat be bai. Gizaldi onen asieran leiarrezko estalkia ipiñi jakon eta 1956n.urtean be egin jakozan aldakuntza batzuk.

### Palankariaren ingurua

Zin-eleizearen eleizpetik erakustokira sartzeko gela luze bat dago eta or aurkitu geinkezan laukiak, argazkiak eta irar-lanak oneik dira:

M.M. Azparren'ek 1847n.urtean Erroma'n margotu eban "Bakearen irudia". 2n.-1908n.'ean Euskal Lurraldeen Ekonomi-Iltuna barriztatzeko Erki-Batzordekoak. 3n.— Buenos Aires rasi eban Garai'ko Juan'en Gomuta-irudia, Gernika'ko zugatzaren landareagaz batera. 4n. Mungia'ko Matxin'ek 1539n. urtean irabazi eban Prevezza'ko Itxas-gudaldiaren irudia. 5n.—VII Karlos erregegaia bere gudalburuakaz M.J. Martinez Estevez'ek margotua. 6n.— Tejada'tar Karlos'en "Bilbao'ko aretza ta Nikola Deunaren eleizea". 7n.— Bizkai'ko andrak antxiñako jazkiakaz. 8n.— Tejada'tar Karlos'ek Margotutako Bilbao'n dan Santiago'ren eleiza'ko eleizpea, gaur gotzaineleiza. 9n.— Arri-idatzi batek auxe gogoratzen dau: 1940n.urteko jorrailaren 11 n.egunean Bizkai'ko Aldundi guztiz goragarriak Vilariño'tar Remigio aita josulaguna, Gernikarra, "Bizkai'ko Seme guztiz argi" izendatu eba. Tamala!

Zuzendaritzara sartzeko atearen ondoan, Antxiñako Ziortzako Andra Maria'ren Lekeide-etxetik ekarritako iru gauza dagoz» Lekaide-etxe orretarako agiri-kutxa aundia (1.550n.urtekoa). XV gizaldikoa eta pergaminozkoa dan kantutegia eta arri idatzi bat, 1551 n. urtekoa, aberatz jatuna ta Lazaro txiroa gogoratzen dauzana, XVI gizaldikoa: maian jatuna ta emaztea morroiakaz, erdian Lazaro txiroa eskean eta txakurra onen oiña miazkatzen. Au orain Ziortza'n dago, sarrerako atean.

Abadeño'ko Astola etxetik ekarrita zurean landutako maia, XVIII gizaldikoa, Durangoaldeko batzarrak gogoratzen.

Toki luzanga onen erdi-erdian Palankaria dago, Bizkaia'n burdin-meatzetan zan antziñako kirola gogoratuz. Au Basterra'tar Ijinio jaunak egiña da, 1.925n.urtekoa. Sevilla'n eta Bartzelona'n izandako Laterri-Erakusketara eroan eben, 1928 eta 1929n. urteetan. Igeltzoz egindako irudi aundia da eta metz-gizonaren irudia, palanka aundia jaurtiten. Palankeak berak neurki bi inguruko luzerea dauka eta aitzia zultzeko erabilten zan meategietan, gero zuloan lerkaiak sartzeko. Olako palanka bat Bilbao'ko udaletxean dago eta jatorrena Portugalete'ko Txabarri'tar Biktor'en irudiak daukana da. Batzar-Etxeko palankariarena laburtxuagoa da, zurezkoa.

## **Erdiko aretoa**

Emen leiarpeko kutxa aundi bi dagoz erdian eta alboetan beste amaika leiarpe-talde, binaka, aundiak eta txikiak, eta oneik agiri eta gauza asko erakusten dabez: Marroko'ko Aginterria'ren aurkako guda Laterri-banderea iraindu ebelako. Or dagoz esku-altarea, abade-jazkiak, ikurdia, bost lagundien ikurrak, izkillu batzuk mauruai Tetuan'en Kareaga'tar Ramos Gudalburuak kenduak, V. Paulo'ren bulea Ziortza'ra (1.608), I Juan'ek Ziortza'ra (1.386), Gerrikaitz uri izendatzea Gaztela'ko I Pedro'k (1.336), Ziortza'rako arauak (1.384), Batzar Nagusien Batzar-agiri batzuk, Batzar Nagusien Araudia (1.864), Loiola'ko Ignazio Bizkaia'ren Zaindari (1.680), Santimamiñe'ko koben irudia, Iparragirre'ren Leiarpea, eta beste agiri asko eta asko irakurgarriak.

Erakustoki onen inguruan leiñargien ikurdiak dagoz: Salazar, Sangroniz, Abendano, Villela eta abar.

Azkenez, beean idatzita auxe dago: "ETA ORRELAN, GERNIKA ONETARA ETORRITA, ZUGAZPEAN, BIZKAI'KO BATZARRAK EGITEN DIRAN LEKUAN, ASKATASUN ETA LEGE BEREIZI GUZTIAK ZIN EGIN ETA ONARTU BEAR DAUZ". Idazki au 1.476n.urtean Fernando Katolikua Bizkai'ko foruak zin egitera etorri zaneke batzar-agiritik artua da.

## **(V) agiritegia**

Gernika'ko Batzar-Etxean zaintzen da "Bizkaia Jaunerriko Agiritegi Nagusia".

1.366n.urtean asten da eta gaur arte jarraitzen dau. Balio bereizia dauke XV eta XIX gizaldietako agirijak.

### **Edestia**

Antxiñako aldietan kutxa aundi baten egozan eta kaxa edo kutxa au zin-eleiza zarrean zaintzen zan.

1.622n.urtean beste erabagi au artu zan: Eleizearen ondoan sakristi bat egin eta au izan daitela Jaunerriko Agiritegia. 1696'an amaitu zan lana eta 1.500 errial ordaindu zan, gaiñera burdiñezko ateak eta beste gauza batzuk.

1.826n.urtean Aldundi nagusiak, eleizearen ondoan beste agiri-toki bat egitea erabagi eban, Etxebarria'tar Antonio'ren egitasmoa betetuz eta lenengo arriaren azpian sartu zan orretarako errege-agindua, aldaki bat, eta urte aretako txanpon batzuk.

Agiri-toki onek be-maillera ta goi-maillera daukaz eta goi-maillan balko; aundiak aurrean burdiñezko eskudela dabela eta apuntu-erdiko leioak. Museo'rantza dagoan ormeak zazpi arku daukaz eta mailla bietarako sarrera-ate bi. Kanpoko ormea, egoalderantza, arri landuzkoa da eta gaur zuzendaritza ta zaingo-tokiak dagozan lekurantza be arri landuak dira. Begirategi edo balkoietan egoalderantza puntu-erdiko arkuak eta leioak dagoz.

1.956n.urtean agiritoki au barriztatu egin da eta eskaplot bi ezarri dira kaobazkoak.

### **Goi-agiritokia**

Agiri-moltzoak bi dira: Goikoa ta beekoa. Goikoan dagozan kaobazko eskaplotak 19.664 erreal ordaindu ziran.

Goi-errezel bat dauka eta onen apaingarri dira Bizkai'ko Ikurdiak, gudan irabazitako oroigailuak eta idi-buruak. Orduan, antza, artzen ziran apaingarriak dira. Age biren gaiñean dago errezela ageak oiñarri aundiakaz eta erdiraño dira kanal-dunak. Idazki bat: "Bizkai'ko Lege Zarra" zidarrezko izkiz, Jaunerriaren ikurdia eta goiko aurrea biribil-erdizkoa. Au da Agiri-toki onetako lekuri gurena eta emen zaintzen da 1.826'koa dan Bizkai'ko Lege Zarra eta beste agiri batzuk.

Goi-Agiritokian edesti-agiriak dagoz: Erregeen eskutitzak, Batzar Ñagusiak, gudak, itxas-lanak, erritarren arteko gudak (Karlatarren alderdiko agiritegirik onenarikoa), jaun-gurtzarako eta abadeentzat zergak, fogerak, zenbakiak, bideak, izkilluak, Durango-aldeko barriak, sendien aurretikoak eta abar.

## **Be-agiritokia**

Erdi-lurpeko tokia da eta agiriak euren lekuetan ipinteko aretoak dagoz bertan, burdiñezko liburu-lekuak eta oneitan Bizkai-maillako agiriak eta errietakoak. Au izan zan aldi baten Lumo'ko Udaletxea.

## **Lege Zarra (Foruak)**

Aztertu daigun era bereizian forua edo Lege Zarra.

Gure Jaunerriak 1.877n.urtera arte bere Lege Zarra izan dau. Lege Zarra edo forua ez dira besterik antxiñako legeak, usadioak, ekanduak, aske-aginduak, eta lege bereziak baiño eta oneik beti izan dira Jaunen aldetik (erregeak izan naiz izan ez) onartuak eta itzalez begiratuak.

Bizkai'ko Jauna izateko lege oneri eutsi eta barau zaintzeko zin egin bear zan. Gaztela'ko Erregeak beti egiten eben zin au Bilbao'n, eta Larrabetzu'n dan Gojko Eleizako San Emeterio ta Zeledonio'n, Bermeo'ko Eupeme Deunan eta Gernika'ko Andra Mari Zarraren eleizan. Azkenengo au izaten zan ziñik aunditsuena.

Lege Zar oneik lur laurako edo eleiz-ateetarako ziran balioko eta urjetan eta Orduña uri nagusian Errege-legeak eta eurak irasi ziranean ezarritako legeak ziran balioko.

Asieran Lege Zar au buruz eta berbaz jakiten zan baiña idatzi be egin ziran azkenean, 1.452n'ean foru zarra eta 1.526n.'ean foru barria. Foru barriaren idazleak Martin Saez de Naja'ren etxean batu ziran, Bilbao'tik kanpoan eta arin egin eben lana. Foru barri au Jaunerrian onartu eben eta gero Balladolid'en egoan Gaztela'ko Kontzeilluan eta Karlos Ienengoak emon eban irarteko baimena. 1.528'ean amaitu zan dana.

Batzar-Etxeko agiritegian dago 1.526n.urteko foruaren esku-idatzia, ale bakarra ta balio aundikoa, I Karlos Erregeak izenpetua, irarteko baimenagaz.

Zori txarrez, Lege Zar edo Foru guzti oneik beti idatzi izan dira erderaz. Oraintzu (1.981 n.'ean) Arabarra izan arren Bizkai'ko euskerea egiten dauan eta Oleta'ko Semea dan Puxana ta Agirregabiria'tar Pedro'k euskeratu dau azkenengo Foru-liburu au. Eskerrik beroena zor dautsagu abade on-zintzo oneri eta laguntzaille ona izan dauan Jose Estornes-Lasa'ri. Bizkai'tar guztiak irakurri bear leukee liburu aundi eta eder au.

## (VI) zuzendaritza

Batzar-Ertxearen Zuzen daritza edo Lendakaritza Bizkai'ko Aldun Nagusiarentzat da eta ez beste inorentzat. Or artzen dira Agintariak be. Goi-agiritokiari dau-tsola dago eta au egin ebenean agiritegiaren gela bat zan, ate-aurre antzera zugatza dagoan lekutik sartu ezkeru.

Barruan belio aundiko erti-lanak dagoz, onein artea Franco'ren margazki bat Angel Larroke margolariak 1973n.urtean egiña. Beste margazki eder bat Lekuo-na'tar Antonio M. <sup>a</sup>rena da 1,876n.urtean Ondarroa'n margotua. 1.874n.urtean, orrillaren 2n.egunean Bizkai'ko lurraldeen batzarragaz Vli Karlos erregegaiak Durango'n egin eban alkartzea da. Ederra baita, Berbizkunda adierazten dauan margazki bat XVI gizaldikoa eta egille izen-bakoarena. Emen dago baita "Fernando Katolikuaaren esku-muna egitea", Mendieta ospetsuaren laukia eta aurrerago Urrutia'tar Jose Ignazio margolariak 1.773n.urtean egindakoa txikiago biurtzen dauana.

Trueba'tar Antonio'ren burdin-orizko irudi bat be ba-dago. Trueba idazle entzutetsua da eta joan dan gizaldian Batzar-Etxe onetako edeslaria ta agirizaña izan zan.

Gernika un lez irasi zanetik VI eun-urtea zala-ta 1.966n.urtean zabaldu ziran domiñak be ikusi daitekez.

Lauki batek Gernika'ko Zugatzaren abar bat dauko. Au beste abar aundiago batetik II Isabel erregiñeak artu eban Bermeo'n 1.865n.urteko dagonillaren 26n.egunean eta erregiñeak berak emon eutson Aldun Nagusi zan Urkizu'tar Jose Nizeto'ri.

1.917n.urtean Bizkai'rako Loiola'ko Iñaki Deunaren jaia ezarteko Aita Santuak bialdu eban idazkia be or dago.

Iparragirre'tar Jose Maria'ren eskutiz bat be bai, Trueba'tar Antonio'ri idatzia eta ondoan Trueba'k berak 1.881 n.urtean idatzitako oarrak. Agiri au Batzar Etxe-rako emon eban Fernando M. <sup>a</sup> Castiella'k 1 [.964n.urtean, kanpo-errietarako ministro zala eta urte aretan Etxe onetan españatasunaren jaia ospatzen zalako.

1.860n.urtean Marruekos'ko Aginterriaren aurka izandako gudan Borondatez Bizkai'tik joan ziranen Tertzioak ekarri eban bandera'ko Bizkaia'ren ikurdia be or daukagu.

Azkenez, Bizkai'ko Lenengo Korrexidorea izan zan Gonzalo Moro'ren alabea zan Maria Lopez Moro'k Batzar-Etxe onetako ziñ-eleizearen babesletzari buruz 1.454n.urtean egindako agiri irakurgarri bat.

Amaitzeko, zer esan Sesmero Jaunak 1.975n.urtean egin eban idaz-lanean agertzen diran jakingarri onei buruz?

Gauza bat baiño ez. Gaur gauzak orrelan dagozan ez dakit, baiña edestia ezin ukatu: Gure areriorik aundienetarikoak ortxe agiri dira omenduta. Gure Lege Zarra bere erara ulertzen eban korrexikdorea, lege zarrak kentzea ontzat emon eban Isabel erregiñearen aritz-abarra, Franco gure zapaltzaille nagusiaren irudia eta zelako gauzak agertzen diran Batzar etxe onetan! Gure edestia, len eta orain, negargarria da gure euskaltasuna kentzeko gizaldien joanean egin diran alegiñai begiratu ezkeru. Erti-balioa or dago, agiriak dauken edesti balioa be bai baiña negargarrja or agertzen dana, Castiella'k emondako agiria barru dala.

Olantxe djra gauzak, baiña izanak izan, gure erria bizi da eta iñoz baiño biziago dago. Gernika'ko Araudiak ekarri dauan askatasuna ez da ain txarra izan, eskubide asko eskuratu doguz, baiña erriak geiago eskatzen dau. Jabetasuna

nai dau. Beste euskaldunakaz lenagotik izan dogun alkartasunerako iñoz izan ez dan Euskalerra Osoaren aginte bakarra ikusi gura dau. Or dago gaurko gure burruka. Or ikusten dogu betiko arerioak zelako alegiñak egiten dabezan elburu ori ez lortzeko. Larri-aldi aundi baten gagoz. Zelan amaituko ete da gatazka au. Txarrenean be ez daigun gogoia galdu: Erri bat iltea gauza gaitxa da eta Zugatz zarraren antzera ilten ba'da be, landara barriak bizi agertzen dira: Lagundu dagiogu Euskalerra maiteari, lagundu dagiogu gure Bizkaia maiteari.

## (VII) Batzar Nagusiak

Bizkaia Jaunerria, asieran, Konde-erri baten antzekoa zan eta 905n.urtean oraindiño Asturias'ko Erreñuagaz dauko ituna. Gero Naparroa'ko Santxo erregearen babespera sartu zan 1.076n.urtera arte eta urte onetan daukagu ziurra dan Bizkai'ko lenengo Jauna Iñigo Lopez "ezkerra" eta onegaz Gaztela'ko erreñuaren babespera sartu giñan. Orduko Bizkaia gaurkoaren irutik bat zan eta Uribe, Busturi ta Markiña Maiorin-lurra osotzen eben. 1.054n.urtean alkatu ziran orduko Bizkaia'gaz Enkarterriak eta geroago Durango' ko Maiorin-lurra.

Gaztela'ko VIII Alfonso'k 1.195n.urtean guda-bidez artu ebalako. Errege onek Durango-aldea 1.212n.urtean Bizkai'ko Jauna zan Diego Lopez de Haro II'ari emon eutson.

Asieran Bizkai'ko Batzar Nagusiak bizkaitar guztientzat ziran eta geroago erabagi zan Eleiz-ateak, uriak eta Uri Nagusiak Batzar oneitara ordezkariak bialtzea. Orretarako Bizkaia osoan turutak jotzen ziran, Kolutza, Gorbea, Ganekogorta Oiz eta Sollube mendietatik eta mendi oneitan deia agertzeko sua iziotuten zan. XVI gizalditik aurrera korrexidoreak errietara bialtzen eban deia, lengo deiak kendu barik. Deiaz batera bialtzen eban aztergaiak zeintzuk izango ziran.

Urte birik bein egin bear zan Batzar Nagusia, baiña iñoz urte baten barruan bat baiño geiago be egin zan aztergaiak arin ebatzi-bearrekoak ziralako.

### Ordezkarriak

Euren erriak emondako eskubide-agiria eskuan ebela etorten ziran ordezkariak. Aldundi Orokorra izaten zan Zuzendaria eta aldun Ordezkarri guztiak Gernika'ko Udal-Etxetik Zugazpera joaten ziran eta zarrenetatik asita urrengorik urrengora deitu egiten jaken. Au zan Foru-Deia. An euren agiriak izten ebezan mai bitan zugatzaren alde bietan, batean edo bestean, oiñaztarrak edo Ganboatarrak erria zein alderditakoa zan. Gero zin-eleizara sartzan ziran eta an Kapellauak Espiritu Santuaren mezea egiten eban. Gero eleizea itzi eta barrero egiten zan foru-deia eta ordezkariak banan sartzan ziran eleizara. Altarea errezelagaz estaltzen zan eta beste barik asten ziran Batzar Nagusiaren akiñaldiak, korrexidorak sarrerako itzaldia eginda. Jesarlekuak ez egozan izendatuta, "Erkiko aitenak" eta "Jaunerriko erixi emoilleenak" izan ezik. Oneik euren jesarleku bereziak eukerzan, altara-aurrean egoan Zuzendari-maiaren ondoan.

XIX gizaldiaren azken-erdira arte batzarretara ez ziran sartzan Jaunerriko agintariak eta Ordezkarriak baiño. Ez ziran sartzan ba leiñargiak, emakumeak, abadeak eta gualostekoak. Geroago onartu zan erritarrak sartzea eta neurriz. Iñoz artu dira batzarretan Araba eta Gipuzkoa'ren ordezkoak be, gaiak lurralde orreikaz zer-ikusia eukenean.

Batzar Ñagusiak parlamentu-antzekoak ziran ba, Bizkaitarrak osotuak eta Bizkai'rako legeak egiteko.

1.854n.urtera arte ez egoan barruko araudirik, oiturea zan naikoa, naizta 1.549n.urtean Gaztelako Errege-Batzordearen aginduz, "jokabidea, arauak eta egiterak" ezarriak izan Aldun Nagusiak, errexidorak, sindikoak, ertxi-emoilleak eta beste ardurak aukeratzeko. 1.868n.urtean idatzi zan barru-araudia.

Erriko Ordezkarria izateko baldintza batzuk bete bear ziran: adiña 25 urtetik gorakoa, Jaunerrian jaioa izan, leiñargia ta odol garbikoa zala ziurtatu, errietan egozan egokienak izan, Erromantze-izkuntza (gaztelera) jakin, ulertzeko eran jra-kurten eta idazten jakin, eta erriko ordezkari-tza-agiria ekarri. Lur-jabe ziranak baiño ezin zeitekezan joan. Erderea ez ekienak batzutan ez ebezan artu. Batzarretik atera ebezan 1.625n.urtean Berriatu, Ereño ta Muxika'ko ordezkariak.

## **Erakundea**

Ordezkarien almenak Batzorde batek aztertzen ebazan, Maiorin-alde bakoi-txetik bi eta almena argi ez egoanean ez zan onartzen.

Batzar Ñagusjetako izkuntza gaztelerea zan. Izkuntza orretan idatzi izan dira beti Bizkai'ko agiriak, Bizkai'ko Jauna zan erregearen eta korrexidorearen izkuntza zalako.

Korrexidorea ez zan iñoz be izaten Bizkai'koa lbero ibaiaren andiko aldekoa baiño, foruak agintzen eban lez. Dana dala, Batzar batzutan, XVIII gizaldiaren azkenerantza, erabagiak euskeratu egiten ziran, baiña orretarako agindu bereizirik barik.

Batzarrak asi ezkerro, batzorde bereiziaren esku izten ziran gaiak. Oneik egiten eben azterketa urte bi areitako arazoena eta euren eritxja agertzen eutsoen Batzar Nagusiarri eztabaidatzeko.

Batzar Ñagusian, izenak sakueta sartuta, arduradunak aukeratzten ziran: Aldun Nagusiak, errexidoreak, sindikoak, idazkariak, eritxi-emoilleak, Idazkaria, diru-zaiñak, eta beste arduradunak. Oneik ziran Jaunerriko eragilleak Aginte Nagusia izenagaz, eta onek 1.500n.urte-tik aurrera bere jokabidea eukan.

OLAZAR'tar Martin'ek



## Bizkai'ko 37 jaunen izenak eta urteak

1. <sup>a</sup> Iñigo Lopez "Ezkerra" .....	1040-1077
2. <sup>a</sup> Lope Iñiguez .....	1077-1093
3. <sup>a</sup> Djego López de Haro (I) .....	1093-1124
4. <sup>a</sup> Lope Díaz de Haro (I) .....	1124-1170
5. <sup>a</sup> Diego López de Haro (II) .....	1170-1214
6. <sup>a</sup> Lope Díaz de Haro (II) .....	1214-1236
7. <sup>a</sup> Diego López de Haro (III) .....	1236-1254
8. <sup>a</sup> Diego López de Haro (III) .....	1254-1288
9. <sup>a</sup> Diego López de Haro (IV) .....	1289-1289
10. <sup>a</sup> Gaztela'ko Enrike .....	1289-1295
11. <sup>a</sup> María Díaz de Haro-Juan .....	1310-1334
12. <sup>a</sup> Diego López de Haro (ez egokiona) .....	1295-1310
13. <sup>a</sup> Juan de Haro .....	1322-1326
14. <sup>a</sup> Gaztela'ko XI Alfonso .....	1334
15. <sup>a</sup> María Díaz de Haro (II), Juan Nuñez Lara. ....	1334-1349
16. <sup>a</sup> Nuño de Lara ta Díaz de Haro .....	1350-1352
17. <sup>a</sup> Juana Nuñez de Lara-Tello .....	1352-1359
18. <sup>a</sup> Gaztela'ko I Pedro .....	1358-1366
Tello Bizkai'ko Kondea .....	1366-1370
19. <sup>a</sup> Juana Manuel eta Gaztelako II Enrike .....	1369-1371
20. <sup>a</sup> Gaztela'ko I Juan .....	1371-1390
21. <sup>a</sup> Gastela'ko III Enrike .....	1390-1405
22. <sup>a</sup> Gaztela'ko II Juan .....	1405-1454
23. <sup>a</sup> Gastela'ko IV Enrike .....	1454-1474
24. <sup>a</sup> Isabel eta Fernando .....	1474-1504
25. <sup>a</sup> Gaztela'ko Juana ta Felipe .....	1504-1505
26. <sup>a</sup> I Karlos .....	1527
27. <sup>a</sup> II Felipe .....	1575
28. <sup>a</sup> III Felipe .....	1602
29. <sup>a</sup> IV Felipe .....	1621
30. <sup>a</sup> II Karlos .....	1667
31. <sup>a</sup> V Felipe .....	1702
32. <sup>a</sup> I Luis .....	1724
33. <sup>a</sup> VI Fernando .....	1751
34. <sup>a</sup> III Karlos .....	1770
35. <sup>a</sup> IV Karlos .....	1789
36. <sup>a</sup> VII Fernando .....	1814
37. <sup>a</sup> II Isabel .....	1839

# UDALEKO EUSKERA- TEKNIKARIAK ETA MENDEBALDEKO EUSKEREAA

(2000ko maiatzean)

Mendebalde onetako udalerrri askotan imini dira abian euskerearen normal-kuntza planak. Egitasmo orreek aurrera eroateko euskera teknikariaren irudia sortu bear izan dabe. Teknikariaren betebearrik nagusia euskerearen aldeko aaleginak ganoraz, arduraz, zentzuz eta eragingarritasunez bideratutea da.

Zer esanik ez da bear, udalerrriak daukan garrantziaz konturatuteko, erritarra-kandik urren dagoan eremua da-eta. Udalerrri euskaldunetan euskerea bizitzea-ren arlo guztietara zabaltzea da normalkuntza planaren elburu nagusia. Udalerrriak euskaldun izaten jarraitu daian laguntzea, atan be. Eta normalkuntza plan orren erdi-erdian euskera teknikaria dago, beraren motore.

Teknikariaren bear arlorik nagusienak urrengo oneetan laburtu leitekez:

- Udal administrazioa euskaldundutea.
- Erriko zerbitzu publikoak euskaldundutea.
- Izkuntza transmisinoari eusten lagundutea.
- Kalean euskerea erabiltera bultzatutea.
- Oiko erabilera eremuei eutsi eta eurok sendotutea.
- Erriko alkarteetan euskerea erabiltera bultzatutea.
- Erriko eskoletan euskerea erabiltera bultzatutea.
- Erriko merkataritza arloan euskerea erabiltera bultzatutea.
- Familia barruan euskerea erabiltera bultzatutea.
- Astaldi eta kirola arloetan euskerea erabiltera bultzatutea.
- Erriko toponimia birreskuratutea.
- Udaleko Euskera Zerbitzua zuzendutea.
- Euskerearen irakaskuntzea errian bultzatutea.

Ez da, ez, makala aren bearra! Betebearrok eurok dira, atan be, gure lurral-dean mendebaldeko euskereak udalerrri mailan bete bearko leukezan esparruak. Sarri askotan, agozko erabilereak beteten dauzan esparruak dira izan.

Mendebalde onetako errietan ainbat euskera teknikari edo zerbitzu dabil bea-rran. Geienek, ezjakintasunez, bildurrez edo, mendebaldeko, bertoko euskerea baztertuta darabile euren bearran. Eta orreri ez deritxot artez.

Aor dago, bada, Mendebalde Alkartearentzako postura andia. Euskerearen aldeko errietako normalkuntza plangintzetan mendebaldeko euskerea, goian aitatutako arloetan, bultzatutea. Au da, euskera teknikari orreei mendebaldeko euskerea normalkuntza plangintzetan garatuteko prestakuntza, laguntza eta aol-kularitza teknikoak eskaini eta emotea.

Oarra: Badira, ostera, udalerriren batzuk bide orretan ibiltzen asiak diranak, aurki. Begitu, osterantzean, ona: Abadiño, Amoroto, Arantzazu, Bakio, Bermeo, Igorre, Laudio, Meñaka, Orozko, Ubidea, Zamudio, Zeanuri eta Zeberio.

Iniaki Martiartu

# NAPARRO ETA FRANTZIAKO ERREINOA

Santxo VII Indartsua (eta Champagne'ko Etxea)

Santxo. ondorengo gabe il zan eta Naparro-erreinorako bere illoba Teobaldo, frantziar Cachampone-etxekoa, aukeratu zuten (1234-1253) eta aren ondoren Teobaldo II (1253-1279), Enrike I (1270-1274), Juana I (1274-1305). Juana seme-alabarik gabe il zanean, Naparroa'ko Korteak, ordezkok bialdu zituzten Frantzia'ra beste errege baten billa.

Frantzia'ko Etxea

Luis I aukeratu zuten Frantzia-etxekoa (1305-1316) eta Felipe II (1316-1332), Carlos I eta Juana II (1328-1349) Iruña'ko katedralean koroitu zituzten Naparroa'ko Errege Erregiña, baña aurra izatean il zan, ondoren auen seme Carlos II, Evreux-etxekoa aukeratu zuten (1349-1387) eta Juana de Valois, Frantzia-erregearen arrebarekin ezkontzen da. Eta Frantzia'ko erregiña izan nai du. Ingalaterra'ren laguntzarekin gerra egiten dio Frantzia'ri eta ingelesak Naparroa'n agertzen dira. Ori naikoa ez dala, naparrak Albania artzen dute beuren mende eta Grezia, kruzaden aitzakiakin. Erregiña iltzen da eta bereala Erregea. Aien ondoren.

Carlos III, Noblia, (1387-1425) Ñaparroa'ko Errege ete Evreux'ko Kondea (gero Nemours'ko kondea izango dana, alketa batengatik). Paris'era doa Leonor erregiña Naparroa'n utzita... Alaba Blanca Don Juan Aragoi'koarekin ezkondu eta Carlos aurra jaiotzen da, Carlos III'garrenaren billoba eta orrela ematen dio bere asiera

Aragoi'ko Etxeari

Carlos, Viana'ko Printzea, aukeratzen dute Naparroa'ko Korteak erregerako eta orduan Blanca bere amak egiten du Erregiña'ren lana. (1425-1441) Blanca iltzean, orduan, izango da errege bere senar Juan II Aragoi'koa (1441-1479), naiz eta erregiñak aulkia bere seme Carlos Viana'ko Printzeari laga. Au zan benetako erregea eta bere aitari soka luzeegia laga zion eta aizkenik, burruka sortu zan bien artean. Carlos printzea Naparroa laga eta kanpora joan zan bere ordezkoko D. Juan de Beaumont Kanzillerra utzita.

Juan II'garrenak Estella'n agramontes'en Korteak biltzen ditu eta berdin egiten du Beaumont jaunak Iruña'n. Estella'koak D. Juan eukeratzen dute errege eta Iruña'koak Viana'ko Printzea Carlos IV izenarekin. Paris'tik Sicilia'ra baztertuta zegoen Carlos... Mallorca'raiño etorri zan eta aitaren erreguz Barzelona'ra iritxi zan eta aita kartzelan sartu. Barzelona'n il zan eta susmoak badira aita pozoitu zuala semea.

Bere ordezkoko Erreinoan izendatu zuan Don Juan'ek bere alaba txikiena Leonor de Foix, Viana'ko Printzearen orde. Leonor ezkondata zegoen Gastón de Foix'erekin eta biok artu zuten Viana'ko Printzeak'en izena, Carlos'ena zana, onen Blanca beste arreba Orthez'en preso zegoela, il zanean 1464'an.

Leonor gelditu zan erregiñarenak egiten Carlos Viana'koaren lekuan, Don Juan bere aitaren aginduz. Aren seme Gaston de Foix, Gaston'en semea, Magdalena de Valois'erekin seme nagusia izan zuen Francisco izena zuena, eta El Febo (Eguzkia) gaitzizena bere edertasunagaitik. Bi Gaston du Foix dabilta emen tar-tean: bat aita eta bestea semea.

Gaston du Foix, semea, Bearne'an baztertuta eta noiz errege izango zai aspertuta, Naparroa'n sartzen da gudari frentzesakin eta Naparroa'ko zati aundi bat bereganatzen du. D. Juan, Erregea, bere alaba eta Gaston'en ama, Leonor'ekin alkartzten da Olite'n, Leonor'ek eramaten bait zuen Erregearen ordezkotasuna Naparroa'n.

Lerín'go kondeak (Beaumont) ez du onartzen aita-alabak Olite'n egiñiko ituna. Leonor'ek, Gaston'en amak, Iruña artu nai du... Anai arteko gerra (Beaumont-Agramont) sortuta dago, Leonor eta Lerin'go kondearen artean...

Gaston du Foix, Leonor'en senarra eta beste Gaston du Foix'en aita, il da eta emaztea Leonor uzten du bi seme-alabarekin, Francisco du Foix, El Febro, eta Catalina du Foix. Don Juan, Leonor'en aita ere iltzen da; baita Gastón gaztea ere, Leonor'en semea eta Magdalena de Valois'en senarra, 26 urterekin (1469-11-22) eta ama Leonor'ek artzen du Naparroa'ko Erreinoaren aulkia.

### **Foix'eko Etxea**

Leonor du Foix, Gaston'en emaztea eta beste Gaston'en ama izango da Naparroa'ko Erregiña 1479 urterarte. Bere ondoren aren illoba Francisco du Foix, El Febo, errege (1479-1483). Foix'tarrak (Pedro Elizaren kardenal eta bere anaiak) alegintzen dira Naparroa'ko anai-burruka baretzen, baña alperrik. Ori ikusita Erregeak, bere Korteia, Pau'ra (Bearne) eramaten du eta amasei urtekin il zan Pau'en. Anaiaren ordeiz, arreba erregiña, Catalina du Foix (1483-1517). Anaiéarteko gerra aurrera doa...

Catalina du Foix, erregiña, Juan de Albret'ekin ezkontzen da. Naparroa'ko errege berria Sevilla'ra dioa Fernando "Catolicoa" ikustera. Fernando eta Isabel, bere lengusiña, ezkontzen dira alkarrekin eta bat egiten dituzte Kastilla (Isabel) eta Aragoi (Fernando)... Jarraitzen du anai arteko burrukak Naparroa'n eta Erregeak Lerin'go Kondearen lurraldeak arrapatzen ditu. Eta orrekin pakea sortzen da Naparroa'n. Ez luzerako Kastilla'k Frantzia'ri gerra dala bien artean jakin-erazten dio eta aitzaki orrekin, Naparro'tik bidea eskatzen du Frantzia'ra. Ingalaterra'ko ontziak, Naparroa'ren alde, Pasai'ra etorrita daude. Kastilla'k Naparroa'ri bide zabala eskatu bakarrik ez, artu egiten du bidea Naparroa'n zear: Uztaillaren 21, urtea 1512. Naparroa Kastilla'ren mende Lerin'go Kondearen laguntzaz.

Aurretik gauzak onela zeuden:

Leon eta Kastillan, Isabel I / Aragoi'en, Fernando II.

Naparroa'n, Catalina du Foix eta Juan de Albret.

Fernando II eta Isabel I, alkarren lengusu-lengusiña ziran; alaz ere, alkarrekin ezkondu ziran eta orretarako Aita Santuaren baimena bear zuten. Erroma'ko agiri ori, Fernando eta bere aitak asmatutakoa dala, esaten dute zenbaitzuk.

Lerin'go Kondeak, Luis de Beaumont jaunak, eskeiñi zion bere laguntza Fernando'ri. Onek usten zuen Beaumont Frantzia'ren aldekoa izango zala, eta zearo puztu zan orrelako eskeintzak: aren uri esituak lagun izango zuelako.

1492'an bukatu zuten moroen kontrako burruka, Granada artzean eta andjk 20 urtera sartzen dira indarrez Naparroa'n Duke de Alba aintzindari zala. Juan de Albret eta Catalina du Foix, Iruña utzi eta Bearne'ra baztartzen dira. Uztaillaren

25'ean Kastilla'ko ikurriña Iruña'ko arresietatik zintzilik dago. Banan banan erri guztiak erortzen dira Kastilla'ren menpean. Eta bere eskuetan agertzen da "Pastoralis Ille Coelestis" Aita Santuaren Bula, agiria, Istoriagillerik ez da falta esango duenik, Fernando berak asmatutako Bula dala.

Fernando'k Iruña'ko Korteak beartzen ditu, bera Naparroa'ko errege bezela artzen. Bederatzi urte beranduago, Pirenee-bidetik gudaroste bat sartzen da Naparroa'n Foix, Bearne eta naparrak osatuta. Erririk erri Iruñe'ra datoz eta erriak beso-zabalik artzen ditu. Bertan gelditu bearrean, frantzesak aurrera jo nai dute Kastilla'ra Los Comuneros'en iraultza bat lertu dalako.

Comuneros'en arazoa nundik sortu zan:

Isabel I il zanean, Fernando'k erregetza bere alaba Juana, La Loca, Austria Etxeko Felipe I, El Hermoso'rekin eskonduta zegoen. Andik urte gutxitara, 1506'ean, il zan Felipe eta Fernando berriro erregetzara biurtu zan. Felipe eta Juana'ren semea zan Carlos I eta au eseriko da errege-aulkian (1517-1556) eta bi urte geroago ilko da Yuste'ko Monastegian (1558).

Umeetatik Flandes'en bizia, andik ekarri zjtun bere lagunak, erderaz ez zekite-nak, kargu guztientzako eta Korteak osatzeko... Arrazo; auek eta beste batzuek sortu-arazi zuten Los Comuneros'en iraultza Kastilla, Leon eta bete alde batzue-tan. Getaera auek eta Naparro'ko askatasunaren gudarostea, batera datoz. Eta frantzes buruzagiak, Iruña eta beste artutako errietan sendo sustartu gabe, nai-ago du aurrera jotzea Kastilla'ra Los Comuneros'en iraultzari esku bat ematera. Logroño artu nai dute aurrera baño lenen, baño uste baño indar aundiago ager-tu zuten aurka. Iraultzaille Comuneroak menperatuak izan ziran eta padilla, Bravo eta Maldonado buruzagiak eriotzara emanak... Eta, ondoren, frantzes-naparrak zapalduak Noain'en; gudoreste askatzaille onen buruzagia Andrés du Foiz, Señor de Caparrós, izan zan; gaztea, ausarta baño esperientzirik gabea.

Iles egin zuten Frantzia'ra, baño Amayur'en 200 gizaseme napar Agramonte'koak utz; zituzten Kastilla'ren erasoai aurpegi emateko; danak il ade eutsi zio-ten erriari; eta Kastilla'k oiñarrietaraiño txjkitu zuen Amayur eta arrezkero bere napar askatasunaren ikurriñ.

Karlos I, Enperadorea, Iruña'n sartu zan 1523'ren Urrillan.

## **Benabarra eta Frantzia'ko erreinoa Naparroa'ren Mendi-osteko Seigarren Merindadea**

Benabarra zan Naparroa'ren Seigarren Merindadea eta ara bildu ziran Catalina du Foix eta bere senarra Juan de Albert, Naparroa'ko errege-erregiñak. Duke de Alba, Kastillako erasoan buruzagia, alegin batzuek egin ondoren Benabarra menperatzeko, baño gauza eskasa eta gaitza zala ikustean, bertan beera utzi zuan ekintza ori.

Juan Albert il zanean, bere seme Enrique de Albert II eseri zan Benaparroa'ko errege-aulkian (1517-1555), eta Naparroa osoko Errege Izendatzen da. Lege-biltzarra antolatzen du Diru-etxea Saint-palais'en ereikitzen du eta Margarita de Angulema'rekin ezkontzen da. Bere ondorengo izango da.

Juana III de Albret (1555-1572), Antonio de Borbon'ekin ezkondua. Felipe II'garen aurkako gorrotoak eraman zuan bere burua protestante hugonote aitor-tzera. Aita Lizarraga'ri agindu zion Biblia euskeraz biurtzeko. Eliza katoliko eta bere elizkizunak apurtzen ditu. Beeko Naparroaren erregiñak Felipe II'garrenari Goiko Naparroa eskatzen dio ausardiz eta ez du ezertxo ere lortzen. Orduan

aldarrikatzen du Protestante biurtu dala. Eta bera izango da aurrerantzean Frantzia'ko Protestanteen eutsigarririk sendoena.

Bera senarra il zanetik aurrera, ez zuen beste lanik izan katolikoak zapaltzea baiño eta euskaldunetan anaiarteko guda zabaldu zuan. Katolikoak zanpatuta gelditu ziran; beuren eliza eta ermitak birrinduta, errietan apaizen ordeztante hugonote ministroak ezartzen ditu... Baña, alaz ere, Benabarrak katoliko izaten jarraitu zuen. Eta Erregiña'ren gorrotoa eriotzak itzaldtu zuen 1572'an.

### Borbon'ak Errege

Juana III erregiñaren ondoren bere semea dator, Enrike Borbon eta Albret (1572-1610): Naparroa'ko Enrike III eta Frantzia'ko Enrike IV.

Erreligio katolikoa berriztatzen du eta Margarita de Valois egiten du bere emazte. Valois'tarren aizken frutua. Enrike III de Valois Frantzia'ko erregea erailtzen du Pralle Dominikar batek eta aren ordezt, Enrike III, Naparroa'ko erregea, Margarita de Valois'en senarra, Enrike IV tituloakin. Orregaitik da Naparroa'ko Enrike III eta Frantzia'ko Enrike IV.

Errege naparra onekin (Enrike Borbon eta Albret) sartzen dira Frantzia'ko erregetzan Borbon'darrak; gobernuan 1830'arte irauñ zuten arte denbora guzian Frantzia'ko Iraultza eta Napoleon'en Inperio ez ezik.

Frantzia'ko errege-aulkira igo zan 1584'an.

Pau'en jaio eta Protestante ezi zuan bere amak. 1593'garren urtean katoliko biurtu zan, eta ondoren, 1594, egin zuen bere sarrera garaitsua Paris'en. (Berak esan ornen zuan au: "Paris'ek ondo merezi du meza bat").

Errege naparra Frantzia'ko Errege izatean, orduan Naparroa'ko Erreinoa (Benabarra) bat egiten du Frantzia'koarekin Naparroa'ko Enrike III ta Frantzia'ko Enrike IV Erregearen persona bakarrean. Errege bakar onek, bere amak bezela, Felipe II bigarrenari Goinaparroa'ren erreinoa ertsiki eskatzen dio.

Pireneetako errino txiki au da Enrike III-IV'rentzak gauzarik aundiena, Iruña'ko erreino txiki oneri itsatsita daude Foix, Armagnan, Comminges, Bigorre eta Maule'ko kondadoak; Limoges, Marsan, Nebouzan, Lautrec, Geraudan'go bizkondadoak eta azkenik Albret eta Bearne'ko estadauk.

Apirillaren 13'an, 1590, ez du nai iñolaz ere Naparra'ko erreinua Frantzia'rekin bat egiterik... Baña Paris'eko Parlamentuak erabaki au artzen du: Erregearen luraldeak eta Frantzia'renak bat egin bear dute, erregea ez bait da persona partikular bat, laterriaren Errege baizik.

Alaz ere, berak Naparroa'ko Lege-biltzarra eta beste arazo bereziak gorde-tzen ditu eta agindu bat ematen du uztaillan, 1607, bere 1590'ko asmoak agertuz esanaz Naparroa erreinu berezia dala eta Frantzia'tik alde nere buruan bakarrik uztaillan dana Frantzia'rekin!

Margarita de Valois ukatu eta María de Medicis'ekin ezkontzen da eta onek semea ematen dio ondorengo. 1610 urtean erailtzen dute eta bere emazte María de Medicis'en semea izango da ondorengo errege-aulkirako.

### Luis II Naparro'rako eta XII Frantzi'rako (1610-1643)

Bi erregetzak berezita artzen ditu; baña, 1620'ean, Urrian, bere gudariek in sartzen da Bearne'n, eta il orren 20'an indarrez Naparroa'ko Erreinoa eta Bearne, Donezan eta Andorra, bat egiten ditu danen Lege-biltzarra Pau errian ipiñiaz: ("Naparroa'ko Fuero eta baste libertada guztiak kendu barik; oiek nik gordeko ditudaz betirako").

Benabarra'k protesta bizia egiten du eta lau urtez agindua atzeratzea iristen du, Cardenal Richelieu agintari egite duten arte 1624'an. Benabarre eta Bearneko Agintaritzak bateratzen ditu, Pau errian izango dan "Naparroa'ko parlamento" batean. Alan be euren Lege-biltzarra, Kortès'en ordezkoa, gordetzen dute. Beti bezela Naparroa'n erregeek Fueroa onartu bear dute eta Fueroaren neurrian bere agintaritzak makartu.

"Orregaitik, emendijk aurrera ere bai, naiz-eta bi koroiak bat egin, beti aitortu bearko dute Benabarra, ez da Frantzia'ren erantsi bat, baizik eta Erreino berezia; orregaitik beuren izena izango da Frantzja eta Naparroa'ko Erregeak".

Luis, Naparroa'ko II eta Frantzia'ko XIII bederatzik urterekin egin zuten errege eta bere ama María de Medicis'en ardurapean egon zan... Bi koroiak bat egin zutenean, 1624, Kardenal Richelieu, Armando Juan du Plessis'en eskuetan utzi zuan erregetza. 1642'an iltzen da Kardenala, eta ondorengo 1643'an Erregea. Onen lekua artuko du bost urteko aurrak:

### **Luis Naparroa'ko III, eta Frantzia'ko XIV (1643-1715)**

María de Medicis, Erregearen amari gogoratu zioten naparrek Errege gazteak Benabarra'ra etorri bear zuela Fuero eta askatasun guziak berritatzera ziñ egiñez. Alaxen etorri zan, 17 urte geroago, 22 urte zituela Donibane Loitzun'era eta an ezkondu zan España'ko Erregearen alaba eta Carlos II'en arreba, María Teresa'rekin. Enrike eta María Teresa bikote onen billoba jzango da Felipe V, España'ko Erregea. Izendatze au dala medio sortu zan guda "Guerra de Sucesión" deritzana. Guda amaitu zan Utrech'eko Itunaren bidez. Itun orrek itzi zizkjen Ego-Euskalerrri'ko arrantzaleei Kanada eta Terranova'rako bideak.

Erregeari gogoratu zioten berriro etorri bear zuela Benaparroa'ra Fuero eta Askatasunak ziñatzera; Doniane Doitzun'era eldu eta an ziñatu zitun; baña, Benaparroa'ra ez zan agertu. Alaz ere, Benaparroa'ko erreinoa beste Frantzia'ko probintzietatik bereizten du. Bere ondoren etorri zan eregetzarako:

### **Luis, Naparroako IV eta Frantzia'ko XV'garrena (1715-1774)**

Ume txikia zan eta aurreko Erregearen billoba eta bere adiñera etorri arte (1715-1723) ordezkoen eskuetan egon zan Erreinoa eta bear ez diran aundikerietan eraman zuten aurrera. Ori eta guda nekegarriak bitartean direla, porrot egijn zuen Erri-diruak. Oker oiek zuzendu naiean, erriari izugarrizko zergak eta petxak ipiñi zizkieten bizkarrean. Bera, berriz, jostallu bat gertatu zan Pompadour Markesaren eskuetan. Eta, au ilda gero, okerrago oraindik Du Barry'ren Kondesarekin.

Ñaparrek eskatu zioten Fueroa ziñatzera etortzeko; baña, ez dakit juañ zan ala ez... Bere eriotzean, ondorengoai utzi zion egoera eutsi-eziña eta Erregeak eta Aundikiak gorroto zituen erri arlote bat.

### **Naparroa'ko Luis V eta Frantzia'ko XVI (1774-1792)**

Okerretik okerra, malkorretikimalkorrera, zijoan Laterriaren gurdia. Ibillera ori zuzendu naiean, Rechelieu'ren garaitik, (1624) itxita zegoen Lege-biltzarra irikitzen du. Iru Malla daude beregan: 1/ Apaiztegia, 2/ Nobliak, aundikiak eta 3/ Erria... 1.200 ordezko aukeratu zituzten eta Versailles'en bildu ziran Maiatzaren 5'ean, urtea 1789.

Billera ori izan zan Frantzia'ko Iraultza Nagusiaren azia. Lege-biltzarrak zoramen bero gartsua sortu zuan errian, Naparroa'n ez ezik, oitu bait zeuden Legebiltzarra izaten eta askatasunean bizitzen. Orregaitik naparrek, asiera asieratik, uko egin zioten Lege-biltzar orreri eta ez zuten euren ordezkorik bertara bialtzetik; Naparro'ko Erreinoa Frantzia'ko Erreinetik bereziki bizi bait zan.

Naparrak zirela eta ez zirela, makiña bat eztabaida izan da gero, Urrillaren 8'an, urte orretan bertan 1789, bost illebeta eta bost egun Lege-biltzarra sortu zuen egunetik, erabaki au artzen dute: emendik aurrera "Frantzia eta Naparroa'ko Erregea" izenaren ordeza, "Frantzes guztien Erregea" esango da eta kito. Naparren protestari kasorik egin gabe, Frantzes guztiek onartu zuten erabaki ori.

Urte orren Azaroaren 11'an, Frantzi osoa Departamentuetan zatitzen dute; guztiak berdiñak. Laburdi, Benaparroa, Zuberoa eta Bearne Departamentu bakar batean bilduko dira: Be-Pirenetako Departamentuan. Eta orrela dirau gaurko egunerarte. Naparrek asarre bizian protestaka ekin arren, urrengo urtearen (1790) Martzoaren 4'an biltzen da Be-Pirenetako Lege-biltzarra eta Naparroa'koa ez da geiago bilduko.

Une onetan iltzen dute, orain arte bizirik iraun duen, Naparroa'ko Erreinoa. Kastilla'k lortu ez zuena, Frantzia'k lortu.

Frantzia'ko iraultzailleak ez ziran asetu Naparroa'aren eriotza politikoarekin, eta eraso negargarri odoltsua asten dute euskaldun guztien aurka: errien eizena aldatu, elizak erre, apaizak eta prailleak aurretik eraman eriotzararte eta erri osoak euren etxetik atzerrira bota...

Iraultza igaro zan, Inperioa ere bai, lengo era zaarra berritu zan... Baña, ilda zegoen Naparroa'ko Fueroa, ori ez zan berritu; ori ez zan bizitu... llda datza oraindik ere. Betirako ote?

Fernando, Kastilla'ko Erregeak, Cisneros eta Alba'ko Dukea lagun, Naparroa menperatu zuten; baña, Seigarren Merindadea, Benabarra, aske gelditu zan eta an iraun zuan Naparroa'ko Erreinoa Frantzia'ko iraultzailleak il zuten arte. Alba'ko Dukea an izan arren bere gudarostearekin, alde egin zuen artatik defenditzen zaila zalako. Zailtasun orreri esker, lortu zuten askatasuna. Ara baztatu ziran naparroa'ko Errege Erregiña eta errege-familiekin izan zuten ar-emaneri esker, Frantzia'ko Erregeak, Naparroa'koak ere baziran. Baña, Iraultza Frantsezak desegin zuen Naparroa'ko Erreinoa, Frantzia'ko Departamentu baten zat; bihurturik.

Urte batzuek geroago Iraultza orrek, Cadiz'eko Constitucioa'ren bidez, España osoaren lurraldeak Probintzi izendatuko dituzte, guztiak berdiñak, lurraldetako Fuero guztiak, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Naparroa eta besteak, deseginda gero.

ARRINDA'tar Anes



# GURE KONTUAK, ARGI ETA GARBI

## O. ATARIKOA

Aurrena barka ezaidazue. Ñere gogoaren barruan ez bazegoen ere, Kontularitzaren berri eman baiño leen, Euskerazaintza-ko kideak neure burutxoaren aurkezpena egi-tera, onez onean, beartu naute, ni ez bait naiz emen beste gaiñontzeko euskerazai-ñak bezala aspaldjkoa. Dena dela, argibide au izen bedi "Atariko" onen bukaeran, okerrak zuzentzen, azaltzen denaren itzaurre gisa. Azken batean, or bait dago nere azalpenaren zergatia.

Labur-labur, bada, asi nadin egiteke orretan .

Euskaltzaletasuna betidandikoa izan det. Eta erarik errazenean. Donostia-n jaioa banaiz ere, gurasoak baserrikoak nituen. Gipuzkoarra, aija Luzio, Pagoeta magalean dagoen Aia erri zabalekoa. Ama Bizenta, berriz, naparra; Andia, Berian, San Migel eta Putterri mendien arteko Sakana lurraldeko Arbizu, erri argia orretakoa. Beraz, euskera ikasten en nuen lan aundirik izan, beraiek erdera oso gutxi bai; zekiten nere jaiotor-duan-1930gn. urtean, eta gure etxean, noski, euskera besterik ez nuen entzun. Eta era zaarreko euskaldun egin ninduten, euskaldun fededun, deiturikoa. Emaztea, Asun, Bizkai-koa det, Durangaldekoa, eta bizkaieraz berak, eta nik gipuzkeraz, ederki asko ulertzen degu elkar.

Euskera lantzen, auexek ditut ibilitako bideak: Donostia-ko Udalaren Euskal Mintzo eta itzunde Eskolan. Or ari nintzela irakaslearen aolkuz, Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketak egin nituen . Gero Itzultaile Eskolan. Eta iru ikastetxe orietako gaitasun agi-riak lortu nituen.

Iñaki Eizmendi-Basarri- (G.B.) jaunaren laguntza artzeko zoria ere izan nuen. Urte mordoxka batean, nere bertsojartze lana argitaratu egiten zidan "El Diario Vasco" egunkarjan, ain ezaguna izan zen "Ñere Bordatxotik" saillean. Urtero billera eder bat osatzen genuen Basarri-rekin, bere babesean ibiltzen giñen bertsojartzailleok, ain maite zuen bere opor-lekuan, Arantzazu-n. Eta orrela, Baserri-rekin mai inguruan bil-durik bertso ederrik entzuteko aukera bikaiñak izaten genituen

Ñere bizimodua berrogei urtetan zear Banku batean joan da. Or bete ditut nere lan-bideko eginbear guztiak. Orietatik erdiak zuzendaritza maillan. Eta berrogei urte Ban-kuaren zerbitzuan bete nituenean urrezko domiña jaso nuen.

Orain dela urte batzuk erri euskera lantzeko, Euskerazaintza-ko kide izateko auke-ra eman zidaten, eta nik pozik artu nuen dei ori. Ona zergatik: Euskerazaintza-n maixu aundi batzuren jakintzan murgildu nintzen- asko bizkaitarrak- Eta elkar-tearen barruan, nere bizitzako ardatzaren bi muturrak josi aal izan ditut:

Euskera, eta lanbidean izandakoak. Azken onetan Empresa Sailleko ikasketak, Bankarako egindako bereziak; eta Bankuan lanean artutako esperientzja. Euskera-zaintza-k elkarte den aldetik, beste betebearrak ere izaten bait ditu: Legezko Kontula-ritza, Eusko Jaurlaritza-ri eta Gipuzkoa-ko Foru Aldundia-ri dirulaguntzen kontu-xuri-penak eman, Araudia zaindu, e.a Eta ori guztia bazkide naizen aldetik borondatezko lanean, Euskerazaintza-k ez bait du ordaindutako langillerik; eta euskerazain bakoitzak ama izkuntzaren alde, beretik aal duen onena eskaintzen du.

Eta bukatzeko. Aurreko Aldizkarian (1999ko 45/46 zenb.) izandako bi okerren zuzenketa. Iratxoak, leen irarkoletan ibiltzen ornen ziren, orain batzutan, dirudienez, ordenaga;llueta.

Aldizkari orren 87gn. orrialdean, Liburu Gorriaren aurkezpena, Zornotza-n, nik egin nuela dio, eta ori ez da orrela. Bertako den Paulo Atutxa-k egin bait zuen, bizkaieraz, ondo baiño obeto.

Beraz, 88garrenean azaltzen diren izlariaren xeetasunak ere, ez dagozkit nerj, ez dute zer ikusirik nerekoarekin.

Oneraiño iritxi eta, utz ditzadan berriketak eta noan gaiaren arira.

Jarraiean, gure Kontularitzaren berri emango dizuet.

## TXOSTEÑAREÑ EDUKIA:

### A)- KOÑTUAK

A.1)-1999ko Kontuen balantzea

A.2)-1999ko Gastu eta dirusarreraren zerrenda

A.3)-2000ko Gastu eta dirusarreraren aurrekontua

### B)- ALDIZKARIARI BURUZKO OARRA

D)- 2000GÑ. URTEKO JARDUEREÑ AZALPEÑ XEA

E)- LEGEAREKIKO BETEKIZUÑAK

### B)- ALDIZKARIARI BURUZKO OARRA

1999an Aldizkariari dagokiolarik, 2 zenbaki argitaratu aal izan genituen.

2000gn. Aurrekontuaren arabera, bat besterik ez dugu argitaratzerik izango.

### ORI ZERGATIK?

Eusko Jaurilaritza-k eta Gipuzkoa-ko Foru Aldundia-k, ematen diguten dirulaguntza, baldintzapean izaten da, ez dago esan bearrik, eta baldintza orietako bat, Aurrekontuaren %30 geuretik, geure baliapidez lortzea da. Beraz, %30 lortze orrek mugatzen du eska dezakegun dirulaguntza

laz diru berezi bat jaso genuen, aurtan izango ez duguna. Eta orregatik beartuak izan gera gure Aurrekontua murriztera.

Dirusarrerak laguntzailleengandik jasotakoak izaten ditugu. Gure Araudiaren, 2gn. arauak onela dio: "Akademia onen eginkizuna ez da irabazpidetan izango". Eta dago-kigun larduera Ekonomikoen Zerga, 9669 zenbaki duena da. "Beste Kultur Zerbitzu Batzuk" Orren arabera, ezin dezakegu salketarik egin, ez bait gera Argialetxe.

ETA ERA ORRETAÑ EUSKERAZAIÑTZA-REÑ BARRUAÑ EZ DAGO ORDAIÑDUTAKO LAÑGILLERIK, BAZKIDE BAKOITZAK DAKIEÑETIK ML DEZAKEÑ OÑEÑA EMATEÑ DU.

ALDIZKARIA DOAIÑIK ZABALTZEÑ DUGU. ETA IRAKURLEEK, BEREÑ BOROÑDATEZ, BIDLITAKO DIRUA BESTERIK EZ DUGU JASOTZEÑ.

Aurrean dugun zenbaki au argitaratu aal izan dugu. Eta ez dugu etsi aurtan ere bigarrena argitaratzeko. Ikusi egin bear urtea nola dijoan gure finantzetan.

### D) 2000 gn.URTEKO JARDUEREÑ AZALPEÑ XEEA

1. EUSKAL ASTEA.. Euskal kultura lantzen. "Jesus Gaztañaga zenaren oroimenez. (ikus egitarau zeatza eraskiñean)

2. ILLEAN BEIÑ LAÑ BATZARRAK osatzen ditugu. Batzarkideen artean, Bizkaikoak eta Gipuzkoak izaten gera. Eta Lapurdiko baten lanak jasotzen ditugu. Eta bakoitzak egindakoak azaltzen ditu gaiak eztabaidatzeko. ALDIZKARIAÑ ARGITARATZEKOAK, ETA BESTE.

3. NAPARROAÑ ETA ERRIOXAÑ euskaltzale talde batzurekin arremanak dauzka-gu eta auei laguntzen saiatzen gera, ez bait dute erraza ango giroa.

4. BAZKIDE IDAZLEEK eskuartearen darabilkiten lanaren berri ematen digute. Beren lana aipatua dugu sarritan.

5. ILDAKO BAZKIDEEK eta oriek utzi ziguten lana aztertuz, ekitaldiak eratzen ditugu..

6. AZTERLANÑA. Gute bazkide Bixente Latiegi-k lan aundi bat ia burutua du. Elizaren istoria, 8 liburu marduletan. Orrez gain azterlana erabiltzen du eskuartearen: "Erdiaroko euskal izenen idazkera" eta Hueska-n euskeraren erabiltzeari buruzkoa.

7. Oroar gure lana, euskeraren sustraia, erri euskera zaintzea Azken aldian pixka bat baztertuxeak dauden EUSKALKIAK zaindurik. Beste joerei aurka egin gabe, gu geure ondar aletxoak euskeraren alde jartzen aalegintzen gera.

8. Eta aipatutako lan guztiori aal dugun nuerrian, geure neurritxoan. Mundu onetan lan guztietan dirua bear izaten baita da, asmoak burutzeko, eta GURE DIRUITURRIA EXKAXA da, kontularitzaren txostenean ikus dezakezuenez. Guk legearen arabera ezin dezakegu salketarik egin, eta ALDIZKARIA DOAIÑIK BAÑATZEN DUGU.

9. Beraz, aldizkariaren artzaileengandik beren borondatez bidalitako dirua jaso besterik ez dugu egiten. .

#### E) LEGEAREKIKOAK

Euskerazaintza-ren legezapena eta Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (Declarada de Utilidad Pública):

— Ministerio del Interior CS/CC Asociaciones. (B.O.E. 21.2-1981)

—Eusko Jaurlaritza-k 1984-5-21 Aginduan . Autonomia Elkarteak aginte eta zerbitzuek eskuratu zituenean (Traspaso de Competencias). Aitorpen bera Euskerazaintza-ren alde (1984-6-7 Euskal Euskal Erriko Aldizkari Ofizialean)

—Euskerazaintza-k Eusko Jaurlaritza-ko Elkarte Erroldan 1136 zenbakia du.

—Z.Ñ.A./C.I.F G.20/127.759 "Beste Kultur Zerbitzu Batzuk" atalari dagokion zerga.

Izendapen orien arabera burututako betekizunak

—Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapenak zerga onuren eskubide batzuk dauzka berekin. Ondoren aipatzen diren Aldundiko Foru Ogasunak ortarako ezarritako lege auetan: F/A 1995/5. F/D 121/1995 eta F/A 7/1996. Or eskatutakoak bete genituen, 1998ko Urtarrillean aurkeztutako txostenean.

—Lege orietan jasotako zerga onurak artzeko Legezko Kontularitza eraman bear da. Eta urtero gure kontularitza Merkataritza Erroldan (Registro Mercantil) aurkezten dugu legeztatzeko.

—Erri Zuduzkotasunari (Declarada de Utilidad Pública) eusteko urtero Eusko Jaur-larritza-ko Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Saileko Elkarte Erroldan, 5/1995 Foru Arauaren eta 30/1992 Legearen (49.1 atala) aginduz, Kontularitzari dagokion txostena.

—Eusko Jaurlaritza-ko eta Gipuzkoa-ko Foru Aldundiko Kultura Sailean, artutako dirulaguntzen kontu-xuripena. Kontularitza eta agiriak

JOXEMARI MURUA-K

# ESANAI ETA ITZ BERRIAK

Jakintza alorretan esanai eta itz berriak nola sortzen ditugun:

Jakintza berri eta egoki bat sortzeko baldintza batzuk bete bear genituzke aitzinetik:

- Izkerari dagokion asmamenaz sortu izana.

<sup>ha</sup> Adigarria izan.

^ Aal bestean laburtzua.

- Euskal itz baten esangura zabaltzekotan, iatorrizko esanguratik ez urruntzea.

^ lakinlariak asmatutako itz landuari ez orpoz orpo iarraitzea, ez itsutuki beintzat.

lakinlariak erbestean aritzeko araututako mintzabide berezia bearrezkotzat jotzen da; alaz guztiz, orrelako izen itzalkariak, grekeraz eta lateraz geienetan, uskaratuz argitzen ditugu.

Itz, esanai eta esamolde egokiak sortzea ez da aisa egiten. Asabak biribilki asmatzen zuten tokizenak dituzue erakusgarri—; gaurregun, ostera, gogoz ala gogoz gaindi, mintzabide ugari ditugu, eta erria bera ere uskaraz baino, erdaraz gero eta ikasiagoa.

Ni bezalako uskaldunberri kaskarraren erdakeriak ez eze, erdal asmaeraz ere gogoratzen eta oroitzen gara, uskaldunberri eta uskaldunzarrak arrontean. Ez gaitz irizteko noski, baiña biziren erabillera iardukigarria aipatuko nuke. Uskaldun ikasiok landareak bizizko jzakiak dirala esaten dugu, alabaina, aintzinako idazkietan *azi*, *bizi* eta il baino, *azi*, *egon* eta *igartu* aditzak agertzen dire<sup>1</sup>. Irauna dute beraz.

Esanai berriaken alorra iorratzeko urrengo lanabesak erabil genitzake:

1. Atzizkiaz eta aurrizkiaz:

atzizki eta aurrizki iztegi sakona, egiteke dugu. Uskara-Erdara iztegiak atzizki zerrendaz asi bear lukete.

*ari*, *-bide*, *-dun*, *-gal*, *-garri*, *-go*, *-ki*, *-kide*, *-kuntza*, *-(m)pen*, ... adituenak dira gaurregun itz berriaken artean,

*-dun*, *-garri* eta *-ki*, batez ere. Aukera urriegi ori zabal dezakegu nabarmenki<sup>2</sup>.

Bitxi batzuek ere aurki ditzakegu:

— Lokabe-atzizkiaz: *egi* [*ez egia ez apurra*]; *gailu*, *gatik*, *gatik*, *kera*; *keria*; *ketan*; tako [*takok deroat dodana neure etxerean zejara*]; *tariko* [etariko, atariko]; *tasun*[... *Jesusen bi tasun oriek*]; *tegi*, ...

<sup>1</sup> [zumitzaren egongia... (Alhabe)][egurki *au karetxetan* egoten da (Bizk.)] [*zenbat belar sendagarri eta osasungile egongo diran mendi oetan* (Iztueta)] [*eta zaiñik etzielakotz*, *eihartü ziren* (Axular)]; *tb*. Moglek, Peruren bidez, alper erabiltzen du: "*abe bizi*"- Azteko gaitasunak, au da, beurenez zaarberritzeko tasunak, landare eta abereak izaki zurrin eta gaietatik bereizten ditu.

<sup>2</sup> Atzizkiaken gordailua potoloa dugu, urrengoak bide nabarreko adibideak besterik ez dire: *-ez*-[eskantitu, ezkaitu, esmaratu, esmoil, ezleku, onez, jakinez, batez], *-ezkor* [in-, ilezkor], *-ezgarri* [in-, *janezgarri*], // *-ka* [txiki eta ugari tasunak: *ixterka*, *pitika*, *xixterka*, *zaizka*, *seska*, *lezka*, *arrauka*, *zorika*, *ogika*, *buruka*, *puxka*,...] // *-kar* [enseiukarre, leiakarre, *umekar*, *ilkar*, *oraindiñokarrean*,...] *garri'tik?*] // *-ketari* [*argiketari*, *janketari*] // *-kidin*, *-kiden* [aalbidea?...: *elastakidin*, *pagakidin*, *salkidin*, *ibilkidin*, *izankidin*, *eginkiden*, *jankiden*, *ikuskin...*] // *kuntze* [perímetro, espacio, sitio,...: *eskuntze*, *bordakuntze*, *etxekuntze*, *okkuntza*, *iturkuntza*, *emakuntza*,...] (ontzi, untzi'kin lotura?) // *-(d)ola* [antzekotasuna?: *gorrindo/a*, *ixpindo/a*, *mamola*, *txirrindo/a*, *gando/a*, ...] // *-tamu* (-muga?) [*egidamu*, *egitamu*, *egiramu*, *iltamu*, *urtamu*, *etziamu*, *-aramu*, *-damu*] // *-tze* [leentze, azkentze, ardilentza] // *-zaiki* [landarezko tresnaki?: *batzaiki*, *buruntzaki*, *burruntzaki*, *estzaiki*, *lotzaiki*, *lotzaki*, *putzaiki*, *zulatzaiki*,...].

- Adizki-atzizkiak: -dun (*que tiene*) [dirudun, bizidun, *astun*,...]; -dan, zen-, -dalako (*que es o existe, que fue o existió*) [betidanik, zendu, *oidalako, eztalakoan*,...]; -din, (*que deviene*...) [urdir?, *berdin, adin*,...]; -dariola, -eriola [*que fluye, -fero, -rrea*] (*sabeldario, eztieriola, berbaerio/a, ondariela, ...*); -dabil- (*que se mueve*...) [*dabilur, urdabil?*,...].

- Lokabe izen-adizkiak: duna, dina, dena, zena; datxikola, deutsana, *colindante*, dirudienezko, *aparente*; dagoeneko,...

2. Itxak elkartuz esanai berria sortuz.

antze-eman, esan-nai, noiz-nai, oin-arri, itz-egin, atze-izki, ikus-entzule, ... amaigabe dire

3. Iztegia sakonki begiztatuz:

Sarritan, burutasuna adierazteko uskarazko itz ugari izanagatik, erdal itza aukeratu oi dugu. Iztegi urritxoaz gain, egungo uskaldunaken asmabidean erdal eta uskal iztegiak ez dire elkarrengandik ongi bereizten.

Izkeraz izkera agertzen diren aldaketaxoak aberasgarriak dire berebat. Dean irabazi bear dugu: 1-olio= *aceite de oliva o aceituna*; 2-orio= *aceite no de oliva comestible o no*

1 -eragile= *promotor*; 2-eragila (Mitxelena)= *motor*.

4. Aantzitako itzak berreskuratuz:

lakintzari esker osin barrenetik berreskuratuz bizi berria diegula:

<i>oxi</i> =encender, <i>inflamar</i> = ixio, izeki <i>oxigeno gas</i> =	ixiokidin atsa; <i>nitrógeno gas</i> =	gatzukiden
<i>geno</i> =generar, <i>devenir</i> =-din, -kidin	arnaskia	atsa; etb.
	(lakakortaxarena)	gatzuatsa (lak.)

5. Geiegi bultzatu gabe uskal itzaren esanaia zabalduz: sastaga=/anza

Erdaraz noiznai esaten dugu: *chato, paragüero, paragüayo*, etb.: itxuratik edo, muxika mentu baten izen multzoa. Bide berean, uskaraz: muxika-talo, platuxa, xabalo,... esan ditzakegu.

Erdal itzetan oiñarrituta uskarazko esanaiak sortuz:

*vitamina, amina vital*= 1-bizamiño [bizigarri-amiño]; 2-bizamena [biztaamena (lakakortaxarena)]

Nire uste apalez, naiz eta jasoiña erdara zitekean, itxeari gure egiera ematen d;ogu. Izen txukunak dire.

Txineraz berdin egiten dute: *vitamina* = 1-*wéitaming* [*wéi*: mantener, guardar, preservar; *ta*: el, otro; *ming*: vida]; 2-*weishengsu* [*wéi*, mantener, etb.; *sheng*; dar a luz, nacer; crecer; verde, crudo; vida,...; *sü*: blanc; vegetal, legumbre].

Izkuntz guztiak dute, nonbait, eredurn bat.

7. Itz landua, grekeraz edo lateraz geinetan, uskarara itzez itz izuljz: petro/eum=arrorio; *automovil*=*berebil* (berez dabil)

Ez zaie idazlea iartzen, batzuk egokiak eta adigarriak izanagatik.

Uskalzale askok (Azkue, Mitxelena, L.M. Mujika,...), grekeraz eta lateraz asmatutako aurrizkiak: *pro-*, *anti-*, *trans-*, *super-*, *infra-*, *pluri-*, *proto-*,... uskaraz ordaiñak billatzen saiatu ziren, baita eredu aikingarriak eman ere. Ala ere, batzutan, antzeratuegiak geratzen dire; nik uste, uskarak berezko zidorrak ireki eta zabal litzake.

8. Itz nagiak: erdal izena abazko ebakieraz aldarazten:

*encuesta, enquête* = *inkesta* = iritziketa (iritzi-eske, eritxiketan, zer deritzola, irizketari, on deritzozu?, gaitz deritzozu?, zer deritzozu?,...)

Erdal itzak okertuz: *fronte, inkesta, telebista*..., uskaraz ez dute esanai berririk billatu nai. Ez da antzeratzeko egiera.

Erdaraz, batzutan, izkuntz amaren (Latera) itz baten esanai zaarra aaztuz geroz, berria eta arras zabala eransten zioten, eta zabaltasun gaitza orrekin itzultzea zailla da. Orixe gertatu zen, esaterako, *natura (nasci'tik*, jaio izana edo), *fruto (usufructo'tik*; gozamena), *cultura (colere, cultum'tik*; lurra artatu),... uskaraz, adiera nola, izadi, zitu eta -en artatzea izan litezkenak.

Iaponiarrek egiten duten antzera, eta geuk ere berdin biurtu gabekoekin, ongi bereizteko, oraingo batean artuak beste izki tankeraz ipiñiko nituzke nik. Dena den, obe da uskal izena asmartzea.

9. Itz naastekatuak: biodiversidad = bioaniztasuna = -en ugalmena; izapena. *Bio* "biziz" aldatu bearke lukete, ezperen. Ugariaren esanaiak, asko eta bestelako tasunak batu ditzake.

Gero eta geiago idazten diren antzekoak: ultra-ariña, *micro-uin*, *poli*-kiroldegi,... ez legatz ez traman, eragozteko litzake. Erdal aurizki okenzat emandako uskal ereduak erabili edo asmatu egokiren bat.

Txineraren eta Iaponieraren begiz begiko iarrerak:

Uskara bezala ez dira indoeuropearrak. Biek iaso andiko izkuntzak dire, txinera batik bat.

- Txinerak ez du atzerriko itza artzen, adiera baizik. Betiko itz labur eta iatorrekin adierazten dituzte asmakuntza berri guztiak.

- Iaponierak bestelako iaiera du. Askotan, txinerarenak ez beste izkuntz guztiyeken itzak eraldatuz, ez dute Iaponieraz esanai berria billatzen, ala eta guztiz, batezteko, ez dute berdin idazten.

Ona emen leen aipatutako *az*- itz oiñakin izengai batzuk.

- Azgai [az-gai], *bionte (bio-+-onte)=bizi-+dena= ser viviente*, bizidun, bizizko azkai, azkei, askai, askei, animal crecedero, que promete crecer, propenso a crecer; para criar (cebón); cosa de crecer; aspirante a crecer (idea de futuro), apto para crecer (nutrir, criar, educar,...); estampa o constitución de un animal o persona (B) (askai, askei); crecimiento (azkei); retoño de bulbo (tipulazkai),...

- Azgai pitika, *micro organismo*.

- Azpillu, Azkubil (Iak.), *célula, cito-* (uts-gune, aska, gela,...) / Aspillu (Azkue), ojos del pan, queso,...

- Azoin [az-oin], *gen* (sor-, di-) / Asoin, cimientos, plantío; Jasoin, cimientos, Oiñarri, Zurtoin, Lezoin, Buhoin, Lerroin, ... / (Iak.) sortizantza.

*Gen(e)*: *gen* Indoeuropear itz oin sortuenetako bat da [ortik *genus, generar, natura,...*], grekeraz: *gna*, Sanskritoz: *jan*. Uskaraz sor itz-oiñarri legozkio, bai eta edin aditzari ere.

- Kopurazoin, Kopuraoin [ko(r)pura-azoin], *cromosoma (cromo*: margo+soma: -ki, kor-,...)/ (Iak.), azkubillazkune.

Korporatu, Purpuratu (BNhaz),... multiplicarse por reproducción, Purpurikatu (L), llenarse de frutos un árbol; Purpuratu (BNhaz); Kopuratu (G), aumentar, sumar; Kopuru (B, G), suma, número total, cantidad, cosecha, recolección, capital; Pupilukatu (R); Brokatu (BN), Porrokatu (L), Kupuru (AN), colmado,...

- Azkin [az-kin], *proteína (ser el primero'tik datorke)* / azkin (S), alimento,... / (Iak.), Zuringokin (*albúmina'tik*) / orioki, koipe, *lípid*o, goxaki (Iak.), *glúc*ido, arnoki (Iak.), *alcohol*.

- Azkuntza [az-kuntza], *nutrición (alimento esanaiatik)* / Bizigarri, -gaillu, *nutriente animal*; Ongarri, -gaillu, *nutriente vegetal*.

- Azketa [az-keta], metabolismo (*transformar esanaiatik*) / Irabazketa [irabazi-azketa], *anabolismo, asimilación por el organismo*; Irulazketa [iraul / irazi -azketa], *catabolismo, desasimilación*

- Azketa eragille, *enzima metabólico*
  - Azkuntze [az-kuntze], Azitoki, *biotopo* (*bio-*, *bizi-*; *-topo-*, leku, toki, une,...)
  - / -kuntze (aezk,...) sitio, superficie, perímetro
  - Azterri [az-erri], *bio-región* / Azterri (Azkue): lugar en que uno ha sido mantenido, lugar de desarrollo, lugar de origen
- Erabilleraren bi eredu xume: a- sortzapenetik datorren eritasuna; b- sagarrondoaren sailkapena
- a. arbasoaken ariatik eta gurasoaken aziatik, au da odolbidetik, datorken azoin erie (*enfermedad genética*)

AZOIN errenbela <sup>H</sup> AZKETA ERABILE ---> SOIN nokua  
kopurazoin errenbela

*gene (o cromosoma) defectuoso enzima metabólico defecto o enfermedad hereditaria reflejada en soma*

T

ezgaitasuna

b. sagarrondoren sailkapena:

Landare sailkapenaren atzizki bitxiak, lateraz eta grekeraz, egia esan, ez digute deus argitzen. Uskaraz aise antzatu ditzakegunak iru dire: 1- Azkazi (*Familia*): Larrosazia; Masustabeazia; Lerrazia; 2- Kunte (*Genus*): Sagartze; Masustabe; Lerratze;... 3- Melga (*Species*): Sagarrondo; Masustabe baltza; Lerrondo baltza, etb.

Sagarrondoa sailkatzeko asierako bost aukera:

1- argiketaria: argibilla eta argiaz azten elako (*autótrofo*); 2- qunegaiena: azpilluetan gune ziñak dituelako (*eukaryota*), beraz, landare gaillena da (*planta superior o evolucionada*); 3- azi-landarea: aziaz sorturik (*Spermatophyta*); 4- ezkutu-azia: leen aipatu dugun azia potoin barnean gerizaturik zegoelako (*Angiosperma*); 5- oziosto bikuna: aziak bota zuen bi ostodun ozitik datorrelako (*Dicotyledoneae*)

- "Erdera-Euskera Iztegi", Txomin lakakortaxarena, Editorial Ekin, Buenos Aires, 1964

[atzizki eta aurizkiaken asimasiak ikasteko]

- "Erlezaintza I eta II", Txomin lakakortaxarena, Kardaberaz bilduma

[lakintza gaietan itz berri asko dakar]

- "Nombre y verbo en la etimología vasca", Luis Michelena, F.L.V.

[-din atzizkiaz]

- "Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz", Euskera 1959

[esaten du: Iztegi-saillean ezta bidezko itz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere itzena erabidean izkuntzaren joerak gordeaz... *En el terreno del léxico o vocabulario no se debe recurrir a términos inventados o de forja más que cuando no haya otro remedio, y aun entonces cuidando que la formación se ajuste a la índole y exigencias de la lengua...*]. Garaiaren araberako iritzi motza eta zorrotza erakusten du]

- "Ata Plazido Mujikak esan digu", Luis Michelena, Egan 1957 eta Koldo Mitxelenaren Euskal idazlan guztiak I, 1988

Mujikak esaten digu: "Noiz artuko edo sortuko ditugu, ordea, itz berriak teknika-gaietan eta bestetan ere? Ona emen nere iritzia:

a) Euskarazko itz berria euskaldunek kanpoko itza baiño errexago ulertzen dutenean. Adibidez *rizófago*, *antropófago*, e.a. esan bearrean, erro-jale, giza-jale,

e.a, esango nuke; eta orrelatsu... beste itz askotan ere... *burnibide, berezibilla, igoteko,*...

b) Erri xeeak itz berria zearo ez ulertu arren, gejena beintzat edo i guztia ulertzen badu, batez ere itz berria errian sartu bada. Adibidez, *telefono* euskaraz urrutizkin esango nuke. Itz ori zerbait sartu zitzaigun, erri xeeak gainera errez ulertzen ditu itz berr; orren zati geienak. Orrelako itzei ez diegu ukatuko beren tokitxoa gure iztegian.

c) Itz berriak ordea erriarentzat oso zailak direnean, zokora botako ditut eta erdarazkoa artu. Adibidez, txauneskiña esan bearrean, *organua* esango dut "ñongo lotsarik gabe" [Mujikaren ikuspegia aurrekoa baino zentzuzkoagoa da. Alor onetan Mitxelenak iritzi bera zuela uste dut]

ARIZABALO'tar Patxl'k

# EUSKEREA TA ASMALARITZA

## 2.000 KO OTSAILA'REN 21 AN GINTZA-ASMALARIEN ALKAR- GOAN ZUBIRI'TAR IÑAKI'K EMONDAKO ITZALDIA

Nire lagun ona dan Bizente Endeiza'k, alkargo onetako Euskal Kulturaren Arduradunak, lengo baten etxe onetan itzaldi bat emon nengian eskatu eustan, eta pozik izan be, eskakizuna onartu neutsan. Gaia nire aukerakoa izango litzake, au da, askatasun osoa izango neuke nire burubideak adierazoteko, eta auxe izan zan autatu neban mintzagaia:

### Euskerea ta gintza-asmalaritza

Itzaldia, ain txokoratua ta ezetsia dan gure bizkaieraz izango litzake, eta gaia, asmalar;ok teknikaren aldetik erabilli bear dogun iztegia. Jakiña, gai au oso zabala dan ezkeru, nire eritxi edo iruzkiñak irazekoak izango litzakez, oiñarrizko arau batzuk soillik ukutuz. Eta sarbide antzera au esanda, noakion nire itzaldiko mamiña garatzera.

Orain ogei ta bi urte gitxi gora-beera, erakunde onetako batzar baten, elkargo onen euskal izenari buruz batzar bat ospatzeko zan, eta onen aurretik, lendakariari nire ikuspegiak bialdu neutsazan.

### Asociacion de ingenieros industriales de Vizcaya

Euskeraz esateko, orduko batzordeak auxe eskeintzen eban:

### Bizkaiko Industri Ingeniaren Elkarte

Nire idazkian zapuzten neban gogor, eskeiñitako izendapena, euskeraren aur-



kakoa zalako eta onetaraxe azaltzen neutsan nire burubidea:

Industri ez da euskal itza. Berba au adierazoteko, 1.936 urtean sortutako Eusko Jaurlaritzak, "Gintza" euskal berba jatorra erabilten eban, eta gaiñera edo-zeiñek ulertu egikeana zan.

"INGENIARI" itza erdal utsa da baita be. Alkargoaren lendakariari igorritako idazkian, gure langintzaren bereiztasuna, sortzea edo asmatzea dala onartzen ba'dogu, neuk "ASMALARI" itz jatorra aurkezten neban. Beraz, nik izendapen auxe eskeintzen neutsan,

## Bizkai'ko Gintza - Asmalarien Elkargoa

Nire burubideak, baiña, utsera jo eban, eta erderakadak jaun eta jabe billakatu dira. Gero ikusi dot ELKARGO OFIZIALA eratsi dabela. Ez litzakean askozaz benetakoa izango, LEGEZKO ELKARGOA ipiñi...?

Gaur egun, au da leku guztietan ikusi daiteken euskerarekiko kaltea. Euskal itz jator asko ta errazak doguz, baiña arein ordez amaika erderakada ganorabakoak darabilguz, gure euskerea askotan alperriko erdalkeri biurtuz. Izan gaitezen euskera jator eta garbiaren maitaleak, eta gure berbetea zitaldu bearrean goraldudagigun.

Alor onetan, baiña, ez gaitezen zorrotzegiak izan, au da, ertzekoegiak (extremistas). Gure euskereak guztien maitasuna ta ardurea bear dauz, eta oroz gain jokatu dagigun zentzunez, euskerea kultur-maillara biurtu nai ba'dogu. Ez dagigun geiegikeriz erabilli, oraindiño auskorra dalako. Geisorik dagoan izkuntzaren antzera erabilli dagigun, baiña oroz gaññetik maitasunez eta ardurarik andienaz.

Nik, euskerara itzultzeko, oiñarri oneik eskeiñiko neuskizuez:

1. Euskal itz ezaguna dagoanean, orixe erabilli.
2. Zure euskalkian itzik ez ba'litz, baiña bai ingurukoetan, oneik artu.
3. Iñongo euskeraz ori adierazoteko itzik ez ba'lego, asmatu egizu, euskerearen legeari jarraituz.
4. Edozelan be, ori zailla gertatuko ba'litz, orduan erderatik artu, euskal itxura emonez.
5. Beti eskura erabilli Azkue'ren eta Plazido Mujika'ren iztegiak.

Eta orain ikusi dagigun zelan esan geinken asmalaritzari dagokiozan itzen zerrenda bat.

Asi baiño len esan bear dautsuet, doitxerak eta euskerak egituraz antz andia dabela, eta on litzakigu askotan doitxeraren gaitasuna ezagutzea teknika itzak sortzeko. Eta au esanda, ekiogun nire ustez asmalariok zelan sortu dagikegun bearreko iztegi bat. Jakiña, oraingo saio au ezin daiteke zabala izan, baiña eredutzat artu daiteke.

Abrazadera = Bezarki; Abrasión = Igaketa; Acanalar = Ozkatu; Acelerar = Ariñagotu; Adaptar = Doitu; Alinear = Lerrotu; Línea recta = Zuzenki; Altavoz = Ozenkin; Anemómetro = Aizeneurkin; Angulo = Txoko; Apisonadora = Alper; Ariete = Ariburu; Atornillar = Biurritu; Bosquejo - Marrazki arin; Cable = Unama; Funicular = Unamagurdj; Cabele eléctrico = Tximist-unama; Capacidad = Kokamen; Central eléctrica = Tximist-indartegi; Centrifugo = Kanporakoi; Centrípeto = Barrurakoi; Cojinete de agujas = Orratz-irristikin; Cojinete de anillos = Erestun-

irristikin; Cojinete de bolas = Pirla-irristikin; Convexo = konkor; Cóncavo = Sakon; Crisol = Arrago; Curva = Okerki; Descarrilar = Bidegaldu; Destilar = Lurrindu; Condensar = Urtu; Desatornillar = Biurrigabetu; Diámetro = Kaizu; Dinámica = Indarrizti; Elástico = Lenerakor; Enbolo = Txinbo; Enchufe = Giltz; Enchufe eléctrico = Tximist-giltz; Engranar = Ozkatu; Estandarizar = Arautu; Filtrar = Irazi; Flexible = Malgu; Gravitación = erakar-indar; Hidráulica = Ur-izti; Inducir = Eragin; Inflar = Puztu; Infrarrojo = Gorri azpiko; Interruptor = Etenkin; Inyectar = Ziztatu; Laboratorio = Saiotegi; Laminar = letzi; Lima = Karraka; Lingote = Tortxo; Lanta = Ugal; Magnetismo = Otantza; Magnetizar = Otandu; Maleable = lezkoi; Manómetro = Zapaneurkin; Mineral = Meazgai; Obtuso = Kamuts; Octógono = Zortzi-zoko; Oleoducto = Oriobide; Optica = Argizti; Orbita = Ibilte-une; Pararrayos = Tximist-orratz; Perno = Ziri; Perpendicular = Zutiko; Piloto = Erabillari; Polarizar = Erakarri; Polea = Txirrita; Ranura = Ozka; Rebarba = Bizarki; Recuperar = Leneratu; Refractorio = Su-aurkako; Saturar = Asetu; Supersónico = Ots-gaiñeko; Torno = Bilgin; Transformador = Tximist-aldatzaille;

Orain ikusi dagigun doitzereari itxuratuz zelan sortu dagikeguzan itz barriak.

Gazteleraz	Doitxeraz	Euskeraz
Alternador	Wechselstrommaschine	Tximist-aldakin
Aerodinámico	Fortschrittlich	Jarraikorra
Caloría	Warmeinheit	Bero-batasun
Cortocircuito	Kurzschluss	Bidelabur
Cremallera	Zahntrieb	Ortz-eragille
Resonancia	Widerhallend	Aitzi-ots
Sedimento	Bodensätze	Azpi-ondakin
Sinóptico	Übersichtlich	Oro-ikuspen
Ñonio	Wielseitig	Alde-askodun
Radar	Funkmessverfahren	Irrati-azterkin

Ekiogun orain eskerearen egoereari.

Euskaltzaindia, edo euskeraren gure akademia, euskal aldundien eragintzaz 1.919 urtean sortu zan. Aren lenengotariko arazoa idazkeraren legeak oiñarritzea izan zan, eta abo batez Arana Goir;<sup>1</sup>k sortutako idaz-legeetan jarri izan zan. Arrezkero, ez genduan iñongo eztabaidarik idazkereari buruz, eta berrogeitak urteetan zear, idazkera erraz eta zentzudun orretan, gure euskera bideak ildokatzen asi zan. Jakiña, iparreko euskalkiek H'a oguzten edo aboskatzen ebenek izki ori erabilten jarraitu eben, euskaldun guztien begirunez, ots bakoitzari ikur bat egokitu bear yakon legeari jarraituz.

1.936'eko matxinadearen ostean etorri yakun zapalkuntzearen ondorioz, gure Euskaltzaindia biziera larri ta illuna jasaten asi zan, Azkue aztu-eziñaren lendakartzapean. Eta bera bakarrik, lagun bakan batzuen laguntzaz, esaterako Nazario Oleaga'renaz aal eben lez eskerearen eusletzat jarraitu eben. Abade jakintsu onen alde esan dagikeguna beti labur geratuko da, eskerearen alde berak egin-dakoa erraldoi baten aalegiña izan zalako.

1.960 inguruko urteetan, Euskaltzaindiaren inguruan bide "aurrerakoiak" zabaldu bide ziran, eskerearen batasuna eskatzen ebela, eta batasun ori lortzeko, Axular'en "Gero" liburua eredutzat ipinten zala. Aita Villasante zan orduko Euskaltzaindiaren lendakaria. Nik ez dot ezbaian ipiñiko Axular'en goratsuna,

baña benetan esan bear dot, latiñean murgildutako aldi areitako abadearen euskerea erderakadaz beterik egoala, eta argi agertzen da berak erabilitako joskerea latiñean oiñarritzen zala. Aita Villasante'k eta bere inguruko "aurrerakoi" batzuk, "Gero" odeietaraiño goratuz, onen euskerea eredutzat jarri eben, eta "Batasunaren Kutxa" idororik, Benabarra'ko abadearen euskerea "El Batuaren" oiñarriztat eskeiñi euskuen, eta %92 euskaldunek oguzten ez daben H'z gure iskuntza bete eben. Nik ez dakit "El Batua"ren H'rekiko maiztasuna, baiña gaztelearen 5 bidar geiago agertzen dala baietz esango neuke.

Eta gitxi bai'litzan, ain jatorrak diran%90 euskaldunen arteko ñ ta II kendu bear zirala erabagi eben euskeraz jabetu ziran jakintsuek, eta iparreko euskalkietan erabilten ez diran ñ ta II, bein betiko Euzkadi osoan kentzea erabagi eben, eta olan, "Mutilla-mutjla" "Otsaila-Otsaila" "Ibilli-ibili" "Eragille-eragile" "Okillaso-okillaso" "Ojillo-oilo" "Oillar-ojlar" "Illun-ilun" etabar idazten beartu ginduezan. Ñ'ri buruzkoa ona emen eredu batzuk; "Baña-baina" "Oraiña-oraina" "Eziña-ezina" "Ugiña-ugina" "Argiña-argina" "Okiña-okina" etabar.

Asiera baten H'ren burubagekeria "begi onez" erabili bearko zala esaten eben, baiña bai zera...! Neurritasun izun au bortxakeri zentzunbakoa biurtu zan, eta kontuz...! H ganorabako ori eurok agindutako lekuan ea maiztasunez erabilten ez ba'dozu, zureak egin dau. Ez uste, iñongo euskal leiaketan H zentzunbako ori jarri nai ez ba'dozu, saririk lortzeko eskubiderik izango dozunik. Zure lana irakurri barik saskira botako dabe,

Eta au gitxi bai'litzan, Arana Goirj'k berak sortutako alderdiak bere maisuaren irakaspen argiak zaramara bota, eta oraingo bidegabekerira adorerik andienaz aldatu da... Negar egitekoa da, baiña beste alderdiak be, Eusko Alkartasunak esaterako bide ori artu dau, eta zelan ez, iraultzaren eredu bizia dan Herri Batasunak be, sutsu onartu dau gure izkuntzarekiko ergelkeri esan-ezin ori. Batuaren alorrean ez dozu euskera onik aurkituko, baiña onetan peitzen yakona, H'ak aseteraiño eskeiñiko dautsuez. Azkenean, gure izkuntzaren basakeri ori ikustean, norberak uste bear dau, alperriko H ori politikerez ikurtzat artu izan dala. Nora billakatu da euskaldunen zentzun argia...?

Eta orrezaz gaiñera, euskereaz jabetu diranak gure bizkaiera ederra ta aberatsa eriotzera galdu dabe, eta orren orde euskal mordoillo bat jarri dauskue. Askotan, ainbeste erderakadaz eta joskera txarraz beteriko asmakeri ori, latinke-ri barri bat sortu ez ete daben, gura buruari itauntzen dautsagu. Ona emen adibidez, parrastaka erabiltzen dabezan eredu batzuk: "nazionala" "espero" "gonbidatu" "independentzia" "frogatu" "bulego" "greba" "eskola publikoa" "orkestra sinfonikoa" "abantaila" "Unibertsitatea" "aireportua" etabar. Ez uste, au geiegikeria danik, oneitariko erderakadakaz gure bazterrak eta erri-erakundeak josita ikusi daitekez. Eta erdalkeri onein aurka zeezer esan bearko leukienak, ixil eta mutuak jarraitzen dabe euren Olinpo'ko pakean eta anditasunean.

Eta ainbeste bidebagekeriaren aurka, gure Bizkaierak eriotzera galduta jarraitzen dau, ez dakigu noizarte. Gure mintegiak diran ikastoletatik baztertua da minbizi bat bai'litzan, bizirik jarraitzeko eskubidea ukatuta. Eurok, euskeraz jabetu diranak, ez dabela ezer egiten Euskalkiri janaria ukatzea erailketa bat da, eta orixe da bizkaiereaz urteetan zear egiten diarduena. Bizkai'ko gure berbete ederra ta aberatsak gosez ilten jarraitzen dau, eta etenbarik gure didarrak jaurti arren be, basamortuan aldarrikatuak bai'litzazan gertatzen dira. Gaur egun, gure errialdeko baserritarrek eta ikastola baten azten diran neska-mutikoez ez dabe alkarulterik, eta geienetan erderara jotzen dabe. Lengo aldietan euskal umeak naita-ez erderaz azten ziran, eta noizbait gure izkuntzaren etorkia gure eskuetan

dagoanean, bizkaitarren diruak gurea ez dan mordoillokeri bat ikastera beartuak dira. Barriro be esan bear dogu, euskerearen erabiltea negar egiteko dala.

Uste dozue, baiña, Bizkai'ko gure agintariak eta erakundeak itxartuten diranik...? Bai zera...! Ez dozue besterik, gure Foru Aldundiaren eta Udalen mezu-bideak aztertu baiño, ulertzen ez dogun izkuntzakeri batez itz agiten dauskuela ikusteko. Jakiña, H asko erabilliko dabe, eta jakiñaren gaiñean izateko, erderara jo egin bearo dogu. Bai, diru asko ta aalegin andiak alperrik galduta, gure euskeraren ondapenerako.

Eta gaur, itzaldi onek damostan abagunea ustiatuz, zuei gintza-asmalariai didar bat jaurtiten dautsuet, aalmen guztiak ipiñi dagizuezan gure euskera erioztetik atarateko.

Arbasoakandik arri-arotik garatu zan izkuntz bardinbage bat yarauntsi dogu, eta eurakanako saldukeria izango litzake, eta gaurko euskaldunentzat galpen neurribakoa, eunurteetan zear eta eragozpen guztien aurka iraundako gure arimaren zati orreri uko egingo ba'geunskio. Bizkaieraz elerti eder bat itz leunetan eta olerkitan zabaldu da; ez dot aren egilleen izenik aipatuko, lan labur onetan orretarako lekurik ez dago-ta, baiña zuek gogoan izango dozue ainbat eta ainbat idazle ta olerkari.

Eta euskaldun guztien artean gure izkuntza edertu ta zabaldu bear dogunean, euskera maite ta eder bat garatzeko, guretariko euskalki bat erioztzera galtzea ergelkeri parkaeziña da. Gure bizkaiera ederra bere baitan aberastasun andikoa da garatu bear dogun Euzkadj'ko mintzaira zabaltzeko ta edertzeko, eta egunen baten euskera orokor bat guztien artean sortzeko.

Barriro be badiñotsuet, zuek, Bizkai'ko gintza-asmalariok, gizartean mailla goren bat dozue-ta, aalegin guztiakaz saiatu zaitezela, orretarako nor bazarie-ta, bizkaieraren erioztzaren aurka esi bat ipinteko, eta dagokion maillara eroateko, aldiaren ezkutunetik gure asabek laga dauskuen altxor bardinbage ori.

Ordua urreratzen yat itzaldia amaitzeko, baiña beste zeozer eratsi gura dau-tsuet. Oraingo Euskaltzaindiak lengoaren urratsetatik alde egin ebanean, euskera trakets eta idazkera zentzunbakoaz endekatuz, eta bizkaierea erioztzera galduz, Euzkadi guztiko euskaltzale batzuk, gure burubideak alperrik aldarrikatzen genduzala ikusirik, beste akademi bat sortzea erabagi genduan, eta "Euskerazaintza" edo Euskeraren Erri-akademia sortu genduan. Badira urte batzuk lanean diardu-gula euskalki guztien alde eta lengo Euskaltzaindiak onartutako idazkeraren alde. Zaila da gure egitekoa, euskal erakundeen geuganako oztasun eta ardurabako-tasunaren artean. Ez dauskue bearreko dirurik emoten, apur ezain batzuk baiño ez, baiña aal dogun eran euskerearen alde ekiten dogu, askotan janariak eta bjde-eralguntzak bakoitzaren pentzutik ordaindu bear doguzala, baiña uste dogu bide zuzenetik goazela, eta orrek bearreko indarra emoten dausku. aurrera jarraitzeko.

Besterik ez, lagun maiteok.

ZUBIRI'tar IÑAKI

# ON MANUEL LEKUONA-ri (G.D.)

GUTUN IREKIA ETA BEREZIA:

Zuzenbidea: "Zeruko Aitaren Etxea"

Kaixo, On Manuel agurgarria, gure Lekuona Zaarra:

Gaur zure lanari buruzko jorraketa egitera natorkizu. Eta gutuna irekia denez, aldi berean 2000 gn. urte onetako gazteek ere jakin dezaten zu nor izan ziñen, euskera eta euskal kulturaren munduan, Eta lan ori, espirituaren indarrez, zure aurrean jarrita egitea iruditu zait egokiena.

Gipuzkoan, Oiartzunen mundura ziñen, 1894ko Otsaillaren 9an. Eta 1987ko Uztailaren 29an artu zenuen beste bizitzarako bidea. Apaiza, eta euskal kulturaren aitagoi.

Bitarte orretan ez ziñen geldirik egon. Euskal kulturaren inguruan,; Idazle, itzulzaille, izlari, ikertzaille, kondairalari, eta artean jakintsu Leenengoz, apaiz onaren eginkizunak beteta; eta gero euskera eta euskal kultura lantzen; ederki landu ere! Eten gabe , egiñaalean, ortxe jardun ziñen zure bizitza guztian, eta geienetan aldatz gora. Ez zenuen dirutan etekiñik jaso, eta Jesukristoren maitasuna izan zenuen ardatz, eginkizun guztietan.

Eusko Ikaskuntza, eta Euskalerrriaren Adiskideen elkarteetako bazkide. Euskaltzaindikoa 1919gn. urteaz geroztik, eta Akademia orren buru 1967tik 1970ra. Oiartzungo garoa eta mendien zabaltasunaren aize garbia ez ornen zirela egokie-nak euskeraren etorkizunerako, eta gure izkuntza kale estuko ibilbidean sartze-ko, Euskaltzaindiko buru-oi "izendatu" zintuzten.. Kardaberaz Jakintza Bazkuna 1924ean sortu zenuen Gasteizko Seminarioan, euskera idatzia landu eta bultzatze-ko, eta apaiz berriak prestatzeko gure ama izkuntzaren bideetan.

Liturgiaren itzulpen lanetan zuzendari Eta " Doctor Honoris Causa ", Gasteizko Teologia Fakultadean..

Denborak, aize zakarrak bezala, dena eramaten ornen du berarekin. Ori ordea, ez da egia osoa, gizonen egiñak emen gelditzen bait dira betirako; eta zureei dagokienez, agiriz egiaztaturik gaiñera. Liburu sail ederra idatzita ementxe utzi zenigun euskal kulturaren aberastasunerako. Liburu lodi eta mamitsuak. ez daukate ez lastorik ez eta ere betelanik. Euskalzaletasunak eman duen gizon eman-korrenetako bat, zu izan ziñen, On Manuel.

Aipa ditzadan liburu orietako izenburu batzuk:

"Gabon Kantak- Jesu Aurraren Bizitza.-Zigor- Aozko Literatura- Eusko Etnografia- Arte Izti- Kondaira, (iru liburu)- Euskeralogia- Gabon eta Eliz Kanta- Geigarriak eta Aurkibideak- Metrica Vasca- La Poesía Popular Vasca- Literatura Oral Euskerika- Del Oiartzun Antiguo- Arte Vasco- E.a."

Idazki pillá ere zabaldu zenuen, onoko aldizkari auetan: " R.I.E.V Revista Internacional de Estudios Vascos- Euskalerrriaren Alde- Eusko Folklore- Euskera-Egan- Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País- Euzko Gogoá- El Bidasoa- Rioja- Príncipe de Viana- Anuario del Seminario de Filología Vasca " Julio de Urquijo"- Munibe- Kardaberaz Jakintza Bazkuna- Jaunaren Deia- Arantzazu- Fontes Linguae Vasconum- Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra- Artes Plásticas y Monumentales de Eusko Ikaskuntza- Euskerazaintza. E.a Orrez gain, zure maixutasuna erakutsiz, ainbat itzaldi eta ikastaldi ere eman zenituen Euskal Errian zear.

A zer nolako lana, On Manuel!

Zu joanda ere emen urteak aurrera dijoaz, eta zuk sortutako KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA azkenetan dugu, bazkide geienak joan zaizkigularik orain zu zauden Egoitza Nagusi orretara.. Eta neri egokitu zait, eriotz ona prestatzea. Ez diogu illetarik eskaiñiko. Bere espiritua zeurekin eraman bait zenuen Zeruko Aitaren Etxera eta zuregan dago..

Agur On Manuel, agurgarria Urrengo arte. Badakigu gutaz ez zerala aaztutzen, eta gure euskal lantxoetan ari gerala ere, argi egiten diguzula zauden neurriz kanpoko mundu zabal orretatik.

J.M. Murua-k